

JOHANN GOTTFRIED HERDER

Hizkuntzaren

jatorriari buruzko tratatua

HITZAURREA

Itun Zaharreko kreazioaren historian Jainkoak seigarren egunean gizakia sortzen du guztiz osatutako izaki gisa, bere antza duena eta pentsatzeko ahalmenaz gain hizkuntzaren jabe dena. Bibliak ez du esaten zer nolako hizkuntza zen hori, baina suposatzea da Itun Zaharreko hizkuntzagatik ari dela, alegia hebraiera. Beraz, hori izan behar zuen Jainkoaren hizkuntza ere, zeren bestela nola mintzatuko zen Adanekin eta emango zizkion portaera arauak paradisuari bizitzeko? Gizakia sortu aurretik ere mintzo da Jainkoa, eta kreazio ekintza bakoitzak darama berarekin "Jainkoak esan zuen" esamoldea. Jainkoak esan eta agindutako guztia berehala gertatzen da, bere hitzak indarra dauka mundua eta gauzak sortzeko. Gizakia hizkuntza horretan partaide izateak kreazioko gailur bihurtzen du. Egia da ezin duela horrekin gauzarik sortu, baina gai da gauzak izendatzeko eta hartara izpirituz haien jabe egiteko. Horrela, Jaunak haren aurrera eraman ditzake animaliak, "zein izen ezartzen zien ikusteko", eta "bizidun orok gizonak ezarritako izena izango zuen".

Kreazioaren historian alderdi ederrak ageri dira, are bikainak, baina baita xaloak eta gizatiarregiak ere, eta neurri bateraino txunditurik uzten du gaurko irakurle kritikoa. Hala, kreazioko faseen errenkadan harrigarritzko paraleloak azaltzen dira lurraren sorrerari buruzko egungo interpretazioekin eta izakien garapeneko jarraipenarekin. Beste aldetik, ordea, hainbeste gizatiartzen da Jainkoa, non berak, orojakileak, ez dakien non gorde diren Adan eta Eba jatorrizko bekatuaren ostean, eta beraz, galdetu beharra dauka: "Adan, non zara?".

Berez antzinatean Bibliara jo gabe ere plazaratu ziren hizkuntz sorrera eta jatorriari buruz hainbat gogoeta, baina esparru kristau-juduan Bibliako kreazio txostenean sinetsi izan bitartean, hizkuntz sorrerari buruzko galdera ez zegoen berez plazaratu beharrik ere. Unibertsitateek, gainera, zaindu egiten zuten fedezko egiak errespetatu zitezkeen. Zalantza itzelak jaio eta pixkanaka ugaritu ahala, hainbeste larritu zen problema hori, non ez zegoen gehiago saihesterik.

Hori gertatu zen Ilustrazioaren Aroan batez ere, bere puntu gorenekin 18. mendean. Sasoi horri Immanuel Kant (1724-1803), garaiko filosofo handiaren lema ipin dakioke: "Zeure adimenaz baliatzeko kemena eduki ezazu!". Gizakiak bere erruko adinik ezaz askatu beharko luke, eta horrela bere adimena eta arrazoimena erabili. Baina horrek, era berean, istilua esan nahi zuen orduko dogma teologikoekin, eta, jakina denez, Voltaire (1694-1778) aritu zen batik bat horien aurka. Hori dela eta, bere bizitzaren zati bat tirabiran igaro zuen Frantziako erregea eta eliza katolikoarekin.

Ilustratuek arrazoimena ipini zuten gizakiaren botere erabakigarri gisa. Espero zuten indar horri esker gizakiak autoritate zaharrengan sinesteari utzi eta tolerantzia eta aurrerapen bideetatik eramana izango zela. Horretaz gain, ezinbestekoa zen arrazoimen horren, eta aldi berean gizakiaren jatorriari buruzko galdera berritzea. Bibliako kreazioaren txostena aurrerantzean ez zen eztabaida ezina, eta beraz, hizkuntz sorrerari buruzko arazoa ere berriro planteatu beharra zegoen, hori gabe arrazoimenak ozta-ozta funtziona zezakeenez.

Hala, garai honetan hizkuntz sorrerari buruzko hainbat teoria erne ziren, baina horiek -- garaiko jakinduria mugatuaren ildotik-- irudimen eta fantasiaren fruitu ziren, azterketa zientifikoarenak baino gehiago. Nolabaiteko teoria ulergarria landu ahal izateko oztopo nagusiak honako hauek dira: lurraren jatorri eta adinari buruz bezain gutxi zekiten ezer

bizitzaren eta gizakiaren garapenari buruz antzinako animalia formetatik. Denborari buruzko ideiak hain eskasak zirenez, guztiz pentsaezinak ziren nolabaiteko hipotesi ebolutiboak ere. Kontuan hartu besterik ez dago, esate baterako, 1650ean bertan James Ussher, Armagh-eko artzapezpiku anglikano irlandarrak, Bibliako datuetan oinarrituz munduaren sorrerako une zehatza kalkulatu zuela, hain zuzen ere, Kristo aurreko 4004 urteko urriaren 23a, eta gainera igande goizeko bederatziak aldera, egutegi juliandarraren arabera. Munduak, beraz, 5.654 urte zituen. Data ilun hau mugarri sendoa izan zen fededun askorentzat ia berrehun urtez. Baina naturalistak ere ilunpetan haztaka zebiltzan arazo honen inguruan. Ontzat hartutako zenbaki horiek, denboraren poderioz, luzatzen joan ziren, zinez, baina denbora epe horiek ere oso urrun zeuden gaur egungo ikuspegi zientifikotik eta erabat eskasak suertatzen ziren benetako eboluzioa suposatzeke.

Nolakoak ziren hizkuntzaren jatorriari buruz ordura arteko teoriak, Johann Gottfried Herderren (1747-1803) esku zeudenak, berak 1771. urtean Hizkuntzaren Jatorriari Buruzko Tratatu ospetsua aurkeztu zuenean? Bere aitzindarienen aldean zertan zen berea desberdina, eta nor zen gizon hau?

Garai hartan hizkuntzaren jatorriari buruzko izkribuen egileak Étienne Bonnot de Condillac (1715-1780), Jean Jacques Rousseau (1712-1778), Pierre Louis Moreau de Maupertuis (1679-1759) eta Johann Peter Süssmilch (1708-1765) ziren.

Abbé de Condillac filosofo sentsualista apaiz katolikoa zen, baina ez zen nonbait lan horretan aritu¹. Berlingo Zientzi Akademiako partaide bihurtu zen Maupertuisen gomendioz. Hizkuntzaren jatorriari buruzko bere iritziak *Essai sur l'origine des connaissances humaines* (1754) obraren bigarren zatian azaltzen dira.

Rousseau, berriz, influentzia handiko literatur kritiko eta filosofo pentsalaria, bere *Essai sur l'origine des langues* (1742, postumo argitaratua 1781ean) eta *Discours sur l'origine et les fondements de l'inégalité parmi les hommes* (1755) obretan arazo honi buruz aritu zen. Herderrek ez zuenez lehen tratatu hori iristerik izan, *Discours* bakarrik har daiteke hemen aintzakotzat.

Maupertuis, fisiko, matematiko eta agrimentsore frantsesa, 1746an Voltairen gomendioz Federiko II. Prusiako erregeak Berlingo Zientzi Akademiako zuzendari izendatu zuen, eta problema hori jorratu zuen bi tratatutan, hain zuzen ere, *Réflexions philosophiques sur l'origine des langues et la signification des mots* (1748) eta *Dissertation sur les différents moyens dont les hommes se sont servis pour exprimer leur idées* (1754).

Süssmilch kontsistorioko kontseilari gorena zen eliza protestantean, eta gainera gai askotan jakintsua. Matematika eta natur zientzietako ikasketak burutu zituen, demografia fundatu eta hizkuntza ugari zekizkienez hizkuntzalaritzako hainbat lan gauzatu zituen. Berlingo Zientzi Akademiako partaide izan zen eta 1756an aurkeztu zuen Akademian bere *Versuch eines Beweises, dass die erste Sprache ihren Ursprung nicht vom Menschen, sondern allein vom Schöpfer erhalten habe*.

Arestiko autore guztiek bi oztopo garrantzitsu zituzten aurrean, aipatu bezala: jadanik osatua, animaliak ez bezalakoa, baina izpirituz oraindik erabat aurreratu gabeko "antzinako gizaki" batean zeukaten oinarritu beharra, hizkuntza, kultura eta zibilizaziorik gabea, haren existentzia suposatuz baina ez esplikatuz. Bibliako txostenak nahitaezkoa izateari uzten bazion, orduan erantzuteke zegoen galdera zail hori, alegia nola eskuratu ote zuen gizakiak hizkuntza. Autore guztiak funtsean bat datoz hasierako egoera aztertzerakoan. Kontua zen, beraz, aurkitzea ea zerk bultzatu zuen antzinako gizaki mutu hori, bere egoera basati eta gordinen, hotsen bidezko hizkuntza artikulatuaren espresio eta komunikazio bide berezia garatzera. Jakina, aintzakotzat hartzekoak ziren baldintza izpiritual eta fisikoak ere. Hasierako baldintza horiek oso desberdin aztertu izan arren, tratatu gehienak bat datoz pixkanakako sorrera-prozesu

batean oinarritzeko orduan. Autore gehienek onartu egiten dituzte hasiera-hasierako maila mintzorik gabeak, keinu, imintzio eta garrasi ez-artikulatuen forma dutenak, eta suposatzen dute igarobideak egon zirela pixkanaka hots formazio artikulatu izateraino, lehen hizkuntz zeinu gisa objektu eta zirkunstantziez jabetzeko balio zutenak. Igarobide horiek suertatzen dira denetan korapilatsuenak, eta honetan igartzen da eskainitako hipotesien konbentzitzeko ahalmena. Ia autore guztiek aitortzen dute gauzak argitzeko ahalegin bakoitzean topatzen duten funtsezko zailtasuna. Denak akort dira esaterakoan hizkuntza asmatzeko eta sortzeko lehenik zenbait gaitasun izpirituak eskatzen dituela, beraz, gutxienez pentsatzeko ahalmen zehatza. Baina gehienek aitortzen dute ere hizkuntzak lehenik pentsatzeko ahalmena garatu eta sustatu behar duela. Autoreek ongi antzematen diote zirkulu horri, eta problema horri nondik nora ekiten dioten ikusita neur daiteke beren argudioen kalitatea.

Condillacek norabide berria ematen dio John Locken sentsualismoari, honen arabera ezagupen ororen iturria zentzumenen sentsazioak direlarik. Denetariko agerraldi psikikoak ikertzen ditu, baita oroitzapen, pentsamendu eta borondatearenak ere, pertzepzio sentsorialaren transformazioak diren heinean, ahalik eta horiekin lotura duten ideiak eta adierazpenak esplikatzen eta horrela giza izpirituaren bilakaera ezagutzeko. Lehen kapituluaren berez Genesira jotzen du, baina ez kreazioaren txostenera, baizik eta esplizituki jatorrizko bekatuaren ondorengo egoerara, zeren orain arimaz gain gorputza ere jakintza-iturri baita. Pentsatzekoa da horren bitartez elizaren kritika posibleak saihestu nahi izan zituela². Bigarren kapituluaren hasten da hizkuntzaren jatorriaz mintzatzen. Bertan kreazioaren txosteneko gizaki mutuarekin egiten du topo, baina modu trebean gaintzen du zailtasun hori. Izan ere, labur eta komentariorik gabe aipatzen du Genesia, eta zuzenean egiten du jauzi uholde unibertsalaren ondorengo egoerara. Hemen sexu bakoitzeko ume bana imajinatzen du, nor bere aldetik basamortuan barrena noraezean dabilela, baina halako batean elkarrekin egokitu eta berehala hasten dira "tratuan", aurrera egiten saiatzen dira eta beren premiak garrasi eta imintzioekin adierazten³. Langage d'action honen bitartez beren kontzientzia eta oroimena sendotu eta objektu batzuentzat aurreneko zeinu artikulatuak asmatzen dituzte. Baina beren mihiak oraindik zaildu gabe daudenez, hitz banaka batzuetarako soilik balio die horrek. Orduan beren artera haur bat jaiotzen da, artikulatzeko gaitasun handiagoarekin, eta ustekabea ematen die gurasoei hitz berri batekin. Horrela pixkanaka hizkuntza ahoskatua landuz doa eta hainbat oztopo gaintu ondoren keinu-hizkuntza adinakoa izango da. Azkenean aurea hartzen dio. Hipotesi hau guztiz sinesgaitza da, eta arraroa da maila honetako autoreagan. Hala ere, balioko alderdiak ere azaltzen dira tarteka, hala nola aipamen harrigarri hori haurren eraginari buruz hizkuntza asmatzeko prozesuan. Herderrek arrazoi osoz baztertzen ditu Condillacen usteak.

Batzuetan autoreen oinarritzeko iritziak dira hainbat oztoporen iturri. Hala gertatzen da adibidez Rousseauarekin, oso ideia berezien jabe antzinako lehen gizakia dela eta.

1755ean agertutako Discours sur l'origine et les fondements de l'inégalité parmi les hommes bakarrik ezagut zezakeenez Herderrek, horretaz bakarrik arituko gara hemen. Académie de Dijoneko sariketa-gai bati dagokion erantzuna da. Bertan, Rousseauk gizartearen osatze prozesuari leporatzen dio gizakien arteko desberdintasun gero eta handiagoa. Hasieran bertan argitzen duenez, ez zaizkio ardura datuak eta gertaera historikoak, baizik eta hipotetiko hutsak diren eta elkar baldintzatzen duten arrazoimenak (des raisonnements hypothétiques et conditionnelles), eta horrela inmunizatu egiten du bere Discours hori objekzio posibleen kontra. Egoera naturalean ere lehen gizakiak bereizita daude animalietatik, arimaren jabe dira, beren zereginak aukeratzeko libre eta beren buruak hobetzeko gai. Ez dute, ordea, oraindik hizkuntzarik. Antzinako basati horiek, elkartean bizi beharrean, apartatu egiten ziren sexu diferenteak

pasaeran batu ostean, beren bizitzeko premiak asetzearen. Haurrak ere urrundu egiten ziren amarengandik, beren burua elikatu ahal izan bezain laster⁴. Hain uste xumeen bidez esplikatu nahi du Rousseauk nolaz gertatu zen komunikazioa probetxuzkotzat hartzea. Rousseauk uste du hasierako urrats ñimiñoa umeengan egon zela, hauek premia baitzeukaten beren desioak adierazteko, eta horrenbestez hizkuntza sortzea eragin zuten. Baina laster urruntzen zirenez amarengandik, horrek ez zuen segidarik. Baina gizakiak emeki-emeki denean zabaldu ahala, derrigor hurbildu ziren oster. Batzuetan elkar laguntza jasotzeko gogoagatik. Hartara aldian behin talde txikitik biltzen ziren, arrantzarako edo ehizarako, horrela komunikatzeko premia handituz. Orduan agertu ziren hizkuntza osatzeko lehen urratsak, oso xumeak baziren ere. Naturako garrasi emozionalekin hasi zen (*cris de la nature*) eta batik bat imintzioekin, ahalik eta ikusteko moduan zeuden objektuak seinalatzeko. Horiek osatzera etorri ziren soinu-artikulazio onomatopeikoak ere, animalia hotsak-eta imitatzeak. Baina hori, noski, ez zen nahikoa. Aurrerapauso bakoitzak pentsatzeko ahalmen gorenagoa suposatzen zuen, baina horrek bere aldetik hizkuntza landuagoa eskatuko zuen. Rousseau ongi jabetzen da zirkulu horretaz, baina ezin du argitu. Hizkuntza mintzatu artikulatuak garatzeak soinuaren produkzioa hobetzea suposatzen du, eta baita elkarte zabalagoak osatzea ere. Hizkuntz desberdintasunaren hasiera aurreneko giza talde herrariengan egon zitekeen, baina berez gizarteak osatzea kanpoko gertaerek eta hainbat katastrofe naturalek eragin behar izan zuten, horiengatik gizakiak areago elkarrengana bilduz. Hemen tartekatzen da Rousseauen gogoeta kritikoa, kultura dela eta. Hizkuntzaren garapena lehen gizartearen sorrerarekin lotuta dator, eta horiek eragin zuten gizakia naturatik erabat desbideratzea, ondorio kaltegarri guztiekin. Jabegoa ezartzearekin batera hasi zen okerra; hala, hein batean horren errua da gizakien artean desberdintasuna egotea eta zibilizazioa bere bidegabekeria guztiekin agerraraztea.

Hortik aurrerako hizkuntz garapena dela eta, Rousseauen ustez ehundaka mendeko (!) kontua, Rousseauk zenbait espekulazio luzatzen ditu, esaldiko zatien eta gramatikaren sorrerari buruz. Horko asko zeharo onartezina da. Berak dioenez, esate baterako, lehen hitzek objektu indibidualentzako izen propioak izan behar zuten, harik eta, ugaritzen joan ahala, amaiezinak gertatu ziren arte. Kontzeptu orokorrak osatu beharrak halako ezinean ipini zuen lehen hizkuntz sortzailea, non Rousseauk ez duen bere burua gai ikusten hori dena argitzeko. Hala, bere iritzia da giza ahalegin hutsak ez zirela horretarako aski. Ez du, beraz, baztertzeko laguntza jainkotiarra. Aipatzekoa da ere, Rousseauen ustez pasioak direla batez ere hizkuntz garapenaren pizgarriak, horiek bultzatzen baitute gizakia bere sentimenduak adierazi eta hedatzera.

Ohar banaka horiekin argi geratzen da zergatik Herderrek Rousseauen zenbait alderdi onets zitzaizkeen, baina beste zenbait tinko baztertu beharra zeuzkan.

Herderrek ez zuen nonbait ezagutu Maupertuisen *Réflexions sur l'origine des langues et la signification des mots*, zeren estreinakoz 1748an argitaratu baitziren ale banaka batzuk ezagunen artean, eta gerora 1758an agertu ziren Maupertuisen lan bilduman, batik bat natur zientzietako gaiez osatua. Orduan jaso zuten Frantzia arreta eta kritika, adib. A.R.J. Turgot eta M.F.P. Maine de Biranena. Tratatu hori hemen aipatzearen arrazoiak da tarteka zenbait pentsamendu daudela Herderrenen antzekoak. Maupertuisen abiapuntua --harrigarria bada ere-- honako hau da: gaurko hizkuntza europarrak konparatetik ez dela espero inolako argitasun aurkitzea, elkarren antz handiegia dutelako. Aldiz, herri basatien hizkuntza urrunekin konparatzea balio handikoa izan liteke, horiek plans d'idées erabat desberdinen arabera daude taxutuak eta. Zoritxarrez ez du horren inongo agiririk ematen, bere kritikoek ere leporatu diotenez. Laponiera dauka gogoan (ez-indoeuroparra), berak behin aipatua eta lurra neurtzeko ikerketaspedizio batean ezagutu zuena⁵. Plans d'idées honekin ekiten dio hizkuntz

erlatibitatearen problema garrantzitsuari, Herderrengan eta bereziki Wilhelm von Humboldtengan ere topatzen dena, eta gaur egun oraindik hizkuntzalaritzan eztabaidagai dena. Maupertuisen *Réflexions* horiek, ordea, zeinuen sorreraz dihardute beste ezeren aurretik, modu teoriko hutsean bide algebraiko abstraktutik. Ezagupen-teoriaren ikuspegitik, azpimarratzekoa da Maupertuisek zentzumenen emaitzak konparatzen dituela horiek adierazteko erabilitako hizkuntz bideekin. Horrekin arbitrarietate modu bat finkatzen du, gure epaian ondorio larriak dituen. Urruneko nazioak erabat desberdin ihardun zitezkeen, eta horrela pentsamenduko suposizio erabat desberdinak lortu. Baina honetan ere Herder ados egon liteke. Oro har Maupertuis hizkuntz eszeptiko eta kritiko bezala agertzen da, zientzietako terminologia guztia berrikusi nahian, ahalik eta filosofia sendo oinarritzeko.

Maupertuisen 1754ko *Dissertation sur les différents moyens dont les hommes se sont servis pour exprimer leurs idées* Akademia aurreko hitzaldia ez zegoen Herderren esku Strasburgen. Süssmilchek hizkuntzaren jatorriari buruzko bere izkribuaren eranskinean hari buruz emandako txostenean oinarritu zen Herder, beraz. Agerraldi horretatik dago, hortaz, abiatu beharra: Maupertuisek bere *Dissertation*-ean hizkuntzaren jatorriari heldu eta iritzi harrigarria plazaratzen du, alegia bi hizkuntz hasiera egon zirela. Lehen gizakiek hots banaka batzuk eta keinu pantomimikoen bitartez adierazten omen zituzten beren premiak. Hasierako "animali hizkuntza" honek oso aukera urriak eskaintzen zituen, eta ozta-ozta zabal zitekeen zeinu gehiagora, horiek erabiltzeko akordioa hartu ondoren. Hala ere, arrazoimen maila apala eskuratu zuten horrekin, eta baita zuzena eta okerra bereizteko ahalmena ere. Baina denbora asko igaro ondoren gero eta nabariagoak egin ziren mugak, eta konturatu zirenean mihiak eta ezpaineak soinu artikulatu asko ere osa zitzaketela, bigarren hizkuntza garatu ahal izan zuten, herri guztiengan nagusitu dena konbentziotan oinarrituz. Bigarren hizkuntza honek, nonbait, gogotik sustatu zuen pentsamenduak elkarbanatzea, eta horrela joan da hobetzen. Modu horretan egin omen zen ere posible kategoriak eta gramatika osatzen joatea. Azkenik, hizketako lagunik ez denerako pentsamenduak adierazteko premia jaio omen zen, idazketa asmatzeko lehen urratsa. Süssmilchek tinko baztertzen du Maupertuisen zalantzazko hipotesi hau.

Süssmilchen jarrera hizkuntzaren jatorria dela-eta arras berezia da, zeren, bere garaiko joerak ez bezala, jatorri jainkotiarreara itzultzen baita. Eta ez erlijioarengatik. Izan ere, Bibliako kreadzioaren historian bermatu gabe, "modu filosofikoan" soilik argudiatu nahi du. Perfekzio bikaina eta ordena gramatikala hartzen ditu aintzakotzat hizkuntza zahar nahiz berrietan, berak ongi ezagutzen dituenak. Baina, aldi berean, hizkuntza horiek hain dira soilak eta egituran antzekoak, non gizaki guztiek aise ikas ditzaketen. Gainera letra gutxi batzuekin (15-24!) idatz daitezke. Hori dena mirestekoa da eta ezin du gizakiaren lana bakarrik izan. Horrelako ezer asmatzeko, gizakiak bere baitan eduki beharko zuen pentsatzeko ahalmen guztiz garatua. Egia da jaiotzez zela horretarako gai, baina hizkuntzaren bidez soilik has zitekeen arrazoimena garatzen. Süssmilch ohartzen da horrelako argudioak zer zirkulura daraman eta bere ondorioa da hizkuntzaren sorburua Kreatzailea soilik izan daitekeela. Horrela, argi baztertzen du animalia hotsak imitatzetik sor daitekeen hizkuntza. Süssmilchek bere *Beweis* hori 1756an irakurri zuen, Maupertuisen Akademia aurreko hitzaldiari erantzunez, leku berean. Ohitura hautsiz Akademiak ez argitaratzeak, ordea, gaitzespena jaso zuela frogatzen du. Baina, berez, Süssmilch bera izan zen moldiztegitik kanpo gorde zuena, hura gehiago aztertzea eta ontzen uztea komeni zelakoan. 1772an apoplexia atakea jasatean erabaki zuen hura argitaratzea, 1766an gauzatuko zena, bera hil eta handik urtebetera. Akademiarentzako eskaintza batekin aurkeztu zuen, alegia berriro epaitua eta aztertua izan zedila, eta aukera hartaz baliatu zen eranskinean beste autore batzuen aburuen kontrako kritika sakontzeko, besteak beste Maupertuis, Condillac eta Rousseau.

Gaurko ikuspegitik, Süssmilchen akats nagusia da maila handian garatutako hizkuntzetan oinarritzen dela, aintzakotzat hartu gabe horiek aurreko maila xumeagoetatik jaioak izan behar dutela eta benetako hizkuntzaren jatorria are urrunago bilatu behar dela.

Johann Gottfried Herder (1744-1803) 18. mendeko hiru jakintsu handiren arteko gazteena zen, hirurak Königsberg Unibertsitatean ikasiak. Beste biak Immanuel Kant (1724-1804) eta Johann Georg Hamann (1730-1788) ziren. Hirurak maila apaletik hasi eta mundu osoan lortu dute ospea. Ilustrazioaren semeak ziren, baina hortik harantzago joan ziren. Beren adimenaz baliatzeko kementa izan zuten, ongi jakinda arrazoimenak ere mugak dituela. Kant izan zen bi gazteen irakasle. Herderrek, sortzez Prusia ekialdeko Mohrunge-koa, zor handia zuen harekin eta bere lagun zaharragoa Hamannekin, baina bere bidea aukeratu zuen. Irakasle eta predikatzailerik bezala hasi ondoren Riga, laster agertu zuen idazteko iaioitasuna, printzearen hezitzaile izan zen Eutinen, teologo Bücheburgen, eta 60 urteak iritsi baino lehen hil zen kontsistorioko kontseilari goren eta gorteko predikatzailerik goren Weimarren. Herder zirikatzaile handia izan zen: gogotik eragin zien gazteria literaturazaleei eta klasiko alemaniei, eta aitzindaria izan zen ikusmolde erromantikoak hartzeko orduan. Ingalaterra eta lurralde baltiko eta eslaviarren iragan literarioaren aurrean begiak zabaltzeko, eta Europako mugaz haraindi ere so egin zuen. Patriota eta kosmopolita zen aldi berean, herri eta kultura urrunekiko gizalege eta errespetuaren babesle. Oso heziketa zabala eduki zuen. Interes handia zuen historiako bilakaerarako, eta natura osoaren barruan gizakiaren lekua berriro finkatzen saiatu zen. Hala, ikuspuntu biologiko eta antropologikoak landu zituen, izaki bizien erresuman gizakiaren kokapen berezia sakonago ulertzeko.

Herderrek giza izaeraz dituen iritziak hobeto ulertzeko eta gaizkiulertuak saihesteko, ezinbestekoak dira ohar batzuk: egoera basati, gordinetik izaki zibilizatu bihurtu den kultura bezala hartzen du Herderrek gizakia, etengabe bere burua hobetu nahian ari dena. Hasierako egoera naturalean jadanik animalietatik bereizita dago zinez, baina ez da oraindik "benetako" gizaki, berez dagokion helmugara bidean dago. Hura funtsean animalia ez bezalakoa zertan den erakutsi nahi du Herderrek. Animalien erresuman ezagun da mailaketa, jakina, baina gizakiak denak gainditzen ditu. Herderren obran batzuetan badirudi Darwinek ehun urte beranduago landuko duen eboluzioaren ideia ageri dela. Izan ere, behin eta berriro dihardu garapena eta progresioari buruz, zutik ibiltzea eta lanabes gisa par excellence eskua edukitzea dira berarentzat gizakiaren funtsezko ezaugarriak. Baina hasieratik gizaki zen, ez dago inolaz ere animalia mailatik datorren eboluziorik. Jainkoak sortua da berez gizakia, baina ez Genesiak deskribatu bezala.

Ez dago, beraz, nahasketa posiblerik: Herder ez da eboluzionista. Horixe adierazi zuen jadanik Kantek bere erreseinan Herderren 1784ko *Ideen zur Philosophie der Geschichte der Menschheit* obrari buruz. Bertan, Herderrek sakon aztertu zuen garapena, unibertso organikoaren betiko bilakaera, biologi mailako etengabeko iraultza, eta baita epigenesia ere. Baina Kantek arrazoi osoz azpimarratzen du ez dagoela bertan hitz egiterik organizazio-mailaketaz zentzu zorrotzean. Senidetasunak, alegia espezieak bata bestetik ala denak altzo sortaile beretik jaiotzeak, berak dioenez, "ideia beldurgarritara eramango gintuzke, arrazoimena haien aurrean dardarka jartzerainokoak, eta horrelakorik ezin zaio egotzi Herderri, okerreko gauza izango litzateke eta" (10, 792)⁶. Baina, sei urte beranduago, Kantek berak Judizioaren Kritika obran deszendentzia teoriaren zirriborro ausarta egiten du zentzu horretantxe, eta "ez hain burugabea" irizten dio (8, 537. or. eta hurrengoa).

Herder zuzen epaitu nahi duenak, kontuan hartu behar du hark zer ezagut zezakeen eta zer ez zientzien orduko egoeran. Bere aitzindariak dagokienez ere beste hainbeste, noski.

Elizaren interpretazio ortodoxoaren arabera munduak hortxe-hortxe 6000 urte zituen, aipatu bezala esparrua mugatuegia zen benetako eboluzioa suposatzeko. Herder asko interesatu zen orduantxe hazkundera zeuden antropologi zientzien emaitzez eta ikuspegi ona eskuratu zuen. Nonahi igartzen da hori bere Hizkuntzaren Jatorriari Buruzko Tratatu obra goiztiarrean, hemen euskaraturik agertzen dena. Herderrek 1770/71 bitartean Strasburgen burutu zuen 26 urte besterik ez zeuzkala, eta gainera izan daitezkeen baldintza neketsuenetan eta presa bizian. Hala agintzen zuen beharrak, zeren Berlingo Zientzi Akademiak sariketarako galderari emandako erantzuna zen eta 1771ko urte bukaera baino lehen aurkeztu behar zen. Honela zioen gaiak, frantsesez: "En supposant les hommes abandonnés à leurs facultés naturelles sont-ils en état d'inventer le langage? et par quels moyens parviendront-ils d'eux-mêmes à cette invention?". Beraz, arazoa zen ea gizakiek beren gaitasun naturaletan soilik oinarrituz hizkuntza asmatu ahal izan ote zuten, eta nola iritsi ziren beren kabuz asmaketa horretara.

Nondik nora hizkuntzaren jatorriari buruzko galdera hori, eta zerk bultzatu zuen Herder erantzuna ematera? Arestian esan bezala, Maupertuis, Akademiako zuzendariak, 1754. urtean hizkuntz jatorriaren arazoari ekin zion eta ondoren Süssmilch Akademiako partaideak beste tratatua plazaratu zuen gai horrexetaz, non ustekabean berriro hizkuntz jatorri jainkotiarren alde egin zuen. Gaitzespen orokorra jaso zuen horrek. Baina Süssmilch bizi bitartean ez zitzaion berriro heldu nahi izan gai bihurri horri. Baina 1765ean, Süssmilch hil zenean, berriro has zitekeen eztabaida, hain kide estimatuari errespetua galdu gabe. Horregatik agertzen da ere sariketarako gai berritua, Bibliako txostena seriozki hartzen ez zelako seinale. Zernahi gisaz, hipotesi hutsa den iritzi batez dago moztururik, istilurik ez sortzeko.

Herderrek bere lehen izkribuetan, adibidez 1767. urteko Über die neuere deutsche Literatur obran, jadanik jorratzen du hizkuntz jatorriaren arazoa eta bere iritzia ematen du aitzindariari buruz, baita Süssmilchi buruz ere. Hala, sariketarako gai berrituaren albistea iristen zaionean, bere iritziak oraingoan xeheago azaltzeko deia sentitzen du. Nolanahi ere, bere lan baldintzak erredakzioaren denboran penagarriak izan ziren. 1770ean Strasburgera joan zen begietako gaitz batetik libratzeko, haurtzaroz gero nozitzen zuena. Alferrik izan ziren hainbat ebakuntza. Hala, etengabeko oinaze artean eta denboraz larrituta burutu behar izan zuen bere lana. Goethek eman digu horren lekukotasuna. Hori ez da hemen aipatzen tratatuaren hutsak desenkusatzeko, baizik eta ulertarazteko zergatik ez zegoen hura pozik bere lanarekin. Azken erredakzioa justu-justu garaiz aurkeztu eta saria irabazi zuen. 1772an azaldu zen izkribua Berlinen.

Nolakoa da Herderren erantzuna eta zertan da bere aitzindariena ez bezalakoa?

Lehen esaldiak berak txundituta uzten du irakurlea: "Animalia gisa harturik ere, gizakiak hizkuntza du". Berehala dator esplikazioa: sentsazio bortitz guztiak, pasio gogor guztiak, nola animalian hala gizakiagan, garrasi eta hotsen bitartez berehala jaulkitzen dira garrasi, hots, soinu basati artikulatu gabeen bitartez. Aldamenean lagunurkorik ez bada agertzen dira jaulkipen horiek. Baina leherraldi emozional horiei Herderrek hizkuntza deritze, zehatzago esanda "sentsazioaren hizkuntza" edo baita "hizkuntza natural" ere, zuzeneko lege natural izan behar duena. Hasieran animaliek bezala zuen gizakiak ere hori, eta oraindik eskura daude horren aztarnak. Herderrek funtsezko elkartasuna ikusten du gizakia eta animalien artean, eta izaki biziak diren heinean oinarritzko lotura horrek batzen ditu biak. Baina horri hizkuntza deitzea nahasgarria da, eta Herder ere alde hori argitzen saiatzen da, benetako hizkuntzari hizkuntza "gizatiarra" deituz.

Herderrek azpimarratzen du naturatik hurbil dauden hotsetatik inoiz ezingo zela hizkuntza gizatiarra garatu. Beraz, ildo horretatik doazen aurreko iritzi guztiak tinko baztertzen ditu. Hizkuntza gizatiarraren abiapuntua zinez oinarritzkoa eta sinplea da ere,

baina erabat bestelakoa. Naturako hotsetatik hurbilen daudenak interjekzioak dira, baina alde erabakigarri batekin, alegia soinu artikulatuak direla. Interjekzioetan eta hizkuntza zahar askoren "sustraietan" oraindik aditzen dira naturako hotsen oihartzunak, oraindik ez dagoenez erabat etenda animaliekiko lotura, baina hasiera guztiz berriaren aurrean geundeke.

Hori ulertarazteko, gizakia eta animalien arteko alde erabakigarria zehaztu beharra dauka. Herderrek hori azaltzen duen moduak erakusten du zenbateraino onetsi zuen pentsaera biologikoa. Hasteko eskaintzen digun azterketaren arabera, animaliak zentzumen zorrotzagoen jabe dira eta erabat senen menpe daude. Animalia bakoitza, modu batean ez bada bestean, jaiotzen denetik berarentzat aproposa den esparrurako finkatua dago, Herderrek "animalien esfera" deitzen duena. Honek espezie bakoitzaren bizitza mugatu eta bizitzeko behar duen guztia ematen dio. Senaren laguntzaz animalia bakoitza gai da habiak egin eta horrelako beste "trebezia" baliatzeko, baina aldi berean horiei erabat lotuta dago.

Gizakia, berriz, ez! Zentzumen ahulagoz dago hornitua, sena urri eta ahula du. Ezertarako gauza ez dela jaiotzen da eta erabat besteren laguntzaren peskizan dago. Animalien aldean eskas dago jantzia eta ikasiz bereganatu behar du premiazkoa duen guztia. Egia da animaliak baino esfera zabalagoa duela, baina ez du bere esku jaiotzazko abildade bakar bat ere bizitza ziurtatuko dionik. Herderrek marraztutako irudi honek badu bere lilura, baina aitzakia franko jar dakioke. Izan ere, makina bat animalia mota ezertarako gauza ez direla jaiotzen dira, eta espezie gorenak horixe direla ikasteko gai eta egoera berrietara ere molda daitezke. Baina, hala ere, garrantzi handia du Herderren esanak. Osagai fisiko eta izpiritualen arteko eragina eta animalien esparruari buruz diotenak, gogora dakartza gure mendean Jakob von Uexküll biologoak landu dituen pentsamenduak ingurugiroaren, edo hobeto esanda inguru propioaren teorien⁷.

Hori argiago geratzen da Herderrek naturaren "gubernua" eta "ekonomia" kontzeptuak sartzen dituenean. Pentsaezina da norekin eta gizakiarekin natura hain amaorde zekena izatea. Horrelako kontraesana ez dator bat naturaren gobernuarekin. Gizakiak beste gaitasunen batzuk eduki behar ditu, eta jaiotzaren orduan horiek ernamuina bezala daude kokatuta. Askatasunaren abantaila bereziak sobera berdinduko ditu desabantailak. Gizakia ez da preso geratzen animalien mugen barruan, ikuspegi zabalagoa erdiesten du. Izaki libre denez, bere buruari so egin diezaioke, Herderrek dioen bezala. Bere arimako ahalmenak modu berezian aritzen dira elkarlanean, bere disposizio osoak nolakotasun berria erdiesten du. Animaliangana sena dena gizakiagan arrazoimena da. Denean aritzen da zatitu gabeko arima osoa, gauzez konturatuz, jakinaren gainean eta bere borondatez. Giza naturaren disposizio hain berezi honi Herderrek "bereizmena" deritza, eta kontzeptu hori da ere hizkuntza asmatzerakoan zerikusi erabakigarria duena. "Islaren esfera" delakoan gogoeta baldin bazen kontzeptu nagusia, honek orain bereizmenarekin elkartuta hizkuntza asmatzeko ahalmena lortzen du.

Metaforaren indarrez marrazten du Herderrek abiapuntu hau: "Gizakiak gogoeta agertzen du, baldin bere arimako ahalmenak hain libre diharduen non zentzumenen bitartez gainera datorkion sentsazio itsasotik olatu bakar bat bereiz badezake, zilegi bazait horrela mintzatzea, huraxe geldiarazi, hartan arretan ipini eta ohartzen bada hura hautematen ari dela". Eta horrela iristen da arima lehen epaia ematera. Hau modu konkretuan gertatzen da, hau da, "hausnarketaren seinale" bati heldu eta "arimaren hitz" bihurtuz. "Horrekin asmatu da giza hizkuntza". Herderrek ardi marrulariaren adibide ospetsuaz azaltzen du hori, Moses Mendelssohnek Lessingi bidalitako gutun batetik hartua: gizakiak ardia ikustean ezagutu egin nahi du hura, zentzumenen aurrean zuri, leun eta ariletsu agertzen dena. Seinale bila dabil arima: ardia marruka! Inpresio hori itsatsita geratzen zaio, eta ardia osteratuta eta honek marru egitean ezagutzen du

berriro, eta modu gizatiarrean ezagutu duela sentitzen du: "To! Hi haiz marrularia!". Lortu du seinalea. Herderrek honela darrai: "Eta hori zer da barruko seinale-hitz besterik? Marruaren hotsa, giza arimak ardiaren ikurtzat hautemana, hausnarketa honen bitartez ardiaren izen bihurtu da, nahiz gizakiaren mihia inoiz hura toteltzen saiatu ez. Marrutik ezagutu du ardia; bereganaturiko ikurra da, eta horrekin arima argiro oroitzen da ideia batez: zer da hori hitza baizik?". Eta areago: "... bere baitan egin du marru bere arimak, honek soinu hori hautatu baitzuen gogorapen-ikur bezala, eta berriro egin du marru, horretatik ezagutuz. Horra hizkuntza asmatuik! Gizaki izatea bezain naturala eta ezinbestekoa!".

Pasarte horrek garrantzi erabakigarria du. Gaurko ikuspegitik, hala ere, nekez egin daiteke bere alde. Puntu nagusia seinaleak aurkitzea eta horiek hizkuntza bihurtzea da. Herderrek, horrela, entzumenari ematen dio lehentasuna, hizkuntz zentzumen espezifiko gisa, eta ez ikusmenari, nahiz eta honek inpresio pila bat biltzen dituen, baina horiek hainbeste direnez, zaila da banakako seinaletan bereiztea. Herder arima barruko seinale-hitzaz mintzo bada, beraz barruko hizkuntzaz, ozenki kanporatu beharrik ez daukana, orduan inpresio okerra sor daiteke hizkuntzaz eta hizkuntz ikurren berezitasunaz. Izan ere, horiek hotsa eta edukiaren arteko batasun zatikaezin bezala soilik har daitezke, signifiant eta signifié, F. de Saussurrek dioen moduan. Esanahi hutsa ez da oraindik hizkuntza. Giza hizkuntza artikulatutako hizkuntza mintzatua da, eta barruko hizkuntza delako horretan ere hori beti inplizitua da. Gainera uste izatekoa da maila goreneko animaliak, ikasteko gai dena eta oroimenduna, ardiaren marrua aditzean ardia ezagutuko duela. Baina horrek ez du zerikusirik hizkuntza asmatzearekin. Hizkuntza asmatzeko premiazkoa da animalia hots artikulatu gabeak artikulatutako hizkuntza mintzatu bilakatzea, modu analogoan interjekzioekin ere gertatzen den bezala. Honela "be" edo "me" bezalako soinu-artikulazio onomatopeikoak edukiko genituzke, umeen hizkuntzan ere azaltzen direnak bezalakoak animalia lehena izena emateko. Nolanahi ere, badirudi inongo hizkuntzatan ez duela marru-hotsak eragin arkumeari deitzeko betiko izena. Areago, badaude azarnak erakusten dutenak hizkuntza batzuetan "ardi" hitzaren etimologiak ile moztua edo ardiaren larrua islatzen dutela. Gizakiari, agidanean, gehiago interesatu zaio animalia baliok marru-hotsa baino. Herderrek aipatzen du "artiletsu" seinalea ere, baina gehiago erreparatu gabe. Gizakiak zera esan izana: "To! Hi haiz marrularia!", ez dago hitzez hitz hartzerik, noski. Hala ere, gogoangarria da Herderren pentsamendua, alegia seinaleak aurkitzea erabakigarria dela hizkuntza sortzeko. Jakina, ume txikiek hizkuntza ikasteko prozesua aztertuta gehienetan besterik agertzen da. Hor, bizitzako lehena urtearen bukaeran hitz-tataleko fasea gutxitu ondoren "mama", "nana", "baba", "papa" bezalako hotsezko irudi silabiko aise artikulatuak sortuko dira jolas moduan eta zentzurik gabe, horiek aditzen dituzten pertsonen arreta piztuz. Horien erantzun eta errepiken poderioz, esanahia hartzen joaten dira, helduek hala eman nahi dieten neurrian. Hala, mundu guztian zehar agertzen den "mama" hizkuntza batzuetan "ama" izango da, baina bestetan "jan", "edoski", "amaren bular" eta abar: "aita" izendatzeko ere erabili ohi da, georgieraren kasuan bezala, non "ama" "deda" izendatzen den⁸. Garrantzitsuena da lehena hitz osatze horietan hotsa lehenago dela esanahia baino, eta hemen ere ez dagoela hitz egiterik seinaleak aurkitzeaz. Nolanahi ere, kontuan hartzekoa da hizkuntza eraikitzen hasteko aukera anitz daudela, ez hemen bakarrik, baizik eta baita hizkuntzaren jatorri genetikoan ere.

Herderrek, hala ere, oso ongi ikusten du zer zaila den jadanik emandako arrazoimenari hizkuntzaren jatorria lotzea, baina, beste aldetik, baita arrazoimenaren sortzaile bezala hizkuntza suposatzea ere. Argudio zirkularra edo ziba eternalaren mehatxua dagoenez hemen, erantzun bakarra egon daiteke: arrazoimenak eta hizkuntzak abiapuntu bera dute: ratio et oratio izan behar du, beraz.

Orain arte hizkuntzaren jatorria banakako indibiduoari soilik dago lotuta. Baina ezin du hizkuntzarik egon lagunurkorik gabe, inorengana zuzendu gabe. Hori dela eta esaten du Herderrek: "Jasotzen dudan lehen seinalea seinale-hitz da niretzat, eta komunikazio-hitz besterentzat!". Horrela, osagai soziala tartekatzen da ere. Horrek ez du esan nahi animalien aukerak goratzen direnik, espezien arteko diferentzia bat da. "Gizakiarekin erabat aldatzen da eszena". Hizkuntzak eta arrazoimenak zehazten dute gure espeziearen izaera, eta harreman estuan daude elkarrekin. Hizkuntzaren barruan dago kokatua izaera dialogikoa ere, norberak bere buruarekin hitz egitetik besteekin hitz egiteraino. Horregatik ezin du ikusmenak, "zentzumen hotza" ere deitua, hizkuntzarako "zentzumen egokiena" izan. Aitzitik, entzumena da lehen irakaslea, eta seinaleak aurkitzeko lana lotuta doa hautemandako hots eta soinuekin. Herderrek badaki, noski, objektu askok ez dutela soinuak egiten. Bere tesia salbatzearen, trikimailua erabiltzen du konbentzimendua baino gehiago: hotsik egiten ez duten objektu asko beren kabuz edo besteren bitartez mugi daitezke, eta horrela hotsak edo, areago, zaratak sortzen dituzte ere, belarriari entzutezko seinaleak igorritik. Horrela iristen da ere "ekintza hotsegileen" ideia, eta hortik beste uste batera, alegia hizkuntz bilakaeraren hasieran aditzak izan zirela lehenak. Horiek interjekzioetatik eta "arimako lehen seinaleetatik" sortuak lirateke. Ondoren, eta abstrakzioz, aditzetatik izenak agertuko ziren. Aurrerago hitz mota gehiagoren jatorria ere saiatzeko da azaltzen, baina batere konbentzitzen ez duen moduan.

Orain arteko gogoetak hizkuntzaren jatorri genetikoari dagozkio, baina aritzen da ere hizkuntza bakoitzaren bilakaeraz. Herderrek bereizketa egiten du, bateko oraindik jatorritik hurbil daudenak, eta besteko aurrerapauso handiak eman dituztenak beren garapenean. Herri basatien hizkuntza jatorrizkoenak oraindik ere makina bat osagai dauzkate jatorri hori gogorarazten dutenak. Horietan oraindik barra-barra daude hitzak, naturako hotsen fruitu direnak. Aspaldi hartako basatia osotasun bizian bezala bizi izan zen naturarekin. Harentzat naturako indarrak izpiritu eta jainko bizi bihurtu ziren. Horrela jaio ziren mitoak, hizkuntza zahar askotatik iristen zaizkigunak. "Jatorrizko hizkuntza" horiek metaforaz beteta daude, gizakiaren hizkuntz ahalmen kreatzailea erakusten dute beren egitura osoan. Hemen datza poesiaren eta kantuaren sehaska. Grekoa eta "ekialdeko" hizkuntzak bezalako hizkuntza aurreratuak ere oraindik beteta daude naturatik hurbil dauden esanahiz.

Baina argitu beharra dago hizkuntza nazional bakoitzaren jatorria ere. Horrekin batera hizkuntz desberdintasunaren problema agertzen da, eta hori konpontzeko ere Herderrek prest ditu proposamen batzuk.

Hori tratatuaren bigarren zatian gertatzen da, non Herderrek lau "lege natural" aurkeztu dituen, erakutsi nahian "nondik nora asmatu ahal eta behar izan duen gizakiak hizkuntza modurik egokienean". Bigarren zati askoz laburrago hau, pentsamendu esanguratsu batzuk kenduta, lehenbizikoa baino motelagoa da, izan ere, ugaritu egiten baitira hemen zalantzazko iritziak. Herderrek ez dio muzin egiten mundutik urrun bizi diren "modako filosofoei" erasotzeari, nahiz eta ez dien izenaz deitzen. Puntu nagusiak bakarrik nabarmenduko ditugu hemen:

Honela dio aurreneko lege naturalak: "Gizakia pentsamendu libreko izaki ekintzailea da, eta bere indarrek progresioan dihardute lanean; horregatik da hizkuntzaren jabe".

Hemen lehen zatiko ideien katea errepikatzen du, eta azpimarratzen du giza naturari dagokiola pentsatzeko gaitasuna perfektionatzea eta hizkuntza osatzen joatea. Gizateria osoaren zeregina da guztiaren jabe egitea, modu izpirituailean, hizkuntzaren bidez. Lan hori gizarteko maila bakoitzari banatuta dago. Hemen eta geroago ere gogor ekiten die beste filosofoen gogoeta desbideratuei, horiek ez baitira konturatzen erabat galduta

leudekeela gizartetik kanpo. Herderren ustez, bizitzeko iaotasun praktiko guztia galdu dute.

Honela formulatzen du Herderrek bigarren lege naturala: "Gizakia taldeko, gizarteko kultura da, izatez: hizkuntza osatzea, beraz, naturala zaio, funtsezkoa, beharrezkoa".

Hemen gizakia taldeko izakitzat eta hizkuntza, berriz, elkarte sortzen duen indartzat hartzen da. Herderren iritziz gizarteak aurrera egin du, bularreko haur gizagaixoa eta familiarik hasi, eta nazioak (hau da, leinu eta herriak) eta gizateria osoraino. "Inortxo ere", hala dio berak, "ez da bizi bere buruarentzat soilik, espeziearen osotasunean dago kokaturik, zati bat besterik ez da segida horren barruan". Horren pareko ildotik doa hizkuntzaren garapena. Bularreko haurrak bere aita- edo ama-hizkuntza ikasten du hitzaren zentzurik estuenean, hori famili hizkuntza bihurtuko da eta ondoren elkarte handiagoaren hizkuntza.

Bertan iragartzen da jadanik Wilhelm von Humboldten geroagoko pentsamendua, alegia hizkuntza bakoitzak mundu ikuspegi berezia daramala bere baitan. Honela idazten du Herderrek: "Gure ama-hizkuntza izan zen guk ikusitako lehen mundua, guk sentitutako lehen sententzia, guk gozatutako lehen ekintza eta poza". Hizkuntza bakoitza etengabe hobetzen ari da eta premia naturalez dago gizakiaren bizitzari lotuta. Horrek Herderri aukera ematen dio zorrotz ekiteko Rousseuren "paradoxei" lehenbiziko jabegoaren jatorri eta eskubideari buruz. Gizakiak berarentzat erdietsi du mundua prozesu neketsuan, aldi berean objektuak bere pentsamenduekin (hau da, hizkuntzarekin) zehaztu ditu eta horrela bere jabegoaren zigilua ezarri die. Humboldten ikuspegitik honela esan liteke: hizkuntzarekin eta hizkuntzaren bitartez gizakiak izpiritua bihurtu du munduko jabe.

Zera dio hirugarren lege naturalak: "Giza espezie osoak talde bakarra izaten jarraitu ezin zuen bezala, ezin zuen ere hizkuntza bakarra eduki. Hainbat hizkuntza nazional osatu ziren, beraz".

Berriro tartekatzen du bere argudioa, gizabanakotik familiara eta hortik naziora. Herderren iritziz gizaki bakoitzak du funtsean bere hizkuntza propioa, eta talde handiago bakoitzak ere bere hizkuntza propioa osatzen du. Hizkuntza bakoitzak gertaera berrietara moldatu behar du inguru arrotz bakoitzean. Ateraldi bizkorrez diosku Herderrek: "Proteo da hizkuntza, lurraren gainalde borobilean".

Herderrek ondoren hainbat "modako filosofoen" iritziari ekiten dio, esanez naturak zonalde bakoitzean arbaso propio batzuk sortarazi eta horiek beren lur- eta nazio-hizkuntza propioak landu dituztela. Geroago berriro heltzen dio pentsamendu horri. Auzo hurbilak diren herri txikiek erabat hizkuntza desberdina edukitzearen arrazoiak, berriz, istilu eta sesiorako bide ugariak izango lirateke, gerora etsaigoa eta gerra piztuko dutenak. Harrotasunak eta ohorearen balioak eragin zuten norberaren leinuaren alde jartzea eta arrotza baztertzea. Herderrek garapen kaltegarri hau giza naturaren ahuleziari egozten dio, horrela aitzakia bilatu nahian. Funtsean hizkuntza guztiek jasan zuten hori, elkarrengandik gero eta gehiago urrunduz. Zentzu horretan interpretatzen du ere Herderrek hizkuntzen bereizketari buruzko "ekialdeko dokumentua" (Babelgo dorrearen eraikitzea). Herrien migrazioak ere aipatzen ditu, baina ez du aitortzen bai horiek eta bai konkistarako kanpainak hizkuntzen nahasketa eta hizkuntza berrien sorrerako bide izan zirela. Agerraldi negatibo guztiak gorabehera, Herderrek giza espeziearen aurrerapen orokorrean sinesten du.

Honela dio bere laugarren lege naturalak: "Itxura guztien arabera giza espezieak batasun progresiboa osatzen duenez, jatorri bakarretik abiatu eta gobernu-lan handi bakarrentzat bideraturik, beste hainbeste ere hizkuntza guztiak, eta horiekin batera garapenaren katea osoa".

Gogoeta horiek modu patetikoan biltzen ditu hitz hauetan: "Ikuspuntu honetatik zer handia den hizkuntza! Giza pentsamenduen altxorra, nork bere moduan handitua! Giza arima guztien ekimenaren batuketa".

Ondoren berriro polemizatzen du beste filosofo horien aurka, gizateriaren arbaso bat baino gehiagotan oinarritzen direnak, eta munduan guraso bakarra egon zelako ideiarekin alde egiten du, beraz Bibliako Adanenarekin bat. Bere argudioa, ordea, ahula da eta gainetik igarotzeko modukoa.

Betiko auzia da, hasiera mono- edo poligenetikotik abiatzea. Hizkuntza guztien bilakaera, hala ere, printzipio beraren ondoren gertatzen da, eta horrela gramatika guztiek ia "egitura berdintsua" dute. Honek gramatika orokor bakarraren ideia dakar burura, egituraz oso urrun dagoen txinera ere bertara biltzen delarik. Herri askok alfabeto berdina aukeratu izana ere ildo horretatik interpretatzen du Herderrek. Desberdintasun guztiak gorabehera, nabaria da ahaidetasuna: "Giza lan bakarra - giza hizkuntza bakarra", elkartzen ditu Herderrek bi ideia horiek. Baina, aldi berean, arrazoi osoz ohartarazten du ez daitezela arinegi egin hizkuntz familia ugarien zuhaitz genealogikoak.

Hizkuntz teoriaren ikuspegitik azpimarratzekoa da Herderrek, geroago Wilhelm von Humboldt bezalatsu, hizkuntz azterketan hiru maila bereiztea: 1. gizabanakoaren maila, bere hizkuntza propioa, nabaria hitz egiten duena, 2. hizkuntz elkarte diferenteen maila, gizabanakoek ez ezik, horiek ere gradu goreneko herri- eta nazio-hizkuntzak sortzen dituztenak, eta 3. giza hizkuntzaren maila, hizkuntza guztiek honekin funtsezko puntu komunak erakusten dituztelarik.

Herderren teoria osoak bere tesiaren muina baieztatzeko balio du, alegia hizkuntza ez zaiola gizakiari egokitu Jainkoaren opari amaitu gisa, baizik eta berak asmatua dela. Teologo batengan harritzeko iritzia da hori. Herderren Königsbergeko lagun Hamannek, berez teologoa ez baina pentsalari kristau konbentzitua bai, kritika gogorak zuzendu zizkion. Baina Herder kartsuki defendatzen da salatzen zaionean berak ukatu egiten duela Jainkoak gizakia sortu eta hizkuntza opari gisa eman izana. Aldiz, tinko adierazten du Jainkoaren kreazioak askoz distira handiagoz egiten duela argi ez bada gizakia munduan ipintzen izaki mintzodun guztiz osatu bezala, baizik eta bere kabuz hizkuntza asmatzeko gaitasunaz jantzia, eta gainera ez bakar bat denentzat, baizik eta anitz, horrela munduko bazter bakoitzeko herrien premia bereziei erantzunez. Herderrek ez du, beraz, kreazio jainkotiarra zalantzan jartzen, izan ere, puntu batzuetan kreazioaren historiara jotzen baitu, esate baterako lehen arbasoaz mintzo denean.

Garrantzizkoa da Herderrek ez duela soilik uste gizakiak izaki bizien erresuman posizio berezia duela, baizik eta berak hori argudio biologiko eta antropologikoen bitartez deduzitzea. Gizakia eta animalien arteko aldea erakusten du. Animalien erresumatik gizakia erabat ateratzen duena arrazoimena eta hizkuntza da. Gogoeta egin eta epaiak emateko ahalmenetik jaiotzen den bereizmenerako disposizioak egiten du hori posible. Horretan, giza arimako indar guztiek batera egiten dute lan. Herderrek beti hartzen du kontuan izaki bizi bakoitzaren kokapena natura osoaren baitan, disposizio eta gaitasunen banaketa zuzenari antzeman eta sentiberatasun berezia du izaki bizi bakoitza bere lekuan ezartzen duen naturako ekonomi legearen aurrean. Herderrek, benetako "iragarlea" Jakob von Uexküll zentzuan, gauza asko ikusi ditu handik denbora askora beste batzuek zehatzago xehatuko dituztenak. Hizkuntzaren jatorriari buruzko izkribu goiztiarrean bertan ezagun da autore inportantea dela. Bertan eskainitako ideiei geroago ere maiz heldu zien berriro. Horren emaitza gisa, ordea, ez zen egon ez 1771. urteko izkribuaren argitalpen berrikusirik ez behin betiko lan orokorrik. Nahiago izan zuen bestelako arazoetan ihardun.

18. mendearen bukaera aldeko zientzien egoerari begiratuz gero, errespetuz hartzekoa da Berlingo epaimahaikideen erabakia, modu anonimoan aurkeztutako lan hau juzkatzerakoan. Batere txikia ez den jarrera ulerkorra eskatzen zuen horrek. Hala, antzeman egin zuten hemen gizakiaren posizio berezia, izaki mintzodun gisa, modu berrian zegoela azaldua makina bat argudio zentzuzkorekin, ordura arte inork eskaini ez bezala.

Irakurketa aurretik irakurleak jakin beza ondorengo ez dela zientziatzko edo hizkuntz filosofiatzko tratatua, zentzu hertsian. Gauza askoz ez dago jabetzerik lehen irakurketan, eta ostera irakurrita hainbat gauza azaltzen dira argitara. Herderrek konpromiso osoz eta pasioak bultzatuta idazten du. Ez da harritzekoa esaldi asko hasperen ikurrez bukatzea. Hori horrela, ia noraezekoa da errepikak agertzea, kontraesanak sortzea, eta senez berehala ulertzen dena guztiz onartezina den zerbaiten ondoan egotea. Batik bat hizkuntz garapena eta hizkuntz ugaritasunaren sorrerari buruzko espekulazioak fantasia hutsetik jaioak dira. Herderren asmamena, erretorika eta estilo iruditsua atsegin zaizkionak aise aurkituko ditu izkribuaren alderdi positiboak. Aldiz, baieztapen ausart eta burugabekeria bakoitzari gogor egiten dion eszeptikoak agian desengainatuta utziko du tratatua alde batera.

Hori dena horrela, ez da harritzekoa jatorriari buruzko izkribu honek denetariko epaiak jaso izana. Hizkuntz filosofiarantz zuzendutako antropologiaren bidean mugarrria dela dioten jarrera ikusgarri positiboen aldean, badaude beste batzuk ere izkribu hau gartzetako okertzat hartzen dutenak, gainerakoan meritu handikoa den pentsalari batek egin.

Hala ere, iturri guztiak bilduz azterketa sendoa eginda obra txiki honetatik atera daitekeena erakutsi berri du Herderri buruz gaur egun agian espezialistarik iaioena denak, Ulrich Gaierek⁹. Seguru dago frogaz dezakeela Herderren izkribua ez dela inolaz ere gazte sutsu baten presakako emaitza, aldiz, autoreak erabat berariaz plan zehatza jarraitu duela, "kalkulu dialektikoa". Ildo horretatik dihardu, helburu batzuen atzetik hainbat argudio erabiliz, horiek bata bestearekin modu dialektikoan lotuz eta horretatik azaldutako kontraesanak ere argituz.

Gaieren interpretazio sakona printzipio hermeneutikoaren frogaz gisa har daiteke zuzenki; honen arabera, saiatu beharra dago autoreaz ulertzen, lehenik hark bere burua bezain ongi, baina ondoren are eta hobeto. Hori posible da zeren geroagoko interpretatzaileak, eskura dauden iturri, gutun, adierazpen eta abar guztiak bildu ondoren, hainbat gauza aurki baititzake autoreari agian burutik pasatu ere egin ez zitzaizkionak idazketaren momentuan. Ikerketa luzeen ostean Gaier emaitza harrigarria iristen da, alegia Herderrek bere izkribuan jatorriaren sei kontzeptu desberdin garatzen dituela, beraz "jatorri" hitzaren azpian aurki daitezkeen sei posibilitate desberdin, eta horrela hizkuntzaren sei kontzeptu desberdin lortzen dituela, azken finean konponbiderik ez duen problemaren alderdi desberdinak argitan jarritz. Perspektiben ugaritasun honek ere balio izango zuen, inondik ere, Akademiako epaimahaiaren adostasuna errazteko.

Gaieren argudioa tinkoa eta oinarri sendokoa da. Baina, hala ere, azken finean zalantza gertatzen da, ea bertan ageri den guztia behin betikotzat hartu behar den ala ez. Arestian esan bezala, tratatua zirriboratu eta idatzi bitartean oso desegokia zen Herderren egoera. Nekez esan daiteke berak, zirkunstantzia horien pean, bere aurkezpeneko xehetasun guztiak hain zehatz antolatu eta kontzeptuak hain zorrotz hainbeste esanahi desberdinetan erabili ahal izan zituenik. Ezin alde batera utzi ere kontzeptu bakoitzak -- eta definitzen hain zaila den "jatorri" bezalako kontzeptuak batez ere-- ideia-katea eta argudio-segida diferenteetan, eta beraz, testuinguru diferenteetan, ñabardura ia derrigor diferenteak ager ditzakeela, autoreak sekula hala nahi izan gabe. Hizkuntzaren prozesu

kreatzailearen izaera bereziarekin bat dator beti gauza berriak erretzea eta osotasunaren barruan zenbait edukien garrantzia etengabe aldatu ahal izatea.

Kontuak kontu, interpretazio-arazo korapilatsuak daude hemen, azken finean espezialista bakar batzuentzat bakarrik garrantzitsuak. Hori dela eta, irakurleari gomendatzen zaio ahal bada aurreiritzi eta alderdikierarik gabe ekiteko Herderren jatorriari buruzko izkribu honi. Originala ere aise irakur daiteke, eta interpretazio ahalegin asko ez bezala hitz jario zientifikoaren trabarik gabe. Arretaz irakurrita, norberak topatu ahal izango ditu zenbait kontraesan edo bistako epai oker, eta azalpen zehatzagoak nahi dituenak literatura kritikora eta ikerketa berezietara jo dezake. Lehen orientazio gisa aski izan daiteke Hans Dietrich Irmscheren epilogo aberatsa, jatorrizko izkribuaren Reclam argitalpen aleman eskurakoan. Horretaz gain, oso gomendagarria da Edward Sapir hizkuntzalari amerikar garrantzitsuen entsegua, Herder's Ursprung der Sprache¹⁰. Sapierek jakinduria handiz goratzen ditu obraren alderdi positiboak, garaiko beste ahaleginen artetik. Baina argi erakusten ditu ere bertako hutsuneak. Bere kritika zuhurra da, bere epaia orekatua eta objektiboa. Sapierek aportazio garrantzitsuen balioa ematen dio Herderren tratatu honi, nekez argi daitekeen arazo bati buruzkoa eta, hizkuntzalaritzak eta hizkuntz filosofiak ez ezik, giza zientzia guztiek ere beren aurrean dutena.

Helmut GIPPER

Oharrak

¹ Ikus U. Ricken, Condillacen entseguaren argitaratzaile eta itzultzailea: *Essai über den Ursprung der menschlichen Erkenntnis*, 1977, 11. or.

² A. Borstek aipatzen du entsegua modu anonimoan azaldu zela (Borst 1963, 1432. or.), baina hori ez zen arraroa 18. mendean. Autore gehienek ezagutzen zuten elkar eta ezagunak ziren, horrela ezinezkoa zelarik egilea ezkutuan geratzea.

³ Harritzekoa da istorio hori ia berdin-berdin Bernard de Mandeville pentsalari ingelesaren 1714ko *The fable of the bees or private vices made public benefits* izkribuan agertzea. Mandevillek eragin handia eduki zuenez entziklopedista frantsesengan, pentsatzekoa da Condillacen haren izkribuaren berri zuela. Ulertezina da nolatan ez duen hori aipatzen. (Ikus ere Stephen K. Land: *The account of language in Vico's Scienza Nuova: A critical analysis*. *The Philological Quarterly* 55, 1956, 356. or. eta hurrengoak).

⁴ Honetan, aipatzekoa da lehenago ere Zizeronek (*De inventione*) eta Lukreziok (*De rerum natura*) pentsamendu oso antzekoak azaldu zituztela. F. Fellman zera esatera iristen da, Rousseaugen errezepzio lukreziotarraren oldarra dagoela. Baina Rousseauk berak ez du aipatzen antzinako pentsalari hau. Ikus horretaz Karl Otto Apel: *Die Idee der Sprache in der Tradition des Humanismus von Dante bis Vico*. Bonn: Bouvier, 1963, 147. or., eta Ferdinand Fellmann: *Das Vico-Axiom. Der Mensch macht die Geschichte*. Friburg/Munich, 1976, 106. or. eta hurrengoak.

⁵ Longitude-gradua neurtzearen burutu zen, ahalik eta egiaztatzeko Newtonen hipotesia, hots, errotazioaren ondorioz lurra ekuatorean konkorra eta poloak zapalak direla.

⁶ Baieztapenaren jatorria: W. Weischedelek argitaratutako *Kanten* 10 aleko lana, Darmstadt: Wissenschaftliche Buchgesellschaft, 1968.

⁷ Ikus bibliografia: Uexküll/Kriszat, 1956.

⁸ Ikus bibliografia: Gipper, Helmut (argitar.): *Kinder unterwegs zur Sprache*.

⁹ Ikus bibliografia: Gaier, 1988 eta 1990.

¹⁰ Ikus bibliografia: Sapir, 1907.

Bibliografia

Borst, Arno: Der Turmbau von Babel. Geschichte der Meinungen über Ursprung und Vielfalt der Sprachen und Völker. 4 ale, 1957-1963. Stuttgart: Hiersemann, III. alea, Umbau, 2. zatia, 1961 (Condillac buruz 1432/33, Maupertuis buruz 1434/35, Rousseau buruz 1441-43, Süssmilch buruz 1487/66, Herder buruz 1522-27).

Clark jr., Robert F.: Herder. His life and thought. Berkeley/Los Angeles: Univ. of California Press, 1969.

Condillac, Etienne Bonnot de: Essai sur l'origine des connaissances humaines (1746). Berrir argitaratua Charles Porset eta Jacques Derridak, Paris: Ed. Galilée, 1973 (baita Oeuvres complètes de Condillac-en hainbat ediziotan).

-Essai über den Ursprung der menschlichen Erkenntnis. Alemanieraz itzulia Ulrich Rickenek. Leipzig: Reclam, 1977.

Droixhe, Daniel / Hassler, Gerda: Aspekte der Sprachursprungs-problematik in Frankreich in der zweiten Hälfte des 18. Jahrhunderts. In: Gessinger, J. / von Rahden, W.: Theorien vom Ursprung der Sprache. Berlin/New York: de Gruyter, 1. alea, 1989, 312-358.

Gaier, Ulrich: Herders Sprachphilosophie und Erkenntniskritik. Stuttgart-Bad Cannstatt: Frommann-Holzboog, 1988.

-Herderren Hizkuntzaren Jatorriari Buruzko Tratatu "txoriburu baten izkribu" gisa. In: Gabriel, Gottfried / Schildknecht, Christiane (argitar.): Literarische Formen der Philosophie. Stuttgart: Metzler, 1990, 155-165.

Gesche, Astrid: Johann Gottfried Herder: Sprache und die Natur des Menschen. Würzburg: Königshausen & Neumann, 1993.

Gessinger, Joachim / von Rahden, Wolfert (argitar.): Theorien vom Ursprung der Sprache. Berlin/New York: de Gruyter, 2 ale, 1989.

Gipper, Helmut (argitar.): Kinder unterwegs zur Sprache. Zum Prozess der Spracherlernung in den ersten drei Lebensjahren. Christine Boving, Ute Cron-Böngeler, Susanne Leupold, Gisela Niggemann eta Martin Rothauten lankidetzarekin. Düsseldorf: Schwann, 1985.

Grimsley, Ronald: Maupertuis, Turgot et Maine de Biran. Sur l'origine du langage. Etude de R. Grimsley. Genève: Librairie Droz, 1971.

Haym, Rudolf: Herder. Nach seinem Leben und Werken dargestellt. Berlin: Aufbau-Verlag, 2 ale, 1958.

Herder, Johann Gottfried. Sprachphilosophische Schriften. Lan bilduma osoko aukeraketa, Erich Heintelen sarrera, oharak eta aurkibideaz hornitua. Hamburg: Meiner, 1960/1964/1975.

-Abhandlung über den Ursprung der Sprache. (1772). Hans Dietrich Irmscherek argitaratua. Stuttgart: Reclam, 1966.

Kant, Immanuel: Rezension zu Johann Gottfried Herders Ideen. In: Werke in zehn Bänden. Wilhelm Weischedelek argitaratua. Darmstadt: Wissenschaftliche Buchgesellschaft, 1968, 10. alea, 781-806.

Maupertuis, Pierre-Louis Moreau de: Réflexions philosophiques sur l'origine des langues et la signification des mots. (1748/1752). In: Grimsley, Ronald, 1971, 26-48.

-Dissertation sur les différents moyens dont les hommes se sont servis pour exprimer leurs idées. In: Histoire de l'Académie royale des sciences et belles lettres. Berlin, 1756, 349-364 or.

Pross, Wolfgang: J.G. Herder. Über den Ursprung der Sprache. Testua, materialak, komentarioa. Munich/Viena: Hanser, urterik gabe (1978).

Rousseau, Jean-Jacques: Discours sur l'origine et les fondements de l'inégalité parmi les hommes (1755). Paris: Flammarion, 1971 eta 1992.

-Essai sur l'origine des langues, où il est parlé de la mélodie et de l'imitation musicale (1742, posthum 1781). Texte intégral reproduit d'après l'édition à Berlin, 1817. Paris: Ed. du Seuil, 1967, 501-173. Ale soltea: Bibliothèque du Graphe, Paris, datarik gabe.

Sapir, Edward: Herder's Ursprung der Sprache. Modern Philology. Chicago: University of Chicago Press, 1907/08, 109-142.

Süssmilch, Johann Peter: Versuch eines Beweises, dass die erste Sprache ihren Ursprung nicht vom Menschen, sondern allein vom Schöpfer erhalten habe. (1756). Berlin: Buchladen der Realschule, 1766,

Uexküll, Jakob von / Kriszat, Georg: Streifzüge durch die Umwelten von Tieren und Menschen. / Bedeutungslehre. Hamburg: Rowohlt Taschenbuchverlag, 1956 eta baita gehiagotan ere.

LEHEN KAPITULUA

Vocabula sunt notae rerum. Cic.¹

Gauza izan al dira gizakiak, beren gaitasun naturaletara abandonaturik, hizkuntza asmatzeko?

I

Animalia gisa harturik ere, gizakiak hizkuntza du. Bere gorputzaren sentsazio bortitz guztiak, eta bortitzen artean bortitzenak, mingarrienak; bere arimaren pasio gogor guztiak, berehala jaulkitzen dira garrasi, hots, soinu basati artikulatu gabeen bitartez. Hala animalia oinazetuak nola Filoktetes heroeak ere, tartean mina denean lantu egingo du, intziri egingo du, baita irla mortuan abandonatuz gero ere, ez baldin badu lagunurko errukiorraren ikuspen, aztarna eta itxaropena. Badirudi hasperen sutsu, ezinduk aireratuz libreago hartzen duela arnasa; badirudi, haize hunkigaitzak aienez betetzearen poderioz, bere minaren zati bat intziri bihurtu dela eta jasateko indar berriak erakartzen dituela aire-espazio hutsetik. Izan ere, naturak ez gaitu egin harkaitz isolatu, monada egoisten gisako! Baita animali sentsazioen soka finenak ere (metafora honetaz baliatu behar dut, ez baitut hoberik ezagutzen gorputz sentikorren mekanikarentzat), baita bestelako sokak ere, alegia beren soinua eta eginahala inolaz ere borondate edo hausnarketa arretatsutik ez datozenak, beren izaera arrazoimen ikertzaileak ere ezin izan dituenak ikertu, soinu horiek ere beste izakietara daude zuzendurik beren ihardun guztian, kanpoko sinpatiak jabetu ala ez. Jotako sokak naturaz dagokion zeregina betetzen du: hots egiten du, sentimendu paretsuko oihartzun bati deitzen dio, baita ez dagoenean ere, baita erantzunik espero ez duenean ere.

Fisiologiak iristerik baleuka arimako doktrina frogatzera, neuk zalantza egiten badut ere, orduan azalpen horri hainbat argitasun zabalduko lioke nerbioen egituratik abiatuz; baina baita agian hori izpi banakatu, txikiegi eta motelegitan zatitu ere. Onar dezagun honako hau, oro har, lege natural argitzat: Horra hor izaki sentikorra, bere sentsazio azkar guztietatik bakar bat ere barrenean gorde ezin duena; ustekabearen aurrean, inongo borondate eta asmorik gabe, huraxe ozenki kanporatu beharra daukana. Naturaren esku kreaizailearen azken ama-zigilua izan zen, nolabait ere, mundutar guztiei lege hau eman ziena: "Ez sentitu zeure baitan soilik: aldiz, emaiezu zeure sentsazioei hots!", eta azken zigilu kreaizaile hau berdina zenez espezie bakoitzeko partaide guztientzat, lege hau bedeinkazio bihurtu zen: "Izan bedi zeure sentsazioa berdina zeure espeziekoentzat, eta beraz, denek har zaitzatela sentsazio-kidetzat!". Ez gehiago nahasi izaki ahul, sentikor hori! Nahiz bakarrik, banakatua eta unibertsoko

ekaitz gaizto guztien menpe dagoela iruditu, ez dago bakarrik: natura osoarekin dago harremanean! Soka samurrak ditu, baina naturak hotsak gorde ditu soka horietan, eta horiek zirikatu eta bizkortuz gero, iratzarri egiten dituzte egitura samurreko izaki gehiago ere, eta, katea ikustezin baten bitartez bezala, bihotz urrunak txinpartak elkarbana ditzake ikusi gabeko izaki honekin. Intziri horiek, hots horiek hizkuntza dira. Badago, beraz, sentsazioen hizkuntza, zuzeneko lege naturala.

Hasieran animaliek bezala zuen gizakiak ere hizkuntza hori, eta badaude hori erakusteko aztarnak, ez ordea berebizikoak; baina aztarnak berak ere ezin dira ukatu. Gure hizkuntza artifizialak hizkuntza naturala nahi hainbat saihesturik ere, hiriko gure bizimoduak eta gizarte aiosak pasioen uholdea eta itsasoa nahi hainbat hesitu, idortu eta desbideraturik ere; zernahi gisaz, sentsazioaren momentu bortitzenak, gutxitan eta bakan agertu arren, beti aurrea hartzen du eta bere ama-hizkuntzan mintzatzen da zuzenean hotsen bitartez. Pasioen ekaitz harrotua, bat-bateko zorian edo pozezko leherraldia, oinaze eta lantua, horiek arimaren barruan erreten sakonak egiten dituztenean, mendeku, etsipen, amorru, beldur, izu eta abarren sentsazio eutsiezina, guzti-guztiak irteten dira, zein bere eran. Geure baitan lozorroan zenbat sentsazio modu, hainbat dira hots desberdinak ere. Hala, bistan dagoenez, zenbat eta gutxiago eduki giza naturak zerikusia animalia mota batekin, orduan eta desberdinagoa da bata eta bestearen nerbio-egitura, orduan eta gutxiago konpreni dezakegu animalia horren hizkuntza naturala. Lurreko animalia garenez, hobeki konprenitzen dugu lurreko animalia uretako izakia baino, eta lurlean, berriz, taldeko animalia hobeto oihaneko izakia baino; eta taldeko animalien artean, hurbilen ditugunak denetan ongien. Baina horien artean ere, tratuak eta ohiturak zerikusi handiago edo txikiagoa du. Normala da arabiarrek zaldia hobeki konprenitzea, honekin bat eginik dagoenez, lehen aldiz zaldira igotzen denak baino; Iliada-n² bere zaldiekin mintzatzen zen Hektorrek bezain ongi ia. Basamortuko arabiarrek, bere gamelua eta txori herrarien hegada beste deus bizirik gabe inguruan, aiseago konpreni dezake bataren natura eta, ustez, bestearen garrasia, guk geure etxezuloan baino. Oihaneko semeak, ehiztariak, basahuntzaren boza konprenitzen du, eta laponiarrak bere elur-oreinarena. Baina hori guztiori ondoren dator, salbuespena da. Izatez hizkuntza natural bakoitza espezie batena da, eta, hala, gizakiak ere berea du.

Hots horiek arras sinpleak dira; eta artikulatu eta interjekzio gisa paperean letraz letra idazten direnean, orduan elkarren kontrako sentsazioek ia adierazpen bakarra dute. "Ai!" ahula, hala desegiten doan maitasuna nola etsipen saminaren azantza da. "O!" sutua, hala bat-bateko pozaren leherketa nola amorru biziarena da, hala harridura azkarra nola lantu mingotsarena. Hots horiek zertarako daude hor, interjekzio gisa paperean marrazteko soilik? Begi hits, itzali, kontsolamendu-gose honetan igeri dabilen malkoa, zer hunkigarria den aurpegi tristearen koadro osoan! Hura bere hartan hartuz gero ur tanta hotza da, baina mikroskopio azpian jarritz gero... ez dut jakin ere egin nahi zer izan daitekeen! Oinazeak okerturiko ezpainetan hain hunkigarri hiltzen den hasperen akitu hori, intziri erdi ito hori: ondoko osagai bizi guztietatik bereizi, eta haize-kolpea besterik ez da. Beste edonola gerta daiteke sentsazioaren hotsekin? Beren testuinguru bizian, natura ihardulearen koadro osoan, bestelako hainbeste agerpenekin batera datozkigunean, hunkigarriak eta beren buruaren jabe dira; baina guztitik bereiziz gero, etenez gero, bizitza ostuz gero, zifrak besterik ez. Naturaren boza letra marraztua da, borondatearen ondorio. Hizkuntz hots horiek gutxi dira, noski; ordea, natura sentikorrak, modu mekanikoan sufritzen duen heinean, sentsazio mota gutxiago dauzka, arimaren gure psikologiak pasio gisa sailkatu edo izendatzen dituenak baino. Sentimendu bakoitza zenbat eta haritan gutxiago zatiturik egon, orduan eta lokarri sendoagoa: hotsak ez dira anitz mintzatzen, baina bai indartsu. Ea lantzuak arima edo gorputzeko zauriengatik egiten duen antsia; ea garrasi hau izuz edo oinazez jaulki den;

ea "ai!" eme hau musuarekin edo malkoarekin itsatsi den maitearen bularrean; honelako diferentziak zehazteko ez da hizkuntza. Aldiz, irudira bidaltzen du: irudia bere kabuz mintzatuko da. Bere zeregina hots egitea da, ez deskribatzea! Sokrateren³ harako alegia haren arabera, elkarren ondoan daude oinazea eta zoriona: naturak lotu egin ditu sentsazioen bi muturrak, eta zer erakuts dezake, beraz, sentsazioen hizkuntzak, ezpada elkar ukitzen duten puntu horiek? Orain posible zait praktikara igarotzea.

Antzinako hizkuntza guztietan aditzen dira oraindik hots natural horien hondarrak. Nolanahi ere ez dira horiek giza hizkuntzaren hari nagusiak. Ez dira berezko sustraiak, baina bai hizkuntz sustraiei bizia ematen dien izerdia.

Har dezagun berandu asmatuiko hizkuntza metafisiko sotala, gizakiaren antzinako ama basatiaren aldakia, agian laugarren mailakoa, eta mende luzetako aldakuntzaren ondoren eta mendetan bizitzaren poderioz xehetu, zibilizatu eta gizatiartu dena: halako hizkuntzak, arrazoimen eta gizartearen emaitza, ezer ez edo ezer gutxi daki bere lehen amaren haurtzaroz. Hizkuntza zahar, basati eta jatorritik hurbil daudenek soilik daukate gehiago horretatik. Hemen ez daukat inolaz ere oraindik hizkuntz osaketa gizatiarrari buruz mintzatzerik, baizik eta soilik osagai gordinak ikuskatu. Niretzat ez dago oraindik hitzik, hotsak bakarrik baino, sentsazioa adierazteko. Baina begira hizkuntza horietan, beren interjekzioetan, beren izen eta aditzen sustraian hots horien zenbat hondar dauden jasorik! Ekialdeko hizkuntza zaharrenak deiez beterik daude, eta horientzat guk, geroago osaturiko herriok, sarritan dugun bakarra da hutsuneak edo gaizki-ulertu geza, motela. Beren elegietan agertzen dira hoska, basatien hilobi gainetan bezala, deiadar eta lantuak, hizkuntza naturalaren interjekzio oraindik biziak; beren gorespen-salmoetan pozezko garrasiak eta aleluia errepikatuak, Shawk⁴ erostarien ahotik azaltzen dituenak, eta gure artean maiz zorakeriatzat hartuak. Beren olerkien jarreran, joeran, eta beste herri zaharren kantuan hots hori aditzen da, oraindik ere basatien gerra- eta erlijio-dantzak, dolu- eta poz-kantuak bizitzen dituenak, bai Cordilleraseko magaletan, bai irokiarren elurtzetan, nahiz Brasilen nahiz Kariben. Beren aditz soil, zoli eta antzinakoen sustraiak, azken batean, naturako lehen dei haiek dira, geroago modelatuak izan zirenak. Horregatik, herri zahar eta basati guztien hizkuntzak, hots bizi barruko hauei dagokienez, ebakiezinak dira beti arrotzentzat!

Gero argituko ditut fenomeno hauetatik gehienak elkarrekin harremanean; bakar bati noa hemen heltzera. Hizkuntzaren jatorri jainkotiarren defendatzaile batek* ordena jainkotiar harrigarri irizten dio hizkuntza ezagun guztien hotsak hogeiren bat letratan mugatu ahal izateari. Baina datua faltsua da eta ondorioa are okerragoa. Hots biziko hizkuntza bakar bat ere ezin da zeharo letratan jarri, are gutxiago hogeit letratan; hala erakusten dute hizkuntza guztiek, lehenetik hasi eta azkenera arte. Gure hizkuntz organoen artikulazioak hainbeste dira, soinu bakoitza hainbeste modu desberdinetan ebaki daiteke, non konparazio batera Lambert jaunak bere Organon-aren⁶ bigarren atalean arrazoi osoz frogatu ahal izan duen zenbatez diren gutxiago letrak hotsak baino, eta zer motel adieraz daitezkeen azken horiek beste haien bitartez. Eta hori alemanieratik abiatze hutsarekin frogatzen du, non ez diren idatziz bildu dialektoen hots-aniztasun eta diferentzia: are gutxiago, beraz, hizkuntza osoa horrelako dialekto bizia besterik ez denean. Nondik datoz ortografiako berezitasun eta bitxitasun guztiak, ezpada mintzatu antzera idatzi ezinagatik? Zer hizkuntza bizik irakas ditzake bere hotsak liburuetakoa letren bitartez? Eta hildako zer hizkuntza berpiz daiteke horiekin? Hori horrela, zenbat eta biziagoa hizkuntza, zenbat eta gutxiago pentsatu hura letratan jasotzea, zenbat eta gehiago hurbiltzen den naturako hots oso, sailkatu gabeetara, orduan eta gutxiago idaz daiteke, orduan eta gutxiago idaz daiteke hogeit letren bidez, eta sarritan erabat ahoskaezina da arrotzentzat. Pater Rasles⁷, hamar urtez Iparramerikako

abenakiarren artean egona, askotan kexatzen da, arreta guztiarekin ere sarritan ez ditzakeela errepikatu hitzen erdiak baino eta barregarri geratzen dela. Zenbatez barregarriago izango zen hizkuntza hura letra frantsesez idaztea! Pater Chaumonot⁸, berrogeita hamar urte huroien artean

igaro eta beren hizkuntzako gramatikarekin ausartu ondoren, hala ere, kexatu egiten da hango zintzur-letra eta azentu ahoskaezinak direla eta: askotan bi hitzek, letra berez osaturik egon arren, guztiz esanahi desberdinak omen dauzkate. Garcilaso de la Vega⁹ kexatu egiten da espainiarrengatik, zenbat nahastu, baldartu eta okertzen dituzten hitzen hotsak Peruko hizkuntzan, eta oker horiengatik sekulako hutsak egozten omen dizkiete peruarrei. De la Condaminek¹⁰ Amazonas ibaiko nazio txiki bati buruz hala dio, beren hitzen zati bat ez dagoela idazterik, ezta akats askoren bitartez ere. Gutxienez bederatzi edo hamar silaba erabili behar omen dira, hizketan ozta-ozta hiru ahoskatzen direla eman arren. La Loubèrek¹¹, berriz, siameraz: "Europarrak ahoskaturiko hamar hitzetatik, jaiotzez siamdarrek agian ez du bakarra ere ulertuko: beren hizkuntza gure letrekin azaltzeko nahi hainbat ahalegindurik ere halaxe da". Eta zertarako jo munduko hain mutur urrunetara? Europako gure basa-aztarna txikiek, estoniarrek, laponiarrek eta abar, soinu erdi artikulatu eta idaztezinak dauzkate sarritan, huroi eta peruarren antzera. Errusiarrek eta poloniarrek, beren hizkuntzak idatziak eta idazkeraren arabera taxutuak diren arren, oraindik ere halako moduan aspiratzen dute, non beren antolaketaren benetako doinua ezin den letren bitartez isladatu. Ingelesak lan handiak ditu bere hotsak idazteko, eta ingeles idatzia konprenitzen duena gutxitan da hiztun ingelesa. Eztarritik gora gutxitan igotzen den frantsesak, eta erdi grekoa den italiarrak, ahoko goi partearekin etereotasun finez mintzatzen dena, oraindik ere doinu bizi horri eusten dio. Hotsek organoen barruan geratu behar dute, bertan osatu ondoren: letra idatzi gisa, nahiz idazteko ohiturak eroso eta egoki egin dituen, itzalak besterik ez dira!

Datua okerra da, beraz, eta ondorioa are okerragoa: ez da heltzen jatorri jainkotiarrrera baizik alderantziz, animaliazkora. Har ezazue lehen hizkuntza jainkotiar deiturikoa, hebraiera, nondik eta heredatu dituen letrak munduaren zati gehienak: hasieran doinu txit bizia zuela, idaztezina zela, oso inperfektuki soilik idatz zitekeela, hori dena argi erakusten du bere gramatikaren egiturak, antzeko letren hainbeste nahasketak, eta batik bat bokal falta erabatekoak. Nondik dator bitxitasun hori, alegia bere letrak kontsonante soilik izatea eta hitzen osagaia, azpiko oinarria, alegia bokalak, hasieratik ez idaztea? Idazkera hau hain doa arrazoimen ororen aurka, hots, funtsik gabea idaztea eta funtsezkoa baztertzea, non ulertezina izango litzatekeen gramatikalarientzat, baldin ulertzen ohiturik egon balira gramatikalaria. Gure artean bokalak dira lehenak eta bizienak eta hizkuntzaren ate-erroak; haiek, berriz, idazten ez. Zergatik? Ezin zirelako idatzi. Haien ahoskera hain bizia eta antolaketa sotilekoa zenez, haien aspirazioa hain izpirituala eta etereoa zenez, lurrindu egiten zen eta ez zegoen letren bidez mugatzerik. Grekoak izan ziren lehenak aspirazio bizi hauek ohiko bokalen bidez iruten, izpiritu¹² eta abarren laguntzarekin bada ere. Izan ere, ekialdean hizkuntza nolabait ere izpiritu huts, aspirazio etengabe eta ahoko izpiritu zen, bertako olerki koloretsuetan hain maiz aipatu bezala. Jainkoaren arnasa zen, belarriari fu egiten zion haizea, eta hura margotzen zuten letra hilak gorpu bat ziren, irakurketarekin bizi-arimaz berpiztu beharrekoa! Horrek zer eragin bortitza izan duen haien hizkuntz ulerpenari begira, ez da hemen esaten hasteko lekua; baina argi dago haize honek hizkuntzaren jatorria azaltzen duela. Zer dago idaztezinagorik, naturako hots artikulatu gabeak baino? Eta hizkuntza bere jatorritik hurbilago egon ahala artikulatu gabeago baldin bada, ondorio nabaria da ez duela izaki goren batek sortu hogeita lau letrekin eta ez dituela letra horiek hizkuntzarekin batera sortu, baizik eta hauek saio askoz berantiarago eta inperfektuagoa izan direla, ahalik eta oroimenari heldulekuak emateko; eta jakina da ere horiek ez direla jaio Jainkoaren gramatikaren letretatik, baizik organo libreen hots basatietatik*. Bestela bitxia litzateke letrak, Jainkoak hauetatik eta hauentzat hizkuntza asmatu ondoren, hauen laguntzaz lehen gizakiei hizkuntza eraman ondoren, munduko

inperfektuenak izatea, hizkuntzaren izpirituaz deus esaten ez dutenak eta beren egitura osoan agertzen dutenak ez dutela hartaz deus esan nahi.

Bere balioa ikusirik, letrei buruzko hipotesi honek aski zuen zehar-aipamen bakar bat: baina, bere orokortasuna eta ezkututasun ugariengatik, agerian jarri beharra neukan bere funtsik eza, eta, ustez behintzat inork argitu ez duena argitu. Itzul gaitezen gurera:

Gure hots naturalak pasioak adierazteko direnez, normala da haiek zirrara guztien osagai bilakatzea ere! Nork ez du, oinazez puskatzen eta bihurritzen dagoenaren aurrean, antsika herioan dagoenaren aurrean, edo baita intzirika ari den eta organismo osoa ezinean daukan kabalearen aurrean bihotza erdiratzeraino "Ai!" jaulkiko? Nor da hain barbaro bihozgogorra? Animaliek ere bata bestearekin zenbat eta harmonia handiagoz elkarri josirik eduki harpa-musika sentikorra, orduan eta sentsazio gehiago elkarbanatzen dute: beren nerbioek tinkadura berdina dute, beren arimek ere doinu berdina, mekanikoki sufritzen dute zinez bata bestearatik. Eta zer altzairuzko zuntzak, zer indarra behar den sentiberatasunaren zirrikitu guztiak itxiz gizakia gor eta soraio bihurtzeko! Dideroten** iritziz, jaiotzezitsuak hunkigaitzago izan behar luke animalia sufrikorraren lantuen aurrean, ikusten duenak baino; nik, ordea, alderantziz uste dut, zenbait kasutan. Noski, halakok estalirik daukala kreatura oinazetu, bihurrikor horren ikuskizun hunkigarria, baina adibide guztiek baieztatzen dutenez, estal-

tze horri esker entzumenak gutxiago galtzen du adia, erne eta zoliago bihurtzen da. Halakok, beraz, arretaz entzuten du bere gau eternalaren isiltasun eta ilunpetik, eta lantu bakoitza hainbat barrurago eta zorrotzago sartzen zaio bihotzean, geziaren antzera! Balia dadila gainera astiro hedatzen den ukimenaz, uki ditzala dardarizo haiek, osoki senti dezala makina oinazetuaren hausketa: izuak eta minak zeharkatuko diote gorputza; bere baitako nerbio-sistemak ere hausketa eta suntsipena sentituko ditu; heriotzaren boza aditzen da. Hori da hizkuntza natural honen lokarria!

Beren heziketa eta sasi-heziketa gorabehera, basatien lantu-hots zakarrek gogor hunkitu dituzte europarrak bazter guztietan. Lery-k¹⁴ Brasiletik kontatzen duenez, malkoak isurtzeraino samurtu ziren beretarrak, amerikar haien maitasun- eta jatortasun-garrasi bihotzeko itzelekin. Charlevoix-k¹⁵ eta beste batzuek ez dute jakintza aski, iparramerikarren gerra- eta magia-kantek sortzen duten zirrara latza adierazteko. Geroago aukera baldin badugu aipatzeko zenbat bizitu dituzten hots natural hauek poesia eta musika zaharra, orduan modu filosofikoagoan azaldu ahal izango dugu ere, konparazio batera, antzinako kantu eta dantza grekoak, antzinako antzerki grekoak, eta oro har musikak, dantzak eta poesiak oraindik basatiengan duen eragina. Eta geure artean ere, non sarritan arrazoimenak sentsazioaren lekua eta gizarteko hizkuntza artifizialak hots naturalen lekua hartzen duen, ez al dira sarritan hizketako etorriaren trumoi ozenak, poesiaren ukaldi bortitzak eta ekintzaren momentu magiko guztiak hizkuntza natural honen imitazioa? Zer da jende-batzarrean mirakulu den hori, bihotzak erdiratu eta arimak aztoratzen dituen hori? Hizketa intelektuala eta metafisika? Konparazioak eta figurak? Trebezia eta konbentzimendu hutsa? Estasia itsu-itsua ez bada behintzat, eragin handia edukiko dute horiek, baina eragin osoa bai? Eta estasi itsuaren instant goren hori nondik etorria da? Erabat bestelako indarretik! Hots hauek, keinu hauek, melodiaren gorabehera soil hauek, ustekabeko esamolde hau, boz apaldu hau... nik dakita? Haurren artean eta sena dutenengan, emakumeengan, jende sentiberarengan, eri, bakarti, kezkatuengan anitzez eragin handiagoa dute hauek, egiak berak bere boz ezti, goxoa zerutik zabalduz gero baino. Erromantze beldurgarri honen edo bestearen hitzak, doinua, esamoldea haurtzaroan sartu zitzaizkigun, lehen aldi hartan auskalo zenbat hotzikara, alegantzia, beldur, izu eta pozezko ideiekin batera entzun genituelarik. Aditzen da hitza, eta izpiritu-andana bezala zutitzen dira denak bat-batean, beren maiestate goibelean, arimaren hilobitik: lausotu egiten dute hitzaren esanahi argi eta garbia, haiek gabe soilik konpreni zitekeena. Hitza igaro, eta sentsazioaren hotsa aditzen da. Sentimendu lausoez gainezkatzen gaituzte: buruarina izutu eta dardarka hasten da, ez gogoetekin, baizik haurtzaroko silaba, hotsekin; hizlariaren, olerkariaren indar magikoa izan da gu berriro haur bilakatu gaituena. Oldozpen edo hausnarketarik ez oinarrian, soilik lege natural hau: Sentsazioaren hotsak eragin bera eduki behar du gizaki guztiengan!

Sentsazioaren zuzeneko hotsei hizkuntza deitu nahi badiegu, beren jatorria guztiz naturala iruditzen zait. Gizagainezkoa ez izateaz gain, animaliazkoa da argiro: makina sentikor baten lege naturala.

Baina ezin dut nire harridura gordean eduki, zeren zenbait filosofok, alegia kontzeptu argiak bilatzen dituen jendeak, uste izaten baitu sentsazio-oihu horietatik giza hizkuntzaren jatorria azal daitekeela. Izan ere, hizkuntza ez al da argi eta garbi guztiz bestelako zerbait? Animalia guztiek, baita arrain mutuak ere, hots ematen diete beren sentsazioei: horratik, ez du animalia bakar batek ere, ezta denetan perfektuenak ere, giza hizkuntzaren zantzurik txikiena ere. Oihu horiek nahi hainbat osatu eta findu eta egitura bitez: tartean ez badago inongo adimenik hots hori nahita erabiltzeko, ez dut ulertzen nola arestiko lege naturaletik hizkuntza gizatiar, borondatezkoa sortzen den. Haurrek

sentsazio-hotsak jaulkitzen dituzte, animaliek bezala, baina gizakiengandik ikasten duten hizkuntza ez da guztiz bestelako hizkuntza?

Horietakoa da Condillac abadea*. Edo bere liburuaren lehen orria baino lehenagotik hizkuntza aldeztetik sortutzat hartzen du, edo bestela orri bakoitzean aurkitzen ditut hainbat gauza, osatzen doan hizkuntza baten antolamenduarekin inolaz ere bat ez datozenak. Bere hipotesiaren oinarriak "bi haur basamortuan, artean inongo zeinu erabiltzen ez dakitenak" hartzen ditu. Zergatik hartzen ditu horiek horrela, "bi haur", beraz hil egingo edo animalia bihurtuko direnak, "basamortuan", non handitu egiten den bizirik iraun eta ezer asmatzeko zailtasuna, "edozein zeinu natural erabili aurretik eta horien ezagupenik eduki aurretik", nahiz eta ez dagoen haurrik horiek ez dauzkanik jaio eta handik aste gutxira; zergatik, diot nik, giza ezagupenen prozesu naturala bilatu nahian hartu behar dira oinarritzat hain datu ez natural eta kontraesankorrak, autoreak berak jakingo du, baina bide horretatik ez dago eraikitzerik hizkuntz jatorriaren azalpenik, eta horixe frogatzen ausartuko naiz. Bere bi haurrak inongo zeinu ezagutzen ez dutelarik elkartzen dira, eta, horra!, lehen momentutik (§ 2) tratuan. Eta tratu soil horren bitartez ikasten dute lehen aldiz "sentsazio-oihuak eta pentsamenduak lotzen, haiek baitira hauen zeinu naturalak". Sentsazioaren zeinu naturalak ikastea tratuaren bitartez? Ikastea nolako pentsamenduak lotu? Eta animalia inozoenak ere dakiena jakin ez eta hala ere, elkartu bezain laster tratua edukitzea, ikasi ahal izatea nolako pentsamenduak estekatu zeinuekin? Ez dut deus ulertzen. "Antzeko zirkunstantziak errepikatzearen poderioz (§ 3), pentsamenduak lotzen ohitzen dira sentsazio-hotsekin eta gorputzeko hainbat zeinuekin. Horrela oroimenak badu zerekin iharduna. Beren irudikamenaren jabe egin eta iristen dira, lehenago sen hutsez

egiten zutena hausnartuz egitera" (nolanahi ere, arestian esan bezala, tratuan hasi aurretik ez zekiten zer egin). Ez dut deus ulertzen. "Zeinu hauen erabilpenak zabaldu egiten ditu arimaren eraginak (§ 4), eta hauek zeinuak hobetzen dituzte. Sentsazio-oihua da, beraz, (§ 5) arimako ahalmenak garatu dituen, sentsazio-oihua da ohitura eman diena ideiak zeinu arbitrarioekin lotzeko (§ 6), sentsazio-oihua da beraiek eredutzat hartu ahal izan dutena hizkuntza berria egiteko, hots berriak ebakitzeko, gauzak izenen bidez seinalatzen ohitzeko". Errepikapen hauek guztiak errepikatu, eta hala ere, ez dut deus ulertzen. Azkenik, hizkuntzaren jatorri umetsu honetatik hizkuntza zaharren prosodia, deklamazioa, musika, dantza eta poesia eraiki ostean, eta baita noizean behin ohar onak aurkeztu ere, nahiz eta gure xedearekin zerikusirik gabeak izan, egileak honela heltzen dio berriro hariari: "Ahalik eta ulertzeko (§ 80) gizakiak nola jarri ziren ados erabili nahi zituzten lehen hitzen esanahiaz, aski da ohartzea beharturik zeudela, mintzatzen ziren zirkunstantzietan, hitz haiek ideia berdinekin lotzera etab.". Hau da, hitzak sortu ziren hitzak zeudelako, egon aurretik. Nire aburuz ez du merezi gure komentatzailearen hariari gehiagoan jarraitzea, ez baitu inongo bururik.

Condillacek, jakina denez, hizkuntzaren jatorriari buruzko bere azalpen hutsalarekin aukera eman dio gizaldi honetan Rousseauri*, arazoari bultzada berria emateko, alegia zalantzan jartzeko. Zinez, Condillacen azalpenarentzat zalantzak aurkitzeko ez zen Rousseuren beharrik. Baina hizkuntz asmaketa gizakiari ez egozteko bai behar dela Rousseuren bultzada, jauzia, edo dena delakoa. Condillacek arazoa txarki azaldu zuela baina, ba ote dago nolahala azaltzerik? Sentsazio-hotsetatik inoiz giza hizkuntzarik ez dela sortu eta, ondoriozta al daiteke ez duela beste inondik ere sortzerik izan?

Okerreko ondorio gorde horrexek nahasten duela Rousseau erakusten du argiro bere planteamenduak* : "Nolanahi ere hizkuntza gizakiak sortua izan behar bazuen, nola izan behar zuen sortua?". Bere aitzindaria bezala naturaren garrasitik abiatzen da, nondik eta giza hizkuntza bilakatzen den. Ez dut konprenitzen nola bilaka zitekeen hortik, eta harritu egiten naiz Rousseauen zolitasunak une batez ere horri eustea.

Ez dut eskura Maupertuisen izkribu laburra¹⁷, baina zilegi bazait fidatzea beste norbaiten** laburpenaz, dohain ez txikiena fideltasuna eta zehaztasuna baititu, hark ere ez du hizkuntzaren jatorria aski bereizi animalia hotsetatik, eta beraz, aurrekoen ildo beretik doa.

Azkenik Diodorok¹⁸ eta Vitruviok¹⁹, hizkuntzaren jatorri gizatiarraren erakusleak ez baizik sinesleak, beste inork baino okerrago nahaspilatu dute arazoa, zeren hasieran gizakia epe batez basoan animalia gisa garrasika eta herrari egiten baitute, eta ondoren, Jainkoak jakingo du nondik eta zertarako, hizkuntz asmatzaile.

Hizkuntzaren jatorri gizatiarraren defendatzaile gehienak hain ikuspuntu dudazkotik lehiatzen zirenez, eta besteei, adibidez Süssmilchi, hainbeste arrazoirekin ekiten zieten, Akademiak eztabaidaz kanpo utzi nahi izan du arazoa, oraindik erantzun osorik gabe eta iritzi desberdinekin bertako partaide ohi batzuen artean.

Eta gai garrantzitsu honek hainbeste aukera eskaintzen dituenez psikologian eta gizakiaren ordena naturalean, hizkuntz filosofian eta hizkuntzaren bidez aurkituriko jakintza guztietan, nork ez du bada horrekin saiatu nahiko?

Eta gizakiak direnez guk ezagutzen ditugun izaki hiltun bakarrak, eta animalia guztietatik bereizten direnez hizkuntza

horrixer esker: nondik heldu ikerketari seguruago, ezpada animalia eta gizaki arteko bereizketari buruzko esperientzietatik? Nahitaezkoa zen Condillac eta Rousseau erratzea hizkuntzaren jatorriari buruz, hain modu ageri eta desberdinean erratu zirenez gero bereizketa horretan: lehenak*, animaliak gizaki, eta bigarrenak**, gizakiak animalia egin zituen. Urrunetik hasi behar dut, beraz.

Gizakia animaliengandik urrun dagoela senaren indarra eta segurtasunari dagokionez, eta ez duela hainbeste animalia moten artean sortzeko trebezia eta joera izendatzen dugunetik ipitzik ere, gauza segurua da. Baina hala nola joera hori azaltzerakoan huts egin duten orain arte gehienek, eta baita azken aldera Alemaniako filosofo*** iaio batek ere, era berean, ez da oraindik argitzerik egon giza naturak joera hori ez edukitzearen benetako arrazoia. Ene aburuz ez da aintzat hartu ikuspuntu funtsezkoa, nondik eta, erabateko azalpenak ez badira ere, gutxienez oharrak egin daitezkeen animalien naturari buruz, eta hauek, ea beste leku batean gai naizen, argitan jar dezakete giza arima. Ikuspuntu hori animalien esfera da.

Animalia orok bere esparrua du, eta jaiotzaz gero horkoa da, berehala sartzen da bertan, bertan bizi eta hiltzeko. Baina bitxia da, ezen zenbat eta zorrotzagoa izan animalia sena, zenbat eta indartsuago eta seguruagoa bere joera eta zenbat eta miresgarriagoak bere ihardunak, orduan eta txikiagoa dela bere esparrua, bereziagoa bere iharduna. Erlazio hori ikertua naiz, eta denean aurkitu dut proportzio inbertso miresgarri neurtua, bateko haien mugimendu, elementu, elikadura, mantenu, parekatze, hazkuntza eta taldehedadura mugatua,

eta besteko haien joera eta trebeziak. Egeriak ez zion Numari²¹ irakatsi erleak erlauntza eraikitzen duen adinako jakinduriaraz; baina gelaska horietatik kanpo eta gelaska horietan finkatu zaion ihardunaz kanpo ez da deus. Armia armak Minervaren arteaz iruten du, baina haren arte guztia gune murriz horri dago josia; hori da haren mundua! Zer miresgarria intsektua eta zer murrizta bere ekinaren esparrua!

Aitzitik, zenbat eta ugariagoak animalien zereginak eta buruzpideak, zenbat eta sakabanatuagoa bere arreta hainbat objektutara, zenbat eta herrariagoa bere bizimodua, hots, zenbat eta zabalagoa eta aberatsagoa bere esfera, orduan eta gehiago zatitzen eta ahultzen da bere sentikortasuna. Ezin naiz orain hasi izakien kateako erlazio zabal hau adibideekin erakusten; bat bederak frogatzen dut edo beste baterako luzatzen, eta ondorio hau gaineratzen dut:

Probabilitate eta analogia guztien arabera posible da, beraz, joera eta trebezia guztiak azaltzea animalien irudikapen indarren bitartez, determinazioitsuak aintzat hartu beharrik gabe (Reimarusek berak hartu dituen bezala, filosofia guztiak hondatzen dituzten horiek). Zentzumen izugarri zorrotz batzuk esparru txikian, zera berdinen inguruan itxirik badaude eta gainerako mundua berentzat deus ez bada: nola barruratzen ote dira! Irudikapen indarrak esparru txikian itxirik badaude eta sentikortasun analogoa badute, zer eragin ote dute! Eta, azkenik, zentzumenak eta irudikapenak puntu bakarrentzat bideraturik badaude, zer sortuko da hortik sena ez bada? Horietatik abiatuz argitzen dira, beraz, animalien sentikortasuna, trebeziak eta joerak, zein bere era eta mailan.

Eta ontzat eman dezaket, beraz, zera ere: Animalien sentikortasunak, trebeziak eta joerak erlazio inbertsoan indartu eta trinkotzen dira, beren ihardun-esparruaren hedadura eta ugartitasunarekiko. Ordea...

Gizakiaren esfera ez da hain uniforme eta murrizta, lan bakarra egokitzeraino: zeregin eta erabakien mundu osoa du inguruan.

Haren zentzumenak eta organizazioa ez daude puntu bakar bati begira zorrotzurik: zentzumenak ditu ororentzat, eta, noski, zentzumen ahulago eta kamutsagoak, kasu bakoitzean.

Haren arimako ahalmenak mundu osoan barrena daude hedaturik; haren irudikapenak ez daude zera bakar baterantz zuzendurik. Beraz, senik ez, trebeziarik ez, eta, guri hemen axola zaiguna, animali hizkuntzarik ez.

Makina sentikorraren hots egiteko gaitasunaz gain, arestian aipatua, zer da, ordea, espezie batzuegan animali hizkuntza delakoa, ezpada nik lerrokatu ditudan oharren emaitza? Animali mota baten akordio ilun eta sentikorra, bere esparruko ihardunetarako erabakiei buruz.

Zenbat eta txikiagoa animalien esfera, beraz, orduan eta hizkuntza behar gutxiago. Zenbat eta zorrotzagoak beren zentzumenak, zenbat eta gehiago beren irudikapenak puntu bakar baterantz zuzendurik egon; zenbat eta bateratuagoak beren joerak, orduan eta bilduagoa da hots, zeinu eta jaulkipenei buruzko beren akordioa. Mekanismo bizia da, sen nagusia, mintzatu eta aditzen duena. Zer mintzatu behar gutxi daukan entzuna izateko!

Esparru oso txikiko animaliek entzumenik ere ez dute; beren munduan ukimena da oro, edo usaimen eta ikusmen: irudi uniforme, itxura uniforme, ihardun uniforme; hizkuntza gutxi edo deus ez, beraz.

Baina zenbat eta zabalago animalien esparrua, zenbat eta aberatsago beren zentzumenak... ezin hasiko naiz errepikatzen. Gizakiarekin erabat aldatzen da eszena. Zertarako balio ote dio hizkuntzak bere lan-esparruan, egoera mugatuan bada ere, denetan animalia hitzunen eta ugarien hots egiten duenari? Eta, bere gutizia sakabanatuetan, bere arreta barreiatuan, bere zentzumen motel zalantzatietan, zertarako

balioko ote lioke animalia hizkuntza ilunak? Hori gizakiarentzat ez da ez aberats eta ez argia, gauzei begira aski ez eta ezta bere organoei begira ere. Ez da inolaz ere bere hizkuntza. Zer da orduan, ez badugu hitzekin jolastu nahi, izaki baten berezko hizkuntza, ezpada egoki dena bere lanen eta premien esferarentzat, bere zentzumenen organizazio, bere irudikapenen norabide eta bere gutizien indarrarentzat? Eta zer animalia hizkuntza da gizakiarena?

Ez dago, ordea, galdera horren beharrik. Zer hizkuntza du gizakiak berez (arestiko mekanikoaz gain), animaliak bere esferan eta bere esferaren arabera bezain senezko? Laburra da erantzuna: ezin ez! Eta erantzun labur horixe da erabakiorra.

Animalia bakoitzaren hizkuntza da, ikusi bezala, hain irudikapen sendo eta sentikorrak kanporatzea, ezen horiek joera bihurtzen diren; horrela hizkuntza, eta baita zentzumenak, irudikapenak eta joera ere, sortzekoa da eta animaliaarentzat arras naturala. Erleak burrunba eta miazkatu egiten du; txoriak kantu eta habia egiten du. Baina gizakia nola mintzatzen da naturalki? Inolaz ere ez, gutxi edo deus ez baitu egiten sen hutsez, animalia gisa. Alde batera uzten dut haur jaio berriaren makina sentikorraren garrasia; gainerakoan mutu da. Ez du jaulkitzen ez irudikapen ez joerarik hotsen bitartez, animalia orok bere kabuz egiten duen bezala. Animalien artean natura osoko umezurtzena da, beraz. Biluzi eta soil, ahul eta behartsu, herabe eta armarik gabe; eta, bere oinazeen laburbilketa dena, gidaririk ez bizitzan. Hain sentikortasun sakabanatu eta ahuldua, hain gaitasun zehazgabe eta lokartuak, hain sen zatitu eta akituekin jaioa, hamaika premien menpe, esparru zabalean kokaturik, eta hala ere, hain umezurtz eta abandonaturik dago, non ez den hizkuntza bat beraren jabe ere, bere gabeziak jaulkitzeko. Ez! Horrelako kontraesana ez da naturaren gobernua. Egon behar dute lotan beste ahalmen gorderen batzuk, senaren ordeztu! Jaiotzez mutu, baina...

II

Ez dut jauzirik egingo. Ez diot gizakiari bat-batean ahalmen berririk emango, edo hizkuntza sortzeko gaitasunik qualitas occulta arbitrario baten moduan. Arestian aipatu hutsune eta gabeziak jarraitzen dut ikertzen.

Hutsuneak eta gabeziak, ordea, ezin dira izan gizakiaren ezaugarri, bestela berarentzat natura amaorderik zekenena izan zen, eta aldiz intsektu bakoitzarentzat amarik maitagarriena. Zer-behar-hura eman zion intsektu bakoitzari: irudikatzeko zentzumenak eta sen bihurturiko irudikapenak, hizketarako organoak ere behar hainbat, eta hizkuntza hori konprenitzeko organoak. Gizakiagan erlazio desorekatua dago denean: zentzumenak eta premiak, ahalmenak eta zain daukan ekintza-esparrua, organoak eta hizkuntza. Tarteko katemailaren bat faltan eduki behar dugu, beraz, erlazio horretan hainbeste atal zatitu egotea esplikatuko duena.

Hori aurki bageneza, eta naturako analogiaz, ordain hori litzateke espeziearen ezaugarri eta bereizgarria, eta adimena eta zuzentasuna behartuko lituzkeena aurkikuntza hori behar bezala kontuan har dadin, alegia naturako dohain gisa, berarentzat hain funtsezkoa nola animalientzat sena.

Aurki bageneza ezaugarri horretan gabezia haien jatorria, eta gabezia haien erdian, senezko joeretakoko dugun hutsune handi haren erdian, ordeztoko dugun ernamuina, orduan harmonia horixe litzateke froga genetikoak, alegia hor datzala gizakiaren benetako norabidea eta gizakia ez dela animaliak baino gehiago edo gutxiago, baizik desberdina.

Eta aurki bageneza ere gizakiaren ezaugarri aurkitu berri horretan ezinbesteko funts genetikoak izaki honek hizkuntza sortzeko, hala nola aurkitu genuen animalien senean funts sendoa espezie bakoitzaren hizkuntzarentzat, orduan erdiz erdi asmatuko genuke. Kasu horretan, hizkuntza edukitzea gizaki izatea bezain berezko luke gizakiak. Ikusten

denez, ez dut aurrera egin inongo ahalmen arbitrario edo sozialetik abiatuz, baizik animalia ekonomia orokorretik.

Eta ondorioz, baldin gizakiaren zentzumenak, lurreko txoko batean, esparru batean ekin eta gozatuz, esparru horretan bizi den animaliaaren zentzumena bezain zorrotzak ez badira, horrexegatik lortzen du askatasunaren abantaila. Puntu bakarrerako ez direnez, munduko zentzumen orokorrak dira.

Baldin gizakiak irudikapen-ahalmenak baditu erlauntzako gelaskak eta amarauna egitera mugatzen ez direnak, eta beraz, esparru bakar bateko animalien trebeziara iristen ez direnak, horrexekin ikuspegi zabalagoa lortzen dute ahalmen horiek. Ezertan ez da beste inor baino hobea, baina lekua libre du hainbat gauzatan aritzeko, horrela bere burua etengabe hobetuz. Pentsamendu bakoitza ez da naturaren zuzeneko lana, baina horrelaxe gizakiaren beraren lana bihur daiteke.

Hala, baldin deuseztu beharra badu senak, hain zuzen ere, zentzumenen organizazioaren eta irudikapen alorraren ondorio dena eta ez determinazio itsua, gizakiak hortik hainbat argi lortzen du. Ez zaionez ezeri itsuan lotzen edo itsu geratzen, bere buruaren jabe da, bere isladaren esfera bila dezake, bere buruari so egin. Ez da jada naturaren eskuetan dagoen makina akatsik gabea, bere burua du bere ihardunen xede eta helmuga.

Giza ahalmenen disposizio honi nahi bezala dei bekio: adimena, arrazoimena, hausnarketa... Ez bazaie horrela deitzen ahalmen solteei edo animalia ahalmenen maila gainditzen dutenei, berdin zait. Giza ahalmen ororen antolaketa osoa da; bere ahalmen sentikor, ezagutzailearen, bere izaera ezagutzaile eta borondatezkoaren gobernu osoa da; edo areago, pentsatzearen indar positibo bakarra da, eta horri, gorputzaren organizazio jakin batekin loturik, gizakiagan arrazoimena eta animaliaigan trebezia deritzo, lehenean, askatasuna, eta bigarreanean, sena. Bien arteko aldea ez datza ahalmenen maila edo emendioan, baizik ahalmenen norabide eta bilakaera arras desberdinean. Leibniz-zale edo Locke-zale izan, Search edo Knowall*, idealista edo materialista, onartu beharra dago, terminoetan ados etorritik eta arestikoaren arabera, horretan eta ez beste ezertan datzala gizakiaren izaera berezia.

Horren aurka objektioak jarri dituzten guztiak irudikapen oker eta kontzeptu traketsen ingainatu dira. Gizakiaren arrazoimena arima barruko ahalmen berritzaile hartu izan da, zeharo apartekoa, gizakiak opari gisa duena animaliek ez bezala, eta bere aldetik hauteman beharrekoa, zurubiko laugarren mailaren gisa beheko hiruren ostean. Eta hori, noski, absurdu filosofikoa da, filosofo handiek zernahi esanik ere. Gure arimako eta animalien arimako ahalmen guztiak abstrakzio eta emaitza metafisikoak besterik ez dira! Aparte jarritik daude, zeren gure izpiritu ahulak ezin baititu denak batera hauteman; atalez atal azaltzen dira, ez naturan atalka dihardutelako, baizik ikasleak agian horrela landuko dituelako ongien. Bere zeregin batzuei guk izen nagusi batzuk emanez, hau da, jeinua, zolitasuna, fantasia, arrazoimena, ez dugu esaten, izpirituaren ekintza bakar bat aski bailitzan, non diharduen jeinuak edo arrazoimenak, baizik eta guk ekintza horretan sumatzen dugula batik bat jeinu edo arrazoimen izeneko abstrakzio horien berri, adibidez ideiak konparatu edo argitzerakoan. Baina arima bereizi gabeak bere osotasunean dihardu beti. Gizakia inoiz gai baltz ekintza bakar bat egiteko erabat animalien gisa pentsatuz, ez litzateke gehiago gizaki, ez luke gehiago giza ekintzak egiterik edukiko. Momentu bakar batez arrazoimenik gabe balego, ez nuke ulertuko nola berak inoiz bere bizitzan arrazoimenez pentsa lezakeen; bestela, bere arima osoa, bere izaeraren gobernu osoa legoke mudaturik.

Kontzeptu zuzenagoen ildotik, gizakiaren arrazoimena, bere espeziearen izaera, beste zerbait da, hain zuzen ere, bere ahalmen pentsatzailearen antolaketa osoa, bere zentzumen eta joerekin erlazionaturik. Eta aurreko analogiak oro eskura ekarriz, argi dago zera ere:

- gizakiak animalien joerak balitu, ezingo luke eduki guk arrazoimen deritzoguna, zeren joera hauek bere ahalmenak hain ilun arrastatuko lituzkete puntu baterantz, non ez litzaiokeen hausnarketa esparru librerik geratuko. Nahitaez...

- gizakiak animalien zentzumenak balitu ez luke arrazoimenik, zeren zentzumen horien asaldura gogorak, horien bidez txertaturiko irudikapen indartsuek adimen argia itoko bailukete. Baina naturako erlazio-lege horien arabera alderantziz ere izan behar luke, alegia...

- animalia baten zentzumena eta itxitasuna desegingo balitz puntu batean, beste izakia bihurtuko litzateke, daukan ahalmen positiboa antolaketa xeheagoz, era argiagoz, ingurune zabalagoan kanporatuko litzateke, izaki aparte eta libre, bere kabuz ezagutu, nahi izan eta ihardun ezezik, jakinaren gainean ezagutu, nahi izan eta ihardungo lukeena. Izaki hori gizakia da, eta bere izaeraren disposizio horri, ahalik eta arrazoimenarekin ez nahasteko, bereizmena deituko diogu. Erlazio-lege horien ondorioz, beraz, zentzumena eta sena, fantasia eta arrazoimena hitzak ahalmen bakar baten antolaketak dira, non kontraposizioek elkar deusezten duten, eta gainera...

- gizakia ez bada animalia senadun, bere arimako ahalmen positibo eta libreari esker izaki bereizmendun beharko luke. Ondorio hauen katea aurrera eramanez, datozkeen objektzioen aurrean bidea asko laburtzen duen abantaila lortzen dut.

Izan ere, arrazoimena ez denez inongo ahalmen zatitu, bakarrik diharduena, baizik eta espezieak berezko dituen ahalmen ororen norabidea, orduan gizakiak, gizaki denez, hasiera-hasieratik eduki behar du. Umearen lehen pentsamenduetan agertu behar du gogoeta honek, intsektuari intsektu dela agertzen zaion bezala. Idazle bat baino gehiago dago hori ulertzerik izan ez duena, eta horregatik, gai honek aitzakiarik gordin, hinguigarrienak jaso ditu. Gaizki interpretatu dena ezin ulertu. Izan ere, arrazoimenez pentsatzeak arrazoimen landuz pentsatzea esan nahi al du? Haurrak gogoetak egiteak zer esan nahi du, sofistak bere katedran edo estatulariak bere kabinetean bezala arrazoitzen duela? Eskerrak eta beharrik, oraindik deus ez daki zorrozkeria pila nekagarri horretaz! Baina ez al da ikusten aitzakia honek arimako ahalmenen erabilpen gehiago edo gutxiago landua soilik ukatzen duela, baina ez arimako ahalmenaren alderdi positiboa? Eta zer zorok usteko du gizakiak bizitzaren lehen unean anitz urteko ihardunaren ostean bezala pentsatzen duela, non eta ez duen ukatzen, halaber, arimako ahalmen guztien garapena, eta horrela bere burua adingabetzat aitortzen? Garapen horrek erabilpen arinagoa, bortitzagoa, ugariagoa esan nahi duenez, ez al du jada existitu behar erabiliko denak, ez al du jada ernamuin izan behar haziko denak? Eta ez al dago ernamuinean zuhaitz osoa? Haurrak grifoaren erperik eta lehoiaren galparrik ez duen bezala, ez dauka ere grifoak edo lehoiak bezala pentsatzerik. Baina gizaki gisa pentsatzen badu, orduan bereizmena, hau da, bere ahalmen guztiak norabide horretan lerrokatzea da bere patua lehen une horietan, eta hala izango da azkenetan ere. Arrazoimena hain zinez azaltzen da bere sentikortasunaren azpitik, non arima horren sortzaile izandako Orojakileak bizitzako ekintza guztien ehuna ikusia zuen lehen maila horretan, hala nola matematikoak, azpimultzoa emanik, progresioaren atal bakar batetik proportzio guztia aurkitzen duen.

"Baina orduan arrazoimen hori aspaldi hartan gehiago al zen arrazoitzeko gaitasuna (réflexion en puissance), benetako ahalmena baino?". Salbuespen horrek ez du ezer esan nahi. Gaitasun soil, huts bat, aurrean oztoporik ez eduki arren ahalmen ez baizik gaitasun besterik ez dena, hots antzua da forma plastikoen antzera, formatzen lagundu

bai, baina eurak forma ez direnak. Gaitasuna ez da deus, ez badu batere alderdi positiborik joera baterantz, eta hitza bera abstrakzio akademiko hutsa da. Réflexion en puissance sasi-kontzeptu hau hain liluragarri egin duen filosofo frantses* berritzaileak, ikusiko dugunez, haize-burbuila liluragarria besterik ez du egin, bolada batean bere aurrean bultzaka eramanaz, baina ustekabeen bidean lehertzen zaio. Eta gaitasun horretan deus ez badago, nola sartuko da inoiz arimara? Ez badago lehen maila horretan arrazoimenezko deus positiborik ariman, nola piztuko da hurrengo milioika egoeretan? Hitz-engainua da esatea erabiltzearen poderioz gaitasun bat ahalmen bihurtu dela, posible den zerbait egiazko: ez badago lehendik hor indarrean, ez dago erabili eta aplikatzerik. Gainera zer nolako bereizketa da arrazoitzeko gaitasuna eta arrazoitzeko ahalmenaren artekoa? Bata bestea bezain konprenigaitza da. Ezar dezagun gizakia berez den bezala, bere sentikortasun- eta organizazio-graduarekin unibertsoan: alde guztietatik, zentzumen guztien bitartez uholdetzen du unibertsoak inpresioen bidez; zentzumen gizatiarren bitartez? Modu gizatiarrean? Beraz, izaki pentsalari honek, animalien aldean, uholde hori gutxiago jasaten al du? Lekua du bere ahalmena libreago kanporatzeko, eta erlazio honen izena arrazoimena da: non da hor gaitasun hutsa? Eta arrazoitzeko ahalmen isolatua? Arimako ahalmen bakar positiboa da antolaketa horretan diharduena: sentikorrago eta arrazoimen gutxiago; arrazoimen gehiago eta bizitasun gutxiago; argiago eta iluntasun gutxiago... bistan da hori dena! Baina gizakiaren egoera sentikorra ere gizatiarra da, eta beraz, bereizmenak eragina du beragan, gradu apalean bada ere; eta animalia

egoera batek sentikorretekin gutxien duenean ere animaliazkoa da, eta beraz, bere pentsamenduetan, izan daitezkeen argienak direnean ere, inoiz ez du eraginik bereizmen gizatiarrak. Eta ez dezagun gehiago hitzekin jolastu!

Tamalez denbora asko galdu dut kontzeptu soilak finkatu eta ordenatzen, baina beharrezkoa zen galera hori, psikologiaren alderdi hori guztia gaur egun penagarri baitago desolaturik, filosofo frantsesek animalia eta giza naturako berezitasun diruditen batzuekin dena erabat azpikoz gaindu eta itzulikatu baitute, eta filosofo alemaniarrek gisa horretako kontzeptu gehienak beren sistemaren mesedetan eta beren ikuspuntutik ordenatu baitituzte, pentsakera arruntaren ikuspuntuko nahasketak ekiditeko. Kontzeptu argitze hau dela-eta ez nabil itzulingurutan, berehala helduko diogu xedeari. Hain zuzen ere:

Gizakiak, bereizmenaren jabe izanik, berez dagokion bezala, eta bereizmen (gogoeta) hau lehen aldiz praktikan libre jarritz, hizkuntza asmatu du. Zer da bada gogoeta? Zer da hizkuntza?

Bereizmen hori da bere ezaugarria, bere espeziearen funtsa: baita hizkuntza eta hizkuntza asmatu izana ere.

Hizkuntza asmatzea, beraz, gizaki izatea bezain naturala da beragan! Azter ditzagun orain bi kontzeptuok: gogoeta eta hizkuntza.

Gizakiak gogoeta agertzen du, baldin bere arimako ahalmenak hain libre diharduen, non zentzumenen bitartez gainera datorkion sentsazio itsasotik olatu bakar bat bereiz badezake, zilegi bazait horrela mintzatzea, huraxe geldiarazi, hartan arreta ipini, eta hura hautematen ari dela ohartzen bada. Gizakiak gogoeta agertzen du, baldin bere zentzumenetatik isurtzen diren irudien amets hegalarietatik momentu erne batean bere baitaratu, bere borondatez irudi bakar bati eutsi, hura bere babesean lasai hartu eta haren seinaleak ezagut baditzake, alegia objektu horrenak direla eta ez beste batenak. Gizakiak gogoeta agertzen du, beraz, baldin ezaugarri guztiak bizi edo argi antzemateaz gain, horietako bat edo batzuk bereizgarritzat ezagut baditzake: ezagupen* honen lehen aktuak berak ematen du kontzeptu argia; arimaren lehen epaia da, baina...

Nondik gertatu da ezagupen hori? Berak apartatu behar izandako seinale batetik, hausnarketaren seinale gisa berari argi azaldu ondoren. Horra! Jaulki dezagun eureka! Hausnarketaren lehen seinale hau arimaren hitz izan da! Horrekin asmatu da giza hizkuntza!

Bere aurretik igaro bedi bildotsa, irudi gisa: beste edozein animalia ez bezala begiratu dio. Ez otso gose, sumatzaileak bezala! Ez lehoi odoltzaileak bezala. Hauek izpirituan bertan sumatzen eta ahogozatzen dute! Zentzumenen menpe daude! Bizkar gainean dute sena! Ahari sutsuak, berriz, plazer-iturri bezala sentitzen du soilik, zentzumenen menpe, bizkar gainean sena. Gainerako animaliek ez bezala, berak, axolarik gabe lotan, lausoki uzten dio ardiari joaten, sena beste norabait zuzendurik duelako. Gizakiak ez bezala! Ardia ezagutzeko premia azaltzen zaionean, ez dio inongo senek oztopo egiten, ez diote zentzumenek ekiten harengana hurbildu edo harengandik urruntzeko: han dago hura, gizakiari zentzumenek adierazi bezala: zuri, leun, artiletsu. Arima gogoetakaria, zailduz, seinale bila dabil... Ardia marruka! Aurkitu du seinalea. Barruko zentzumenak lanean dihardu. Marru hori, arimari zirrara handiena sortu diona, begiramen eta ukimenezko beste ezaugarri guztietatik bereizi, nabarmendu eta gehien eragin diona, bere baitan geratzen da²⁴. Badator berriro ardia: zuri, otzan, artiletsu... Arimak ikusi, ukitu, oroitu, seinaleak bilatu... Marru egitean ezagutzen du berriro! "To! Hi haiz marrularia!" pentsatzen du arimak bere artean, modu gizatiarrean ezagutu

du, argi ikusi du, seinale batetik ezagutu eta izendatuz. Ilunago ikusi balu, ez zukeen deus hautemango, zeren inongo zentzumenek, inongo senek ez baitzuen argitasun falta horren partez gardentasun biziagorik ipiniko. Aldiz, batere seinalerik gabe eta hala ere guztiz argi inongo izaki sentikorrek ezin du bere buruaz gain besterik nabaritu, zeren beti baitaude azpiratu edo suntsitu beharreko sentsazioak, eta gainera arimak bi gauzaren arteko desberdintasuna hirugarren baten bidez ezagutu behar du. Seinale batekin, beraz? Eta hori zer da barruko seinale-hitz besterik? Marruaren hotsa, giza arimak ardiaren ikurtzat hautemana, hausnarketa honen bitartez ardiaren izen bihurtu da, nahiz gizakiaren mihia inoiz hura toteltzen saiatu ez. Marrutik ezagutu du ardia; bereganaturiko ikur bat da, eta horrekin arima argiro oroitzen da ideia batez: zer da hori hitza baizik? Eta zer da giza hizkuntza osoa halako hitzen bilduma baizik? Beraz, inoiz beste izaki bati ideia hori emango ez balio, eta beraz, hausnarketaren seinale hori ezpainekin marrukatu nahi edo ahal ez, hala eta guztiz, bere baitan egin du marru bere arimak, honek soinu hori hautatu baitzuen gogorapen-ikur bezala, eta berriro egin du marru, horretatik ezagutuz. Horra hizkuntza asmatu! Gizaki izatea bezain naturala eta ezinbestekoa!

Hizkuntzaren jatorriaz idatzi duten gehienak ez dira bila ihardun hori aurki daitekeen puntu bakarrean, eta askori zalantza ilunak azaldu zaizkie: ediren ote daiteke hori giza ariman nonbait? Ahots-organoen artikulazio hobean bilatu ohi da: orangutanak antzeko organoekin inoiz hizkuntza asmatu al du? Pasioaren hotsetan bilatu ohi da: ez al dira animalia guztiak hots horien jabe, eta asmatu al du animalia bakar batek ere hizkuntza? Natura eta honen hotsak imitatzearen printzipioa suposatu ohi da: honelako joera itsuarekin ezer pentsa al daiteke, eta tximinoak joera horrexekin, eta zozoak, hotsak hain ongi imitatzen dakienak, hizkuntza asmatu al dute? Gehienek, azkenik, konbentzio soila, akordioa suposatu dute, eta horren aurka mintzatu da Rousseau gogorren; izan ere, zer esamolde ilun, korapilatsua da "hizkuntz akordio natural" delako hori? Hizkuntzaren jatorri gizatiarraz esan diren oker jasanezin ugari hauek guztiak direla eta, kasik orokor bihurtu da alderantzizko iritzia; horrela izaten ez jarraitzea espero dut. Ez da ahoko organizazioa hizkuntza egiten duena, zeren eta jaiotzez mutua ere gizaki baita, pentsatzen du, beraz, bere ariman hizkuntza dago! Ez dira ere sentsazio-oihuak, zeren eta ez baitu hizkuntza asmatu makina arnaslari batek, baizik izaki pentsalari batek! Ez dago ariman imitazioaren printzipiorik: naturaren imitazio posiblea xede bakar batera zuzendurik dagoen bitartekoa besterik ez da, hemen esplikatutako beharra dagoena. Ez dago inolako adostasunik, gizarte konbentzio arbitrarioerik; basatiak, oihaneko bakartiak berarentzat asmatu beharko zukeen hizkuntza, inoiz ez mintzatu arren. Bere arima eta bere buruaren arteko adostasuna zen, adostasun beharrezkoa, gizakia gizaki izatea adinakoa. Giza arimak hizkuntza nola asmatu ahal izan duen konpreniezina bada batzuentzat, niretzat ere konpreniezina da nola giza arima izan litekeen den hori, hizkuntza asmatu behar izan gabe, aho eta gizarterik gabe.

Jatorri hori erakusteko, kontrarioen objektzioak dira denetan argienak. Hizkuntzaren jatorri jainkotiarren defendatzaile xehe eta zehatzena* jatorri gizatiar benetakoaren defendatzaile bilakatzen da kasik, besteek ukitu besterik egin ez duten azala baino harago doanez. Frogaren atarian geratu da, eta bere objektzio nagusia, zuzenxeago esplikatutako, bere aurkako objektzio bihurtzen da eta baita aurkakoaren frogaren alegia gizakia gai dela hizkuntza sortzeko. Frogatutzat ematen du "hizkuntza erabiltzea beharrezkoa dela arrazoimena erabiltzeko"! Hala egin balu, ez dakit zer beste frogatu ahal izango zukeen horrekin, zera ez bada: "arrazoimena erabiltzea naturala baldin bada gizakiagan, hala behar luke ere hizkuntza erabil-

tzeak"! Zoritxarrez ez du bere baieztapen hori frogatu. Asko saiatuz azaldu duen bakarra izan da ekintza hain xehe eta elkarri lotuak, hau da, arreta, gogoeta, abstrakzioa etab., ez daitezkeela egoki gertatu zeinurik gabe, non arima bermatzen den. Alabaina, ez egoki, ez aise, ez probable horrek ez du deus agortzen. Nola guk abstrakzio ahalmen gutxirekin abstrakzio gutxitan pentsa dezakegun zentzumenezko zeinurik gabe, modu berean, beste izakiek gehiago pentsa dezakete horiek gabe; hortik ez dator inolaz ere zentzumenezko zeinurik gabeko abstrakzioak ezinezkoak direnik. Arestian frogatu dut seinalerik gabe ez dela egoki arrazoimena erabiltzea, ezta gradurik apalenean ere, ez dela posible ere ezagupen xume, argiena, edo giza adimenaren iritzi sinpleena; izan ere, bi gauzaren arteko desberdintasuna hirugarren baten bidez soilik ezagut daiteke. Hirugarren hori, seinale hori, bada, barruko seinale-hitz bihurtzen da: beraz, hizkuntza naturaltasun osoz dator arrazoimenaren lehen aktutik. Süssmilch jaunak erakutsi nahi du* arrazoimenaren aplikazio gorenak ezin direla gertatu hizkuntzarik gabe, eta ildo horretatik Wolffen hitzak aipatzen ditu, nahiz eta hau probabilitateez soilik mintzatzen den kasu horretan. Hori ez dagokio berez gure gaiari, zeren eta arrazoimenaren aplikazio gorenak, zientzia espekulatiboetan leku duten eran, ez baitira beharrezkoak hizkuntza oinarritzeko. Eta hala ere, baieztapen frogaerraz horrek Süssmilch jaunaren azalpen bakar bat soilik jasotzen du; nire ustez, ordea, frogatua dut arrazoimenaren aplikazio lehen, apalena ere ezinezkoa dela hizkuntzarik gabe. Berak ondorioztatzen duenean ezinezkoa dela gizakiak bere kabuz hizkuntza asmatu izana, horretarako arrazoimena behar baita, eta beraz, han egon aurretik han egon behar zuela hizkuntzak, nik orduan ziba eternala gelditu, ongi erreparatu, eta orain erabat bestelako zerbait diot: ratio et oratio! Arrazoimena gizakiarentzat ez bazen posible hizkuntzarik

gabe, ederki! Orduan hori asmatzea hori erabiltzea bezain naturala, zaharra, sortzezkoa, bereizgarria da.

"Ziba eternala" deitu diot Süßmilchen ondorioari, izan ere, bai nik bere aurka, bai berak nire aurka bira baitezake: eta biraka darrai. Hizkuntzarik gabe gizakiak ez du arrazoimenik eta arrazoimenik gabe hizkuntzarik ez. Hizkuntza eta arrazoimenik gabe ez da gai irakaspen jainkotiarrerako, eta irakaspen jainkotiarrik gabe ez du arrazoimen eta hizkuntzarik... Nora heltzen gara horrela? Nola ikas dezake gizakiak hizkuntza irakaspen jainkotiarraren bidez, ez badu arrazoimenik? Eta ezin du arrazoimena den mendrena erabili hizkuntzarik gabe. Hizkuntza eduki behar ote du orduan, arrazoimena eduki edo eduki ahal izan aurretik? Edo arrazoidun bihurtu ahal arrazoimena den mendrena erabili gabe? Irakaspen jainkotiarraren lehen silabara iritsi ahal izateko, Süßmilch jaunak berak aitortu bezala, gizaki izan behar zuen, hau da, argi pentsatu ahal izan, eta lehen pentsamendu argi horrekin batera hor zegoen jada hizkuntza bere ariman; beraz, bere bitarteko propioz asmatu zuen, eta ez irakaspen jainkotiarrez.

Badakit zer eduki ohi den gogoan gehienetan irakaspen jainkotiar hori dela eta, hain zuzen ere, gurasoen hizkuntz irakaspena haurrei; baina oroit hemen ez dela horrela. Gurasoek ez diete haurrei inoiz hizkuntza irakasten, hauek beren kabuz ere asmatu gabe. Gurasoek ohartzera ematen dizkiete gauzen arteko diferentziak, hitz-zeinu batzuen bitartez, ez seme-alaben arrazoimena ordezkatzuz, baizik honen erabilpena argituz eta sustatuz hizkuntzaren bidez. Naturaz gaindiko argitze hori beste iturri batetik ikusi nahi bada ere, ez du horrek eraginik nire xedean; beraz, Jainkoak ez du gizakientzat hizkuntza asmatu, aitzitik, hauek izan dira, beren ahalmenekin ihardunez, goiko antolakuntzaren pean, beren hizkuntza sortu behar izan dutenak. Lehen hitza hitz gisa, hau da, arrazoimenaren ikur gisa hartu ahal izateko Jainkoaren ahotik, arrazoimena behar izan zuen, eta gizakiak adimen bera erabili behar izan zuen hitz hori hitz gisa ulertzeko, aurren berritan berak asmatua balitz bezalaxe. Hala, bere kontra itzultzen dira nire arerioaren arma guztiak: gizakiak zinez erabili behar zuen arrazoimena, Jainkoaren hizkuntza ikasteko; ikasten ari den haurrak ere badu hori, bestela pentsatu gabe esango bailituzke hitzak papagaiaren antzera. A zer Jainkoaren eskola-ume duinak, horrelako ikasleak! Eta beti horrela ikasi bazuten, nondik dugu guk geure hizkuntza arrazoiduna?

Niretzat laudorio da, nire arerio duina oraindik bizirik balego, bere oharra, gehixeago zehazturik, bere aurkako frogarik gogorrena dela jabetuko litzatekeela, eta beraz, konturatu gabe bere liburuan bertan materiala bildu duela bere buruari uko egiteko. Ez litzateke ezkutatuko "arrazoitzeko gaitasuna, oraindik inolaz ere arrazoimen ez dena" hitzen atzean, nondinahi ageri baitira kontraesanak! Izaki arrazoiduna arrazoimenik ez darabilena edo arrazoimena darabilen izakia... hizkuntzarik gabe! Arrazoimenak lezioak eman diezazkiokeen izaki arrazoigabea, edo lezioak hartzeko gai den izaki arrazoigabea! Arrazoimena den mendrena ez darabilen izakia... eta hala ere, gizaki! Bere arrazoimena naturako indarrez erabili ezin duen izakia, eta hala ere, naturaz gaindiko lezioengatik hura naturalki erabiltzen ikasi duena! Batere gizatiarra ez den hizkuntza gizatiarra, hau da, inongo ahalmen gizatiarrez sortu ezin dena, eta hala ere, hain gizatiarra, non hori gabe gizakiak ezin dituen bere sortzezko ahalmenak kanporatu! Gauza hori gabe gizaki izaterik ez eta, hala ere, egoera batean gizaki izatea, gauza hori han egotea han egon aurretik, kanporatu beharra edukitzea kanporatu ahal izan aurretik etab. Kontraesan horiek guztiak nabariak dira, baldin gizaki, arrazoimen eta hizkuntza benetan diren bezala hartzen badira, eta "gaitasun" hitzaren zentzurik eza (giza gaitasuna, arrazoitzeko gaitasuna, hizkuntz gaitasuna) agerian jarritz gero.

"Baina hartz artean hazitako gizakume basatiek ba al zuten hizkuntza? Ez al ziren gizaki?"*. Noski zirela! Baina lehenik egoera antinaturaleko gizaki! Gizakia degeneraturik! Landareari gainean harria ezarritz gero, ez al da oker haziko? Eta ez al da

horratik landare tentekorra, bere naturagatik? Eta ez al da ageri zuzen tentetzeko indar hori, harriaren inguruan kiribiltzean? Bigarrenik, beraz, degenerazio horren posibilitateak berak giza natura erakusten du. Gizakiak animaliak adinako sen esturik ez duelako, denerako ahulago delako, hots, gizaki delako, degenerazioan erori da. Ikasiko ote zuen hartzaren antzera makakorro egiten eta hartzaren antzera arrastan, eduki ez balu organo malgurik, gorputzadar malgurik? Beste edozein animalia, tximino edo asto, iritsiko al zen hain urrun? Ez al da bere giza naturagatik bihurtu hain antinatural? Baina, hirugarrenik, hala ere, giza naturaren barruan jarraitu zuen; izan ere, makakorro, arrastan, irentsi eta sumatu, guztiz hartzak bezala egiten ote zuen? Ez al zen orduan betiko geratuko giza-hartz baldar, totel gisa, eta beraz, izaki bikoitz inperfektu gisa? Bere azala eta bere begitartea, bere oinak eta bere mihia ezin ziren erabat aldatu eta hartz forma hartu, eta hain gutxi, ez inoiz zalantzarik egin, bere arima ere. Bere arrazoimena ehortzirik zetzan zentzumenen pean, hartzarenaren pareko senen pean; baina, hala ere, giza arrazoimena zen, sen haiek ez baitziren inoiz erabat hartzarenak adinakoak. Eta hori horrela zela erakusten digu, azkenik, eszenaren bilakaerak. Oztopoak desagertzean, hartz-gizakia bere espeziera itzultzean, ez al zuen zutik joaten eta mintzatzen naturalago ikasi, makakorro egiten eta arrastatzen naturaz kontra ikasi zuena baino? Azken hori hartzaren antzera soilik egin zezakeen; baina bestea laster ikasi zuen gizakiaren antzera. Aurrez oihaneko kide izanikoetatik zeinek gehiagok ikasi zuen hori? Eta hartzak hori ikasi ezin, ez zeukalako gorputz eta arimako dispoziziorik, eta

aldiz giza-hartzak jasorik eduki ote du hori, nahiz artean basakerian egon? Berari lezioa eta ohitura eman eta zergatik ez hartzari? Eta zer esan nahi du lehendik ez dauzkanari arrazoimena eta gizatasuna ematea lezioen bitartez? Agidanean, orratz horrek eman zien begiei ikusmena, mintz itsugarria kenduz. Zer ondorio atera dezakegu naturako kasu ez naturalenetik? Baina aitor dezagun kasu ez naturala dela: ederki! Horrek natura egiaztatzen du!

Giza desberdintasunei buruzko Rousseuren hipotesi osoa, jakina denez, halako degenerazio kasuetan dago oinarritua, eta hizkuntzaren gizatasunaz dituen zalantzen ondorioa jatorri mota okerrak dira, edo bestela aipaturiko zailtasuna, alegia arrazoimena behar zela hizkuntza asmatzeko. Lehen kasuan hala da, bigarrenean gezurtatuak izan dira eta Rousseauk berak gezurtatzen ditu. Bere kimera, alegia gizaki naturala, izaki degeneratu hori, alde batetik arrazoitzeko gaitasunaz hornitzen duena, bestetik perfektibilitatez dotoretuko du, eta gainera bereizgarri horrexekin, eta gainera hain gradu gorenean, non horren bidez animalia orotatik ikas dezakeen. Zer ez dio Rousseauk oparitzen! Nahi eta behar duguna baino gehiago! Lehen pentsamendua, "Begira!, animaliak berezko du hori! Otsoak, ulu! Hartzak, makakorro!", benetako gogoeta da (bigarren batekin lotzeko adinako argitasunez pentsatua: "Nik ez dut hori"!). Hirugarren eta laugarren pentsamendua, berriz, "Ongi!, hori egoki litzateke nire izaerarentzat ere! Imita nezake! Imitatu nahi dut! Horrela nire espeziea hobetuko da!". Zenbat gogoeta xehe, elkarri estekatuak! Izan ere, lehenengoa adieraz zezakeen izakiak jada arimaren hizkuntza eduki behar zuen, bazuen pentsatzeko artea, mintzatzeko artea sortuko zuena. Tximinoa beti sinoka ari da, baina ez du inoiz imitatu, ez da inoiz bere artean bereizmenez honela mintzatu: "Horixe imitatu nahi dut, nire espeziea hobetzeko!", zeren inoiz hori egin balu, imitazio bakar baten jabe egin balitz, hori bere espeziean nahita eta apropos betikotu balu, behin bakarrik bada ere horrelako gogoeta bakar bat egin ahal izan balu, ordutik aurrera ez zen tximino izango! Tximino itxura eduki eta hitzik ez jaulki arren, gizaki hiztun izango zen bere baitan, lehenago edo geroago kanpoko hizkuntza sortu beharrekoa. Nolanahi ere, eta gizakiaren hizkuntz tresna guztiak edukirik ere, zer orangutanek ebaki du inoiz giza hitz bakar bat?

Badaude, noski, oraindik European adiskideak honela diotenak: "Agian mintzatu nahi balu, edo aukera baletorkio, edo ahal balu..." Ahal balu! Horixe zuzenena. Izan ere, arestiko bi baldintzak arras ukatu ditu animalien historiak, eta tresnek, esan bezala, ez diete ahal hori oztopatzen²⁵! Guk bezalako burua du kanpotik eta barrutik, baina mintzatu da inoiz? Papagaiak eta zozoak giza hots dezente ikasi dute, baina pentsatu al dute giza hitzik? Ez gara ari hitzen hots kanpokoaz; hemen mintzatzen gara hitzaren genesi barruko, premiazkoaz, hausnarketa argiaren seinale gisa. Noiz jaulki du inoiz horrelakorik animalia mota batek, edozein modutan dela ere? Agerian egon behar luke pentsamenduen hariak, arimaren diskurtsoak, nolanahi jaulkirik ere. Zeinek egin du hori, ordea? Azeria mila modutan ibili da, Esopok ibiltzen utzi dion heinean; baina ez da inoiz Esoporen zentzumenez ibili, eta hori egin dezakeen lehen aldian azeri jaunak bere hizkuntza izango du sortua eta Esopori buruz alegiak egin ahal izango ditu, berari buruz Esopok bezala. Zakurrak hitz eta agindu asko ulertzen ikasi du, baina hitz gisa ez baizik zeinu gisa, imintzio eta ekintzekin loturik; inoiz hitz bakar bat ulertuko balu giza zentzumenez, ez legoke gehiago inoren zerbitzura, bereak lituzke artea, errepublika eta hizkuntza. Ikusten denez, genesi zehatzaren puntua oker finkatuz gero, izugarri zabala da errakuntza bi aldeetan! Izan ere, batean hizkuntza hain gizagainekoa da, non Jainkoak sortua behar duen; bestean hain ez gizatiarra, non edozein animaliak sor lezakeen, ahaleginduz gero. Egiaren xedea puntu bakarra da, baina han kokaturik, alde guztiak ikusten ditugu: zergatik ezin dute animaliek hizkuntza sortu? Zergatik ez dezake

Jainkoak hizkuntza asmatu? Eta gizakiak, gizaki denez, hizkuntza asmatu ahal eta behar?

Ez diot gehiago metafisikatik ekin nahi hizkuntzaren jatorri jainkotiarrari, psikologiaren ikuspegitik argi baitago bere funtsik eza, zeren eta Olinpoko jainkoen hizkuntza ulertu ahal izateko gizakiak arrazoimena eduki behar baitzuen, eta, ondorioz, hizkuntza. Hain gutxi onar dezaket ere animalia hizkuntzaren zehaztapen atseginik, zeren denak, ikusi bezala, guztiz eta erabat baitira giza hizkuntza ez bezalakoak. Giza arimako hizkuntzaren puntu genetiko honetatik logika, estetika eta psikologiaren alor zabaletara hedatzen diren ikuspegiak dira gogo gutxienez baztertzen ditudanak, batez ere galdera honen inguruan baldin badoaz: zenbateraino pentsa dezakegu hizkuntzarik gabe, zer pentsatu behar da hizkuntzarekin? Galdera horren aplikazioa ia zientzia guztietara zabaltzen da. Aski izan bedi hemen hizkuntza gure espeziearen kanpoko bereizgarri benetakotzat hartzea, arrazoimena barruko bereizgarria den hein berean.

Hizkuntza bat baino gehiagotan izen bakarra dira "hitz" eta "arrazoimen", "kontzeptu" eta "hitz", "hizkuntza" eta "zio", eta sinonimia horixe da jatorri genetiko osoaren seinale. Ekialdean guztiz idiotismo ohikoa da gauza bat ezagutzeari izenemate deitzea, arimaren oinarrian bi ekintzak bat baitira. Gizakiari animalia hitzun deitzen diote, eta animalia arrazoigabeei mutu. Espresio esanguratsua da, eta grekozko $\alpha\lambda\omicron\gamma\omicron\varsigma$ -ek biak elkartzen ditu. Beraz, adimenaren organo naturala da hizkuntza, giza arimaren zentzumenen, antzinakoentzat begia arima sentikorraren ikusmena zen bezala²⁶, eta erlearen senak gelaska eraikitzen duen bezala.

Zoragarria da izpirituaren zentzumen berri berjabe hori jatorritik bertatik lotura-bide izatea. Ezin dut lehen giza gogoetan pentsatu, ez lehen iritzia sailkatu, neure baitan mintzatu edo mintzatzen saiatu gabe. Hala, lehen giza pentsamenduak bere izaeragatik prestatzen gaitu besteekin elkarriketatzerat! Jasotzen dudan lehen seinalea seinale-hitz da niretzat, eta komunikazio-hitz besterentzat!

-Sic verba, quibus voces sensusque notarent

Nominaque invenere-

Horazio²⁷

III

Argi dago giza arimako zein puntutan pizten den Prometeoren txinparta zerukoa: lehen seinalearekin batera sortu zen hizkuntza. Baina zein seinale izan ziren aurrenekoak hizkuntz osagai bihurtzen?

I. Soinuak

Cheseldenekitsuak* erakusten du zer astiro garatzen den ikusmena, zer zail bereganatzen dituen arimak espazio, forma eta kolore kontzeptuak, zenbat saio egin behar den, zenbat neurketa, seinale horiek argi erabiltzeko; ez da hori, beraz, hizkuntzaren zentzumen egokiena. Gainera bere fenomenoak hain hotz eta mutuak dira, eta zentzumen gordinagoen sentsazioak, berriz, hain lauso eta nahasiak, non, naturari jarraiki, ez zen izan hizkuntzaren lehen irakaslerik, edo bestela belarria izan zen.

Horra hor adibidez ardia. Irudi gisa naturako koadro handian flotatzen du begi aurrean, objektu, irudi eta kolore

guztiekin batera: zer nekeza den bereizketak egitea! Seinale guztiak elkarri xehe-xehe estekaturik, ezin dira hitzez adierazi. Nork daki formak esaten? Nork daki koloreak hots egiten? Gizakiak ardia haztatu, berriz, eta ukitze hori sentsazio seguruagoa da, osoagoa, baina, hala ere, oso iluna. Nork esan dezake zer ukitzen den? Baina entzun! Ardia marruka! Horra non nabarmentzen den bere kabuz seinale bat koloretako koadroaren oihalean, non arestian hain gutxi bereizten zen, inoren ariman tinko eta argi barneratuz. "To!" esaten du ikasten ari den gaztetxoak Cheseldenenitsuak bezala, "aurrerantzean ezagutuko zaitut, marru egiten duzu!". Usapalak urruma! Zakurrak zaunka! Horra hiru hitz, hiru ideia argi frogan jarririk, hauek logikan, haiek hiztegian! Arrazoimenak eta hizkuntzak urrats lotsati bat eman dute elkarrekin, eta naturak lagundu die erdi bidean... entzumenaren bitartez. Hots egin ezezik, naturak tinko barneratu zuen seinale hori ariman! Soinu egin zuen! Arimak harixe heldu, eta badu hitz hotsegile bat!

Hala, gizakia izaki entzule eta hautemailea da, hizkuntza berez edukitzeko gai, eta itsuak, eta mutuak ere, argi dago, hizkuntza sortu beharra luke, soraio eta gorra ez bada. Utz ezazue irla bakartian patxadan eta eroso: entzumenaren bitartez agertuko zaio natura. Ikusi ezin dituen hamaika izaki hizketan ari zaizkiola irudituko zaio, eta bere ahoa eta bere begiak betiko itxita egonarren, arima ez da geratzen erabat hizkuntzarik gabe. Zuhaitz-hostoek bakarti gizagaixoari freskura ematen diote, aldameneko errekaen borborrak loa gozatzen dio, eta mendebal-haizearen xuxurlak masailak abanikatzen dizkio...; ardi marrulariak, esnea; iturri murmuriotsuak, ura; zuhaitz zurrumurrulariak, fruituak... Horregatik, interesgarria zaio izaki ongile horiek ezagutzea, premiazkoa zaio begi eta mihirik gabe bere baitan haiek izendatzea. Zuhaitza "zurrumurrulari" bihurtzen da, mendebal-haizea "xuxurlari", iturria "murmuriolari". Horra hor hiztegi txiki bat prest, hizketako organoek zigilatu zain. Zer eskasak eta bitxiak ote dira, ordea, ezindu horrek halako hotsekin lotzen dituen irudikapenak*!

Utzi orain gizakiari zentzumen guztiak libre: denak batera ikus, uki eta senti ditzala belarrira mintzatzen zaizkion izaki guztiak. Alajaina, ideien eta hizkuntzaren nolako ikastegia! Ez hodeietatik Merkurio edo Apolo jaitsiarazi deus ex machina gisa: hots anitzeko natura jainkotiar osoa da hizkuntz irakasle eta musa! Gizakiaren ondotik igaroarazten ditu izaki guztiak: bakoitzak mihian darama bere izena eta esan egiten du, jainko gorde ikusgarri honen aurrean, mirabe eta zerbitzari gisa. Bere buruaren seinale-hitza ematen dio aginte-libururako, tributu moduan, izen horren bidez berataz oroitu dadin, aurrerantzean erabili eta plazer eduki dezan. Egia hau dela eta, alegia "Natura menperatzeko gizakiak darabilen adimen horrexek sortu zuela hizkuntza bizia, izaki hotsegileen soinuak desberdintasun-seinaletzat hartuz", nire galdera da ea egia lehor hori ekialdean finago eta ederrago esaterik ba ote legokeen zera baino: "Jainkoak gizakiagana joanarazi zituen animaliak, nola deitu ikusteko. Eta honek haiei nola deitu, izen hori beharko zuten". Modu poetiko, ekialdeko nola esan zehatzago: Gizakiak berak asmatu zuen hizkuntza, natura biziko hotsetatik, bere adimen nagusiaren seinale gisa! Eta hori da neu frogatzen ari naizena.

Aingeru batek edo zeruko izpirituak asmatu balu hizkuntza, orduan bere egitura osoa izpiritu horren pentsakeraren kopia izan beharko luke. Hartara, irudi bati nola igarriko diot aingeruak pintatua dela, ezpada bere taxu aingeruzko, munduaz gaindikoagatik? Baina non azaltzen da hori hizkuntzan? Bai egitura, bai plantan, eta baita jauregiaren lehen oinarrian ere, gizakiaren eskua ageri da!

Zer hizkuntzatan dira lehenak kontzeptu zerukoak, izpiritualak? Geure izpiritu pentsalariaren ordenari jarraiki lehenak izan behar luketen kontzeptuak -alegia subjektuak, notiones communes, gure ezagutzaren ernamuinak, oro beren inguruan ibili eta oro beren aipamen diren puntuak- hizkuntz osagai al dira puntu bizi horiek? Subjektuek predikatuaren aurretik joan behar lukete naturalki, eta subjektu soilek konposatuaren aurretik, egile eta ekintzaileak ekintzaren aurretik, esentzialak eta jakinak ezjakinaren eta kasualitatearen aurretik. Makina bat ondorio atera litezke hortik, baina gure antzinako hizkuntzetan beti alderantziz gertatzen da, argi asko. Izaki entzule, arretatsua ezagun da, baina zeruko izpiriturik ez: izan ere, aditz hotsegileak dira lehen osagai boteredunak. Aditz hotsegileak? Ekintzak bai eta ekintzailerik ez? Predikatuak bai eta subjekturik ez? Zeruko jeinua agian lotsatuko da honetaz, baina ez gizaki sentikorra; izan ere, zerk hunki dezake hau gehiago, ikusi dugun bezala, ekintza hotsegile horiek baino? Eta zer da, beraz, hizkuntz egitura osoa, ezpada bere izpirituaren bilakaera modu bat, bere aurkikuntzen historia? Jatorri jainkotiarrek ez du deus argitzen, eta hartatik ez dago deus argitzerik; Baconek³⁰ beste gauza batengatik dioen bezala, hori vestale saindua da, Jainkoari eskainia baina antzua, dohatsua baina baliogabea!

Lehen hiztegia, beraz, mundu osoko soinuen bilduma zen. Izaki hotsegile bakoitzak bere izena jaulki zuen: gizakiaren arimak bere irudia ezarri zuen gainean, ikurtzat hartuz. Interjekzio hotsegile horiek, noski, lehenak izan ziren, eta horrela ekialdeko hizkuntzak, adibidez, beterik daude hizkuntz sustrai diren aditzez. Gauzei buruzko pentsamendua kolokan zegoen ekintzailea eta ekintzaren artean. Hotsak gauza izendatu behar zuen, gauzak hots egiten zuen gisa berean. Beraz, aditzetatik izenak jaio ziren, eta ez izenetatik aditzak. Haurrak ez dio ardiari ardi deitzen, baizik izaki marrulari, horrela interjekzioa aditz bihurtuz. Giza sentikortasunaren mailaketak aise argitzen du hori, baina ez izpiritu gorenaren logikak.

Antzinako hizkuntza zahar guztiak beterik daude horrelako jatorriz, eta ekialdeko hiztegi filosofiko batean, hitz sustrai bakoitza eta bere familia, ongi ezarri eta taxuz bilakaturik, giza izpirituaren bideen mapa izango litzateke, bere bilakaeraren historia, eta horrelako hiztegiak ederki frogatuko luke giza arimaren asmamena. Baina Jainkoaren hizkuntz eta irakas-metodoa ere ba ote? Nekez!

Natura osoak hots egiten duenez, gizaki sentikorrarentzat erabat naturala da hura bizi, mintzatu, ihardun dadin. Harako basati hark zuhaitz garaia bere gailur bikainarekin ikusi eta txunditurik geratzen da: gailurra zurrumurruka! Horra hor Jainkoa mugitzen! Basatia belaunikatu eta otoitz egiten du! Begira gizaki sentikorraren historiari, lotura ilun batetik nola sortzen diren aditzetatik izenak, eta zer tarte xumea dagoen hortik abstrakzioa! Iparramerikako basatien artean adibidez, dena bizirik dago oraindik: gauza bakoitzak du bere jeinua, bere izpiritua, eta Grezian eta ekialdean ere horrela izan dela erakusten dute beren hiztegi eta gramatika zaharrek: asmatzailearentzat natura osoa bezalakoak dira, panteoia, izaki bizi, ekintzaileen erresuma!

Baina gizakiak dena beragana bildu zuenez, dena berarekin hizketan eta bere alde edo bere aurka ari zela zirudienez, gauza bakoitza onetsi edo borrokatu, maitatu edo gorrotatu eta guztiari giza ikuspegia eman zionez, gizatasunaren aztarna horiek guztiek beren zigilua utzi zuten lehen izenetan! Haiek ere adierazten zuten maitasuna edo gorrotoa, madarikazioa edo bedeinkazioa, goxotasuna edo ezbeharra, eta batik bat sentsazio horretatik sortu zen anitz hizkuntzatan artikulua! Dena gizatiar bihurtu zen, emakume eta gizon gisa pertsonifikaturik; denean jainkoak, jainkosak, izakiak ekinean, maltzurak edo zintzoak! Ekaitz burrunbatsua eta zefiro ezia, iturri gardena eta itsaso boteretsua, beren mitologia osoa oinarritzen da jatorri horretan, hizkuntza zaharren aditz eta izenetan, eta beraz, hiztegi zaharrena panteoi hotsegile bat zen, bi sexuen batzar-

aretoa, lehen asmatzailearen zentzumenentzat natura bera zen bezala. Horrela, nazio zahar, xume, basatiaren hizkuntza azterketa da giza fantasia eta pasioen labirintoei buruz, bere mitologiak ezezik. Hitz-familia bakoitza sasitza trinkoa da ideia sentikor nagusi baten inguruan, haritz saindu baten inguruan, non oraindik aztarnak dauden asmatzailea hunkitu zuen triadarenak. Sentsazioak elkarri loturik daude, mugitzen dena bizi da, hotsegilea mintzatzen da; eta zure alde edo aurka hots egiten duen, orduan lagun ala etsai da, jainko ala jainkosa, zure antzera dihardu pasioen arabera!

Ikuspegi hori baino maiteago dut izaki gizatiar sentikorra. Leku guztietan dakusat hunkibera ahul lotsatia, maitatu edo gorrotatu, fidatu edo beldurtu beharrez, eta sentsazio horiek bere barrutik izaki orotara zabaldu nahian. Leku guztietan dakusat izaki ahul baina boteretsua, unibertso osoa behar duena eta ororekin gerran edo bakean; ororen menpe baina ororen nagusi. Poesia eta generoa sortzea, beraz, gizakiaren interesak dira, eta hizketako genitalak dira, nolabait, ugalketa bidea. Baina jeinu goren batek hizkuntza izarretatik ekarri badu, nola? Izarretako jeinu horrek ilargipeko gure lurrean maitasun eta ahulezia, gorroto eta beldurrezko pasio horietan nahasi ote zuen bere burua, guztiari onespen edo gorrotoa atxikiz, hitz guztiei beldurra eta poza itsatsiz, eta, azkenik, guztia sexu-harremanean oinarrituz? Ikusi eta sentitu al zuen gizakiaren antzera, alegia izenak genero eta artikuluan bat etorraziz, aditzak aktibo eta pasibo gisa elkartzuz, hainbeste ume egiazko eta sasiko emanaz, hau da, hizkuntza osoa giza ahulezien sentsazioan oinarrituz? Ikusi eta sentitu al zuen horrela?

Naturaz gaindiko jatorria defendatzen duenarentzat, Jainkoaren antolaketa da "hitz sustrai gehienak silaba bakarrak izatea, aditzak gehienetan silaba bikoak, eta beraz, hizkuntza zatiturik egotea oroimen neurriaren arabera³¹". Datu hori ez da zehatza, eta ondorioa zalantzazkoa da. Zaharrentzat jotzen den hizkuntzaren hondarretan sustrai guztiak silaba biko aditzak dira, eta hori oso ongi argi dezaket nik arestikoa kontuan harturik, zeren alderantzizko hipotesia guztiz funsgabea baita. Aditzok, hain zuzen ere, natura hotsegileko soinu eta interjekzioen gainean daude zuzenean eraikirik, eta horiek oraindik ere sarritan aditzen dira han-hemenka interjekzio gisa; gehienetan, ordea, erdizka ahoskatuak izanik, galdu egin dira hizkuntza osatzeko prozesuan. Ekialdeko hizkuntzetan, bada, ez dira ageri mihi totelen aurreneko ahalegin horiek; baina ez agertze horrek, eta soilik beren hondar erregularrak aditzetan egoteak, erakusten du hizkuntzaren antzinatasuna eta gizatasuna. Sustrai horiek zer dira, Jainkoaren jakintzako altxorrak eta abstrakzioak, ala belarri entzulearen aurreneko soinuak? Mihi totelen aurreneko hotsak? Gizakiak haurtzaroan osatu zuen umeak toteltzen duen hizkuntza: inudearen gelako hiztegi murduskatua; non geratzen da hori helduaren mihian?

Aspaldiko hainbestek esan eta oraingo hainbestek zentzurik gabe berresanikoak, alegia poesia zaharragoa dela prosa baino, indar hartzen du horrela³²! Izan ere, zer zen lehen hizkuntza hori poesi elementuen bilduma besterik? Natura hotsegile, ekintzaile, mugitzailearen imitazioa! Izaki guztien interjekzioetatik hartua eta giza zentzumenaren interjekzioz bizitua! Izaki guztien hizkuntza naturala, adimenaren bitartez hots bihurturik; ekintza, pasioa eta eragin biziko irudi! Arimaren hiztegia, bai mitologia eta bai izaki guztien ihardun eta mintzoen epopeia miresgarria ere! Beraz, pasioa eta interesa duen alegia etengabea! Zer beste da poesia?

Areago, antzinako tradizioak dioenez, gizakiaren lehen hizkuntza kantua zen³³, eta musikazale askok uste du gizakiek txoriengandik ikas zezaketela kantu hori. Hori gehiegizko ustea da, noski! Erloju handi bikain batek, bere engranaje zehatz, malguki tinkatu berri eta pisu astunekin, horixe jo dezakeela kariloia, baina gizaki sortu berriak, bere malguki sendoeekin, bere premiekin, bere sentsazio bortitzeekin, bere arreta ia itsu-itsuan lanpetuarekin eta, azkenik, bere eztarri zakarrarekin, zer eta urretxindorraren itxura egitea eta hartatik hizkuntza kantari asmatzea, hori, nahiz musika eta poesiazko

historia askotan azaldu, niretzat ulertezina da. Posible litzateke, noski, musika-doinuzko hizkuntza (Leibnizi* ere bururatu zitzaion). Baina naturako lehen gizakientzat ez zen posible horrelako hizkuntza, hain landu eta findua. Izakien artean gauza bakoitzak bere boza du, eta boz horren araberrako hizkuntza. Amodioaren hizkuntza urretxindorraren habian kantu goxoa da, lehoiaren kobazuloan orroa, oreinaren oihanean irrintzi-marru eta katuaren txokoan garrasi; espezie bakoitzak du bere mintzoa, gizakiari begira ez baizik bere buruari begira, eta bakoitzarentzat hain atsegina nola Petrarkaren kantua Laurarentzat! Ez du, beraz, urretxindorrak kantatzen gizakiari begira, zenbaitek uste bezala, eta gizakiak ere ez du inoiz hizkuntza asmatu nahiko urretxindorraren antzera xaramelatuz. Eta gainera zer munstro litzateke hori, kobazuloan bizi edo basoan ehizean dabilen giza urretxindorra?

Beraz, lehen giza hizkuntza kantua bazen, orduan kantua guztiz naturala zen, bere organo eta joera naturalekin bat eginda, birika hegalaria baten antzeko urretxindorarentzat bere kantua bezala, eta hori zen gure hizkuntza hotsegilea. Condillac, Rousseau eta beste batzuk erdi bidean geratu dira, hizkuntza zaharrenean prosodia eta kantua sentsazio-garrasietatik ondorioztatzean: zalantzarik gabe sentsazioak lehen hotsei bizitasuna eman eta goratu egin zituen, baina sentsazio-hots soiletatik inoiz ezin denez jaio giza hizkuntza, hori baitzen kantua, beste zerbait falta da hori sortzeko, alegia izaki bakoitzari izen ematea. Natura osoa ari zen, beraz, kantuan eta hoska, eta gizakiaren kantua boz horien guztien kontzertua zen, baldin

bere adimenak behar bazituen, bere zentzumenak jasotzen bazituen eta bere organoek ahoska bazitzaketen. Kantua zen, baina ez urretxindor xaramela, ez Leibnizen hizkuntza musikala, ezta animalien sentsazio-garrasi hutsa ere: izaki guztien hizkuntzak ahoskatzea zen, giza bozaren eskala naturalaren barruan!

Gero hizkuntza erregularrago, uniformeago eta mailakatuago bihurtuko bazen ere, artean kantu modukoa jarraitu zuen izaten, hainbat herri basatiren azentuak erakusten duenez; eta kantu horretatik, ondoren xehetu eta findurik, poesia eta musika zaharrenak sortu zirela frogatu du batek baino gehiagok. Gure mendean poesia eta musikaren jatorria aztertu dituen filosofo ingelesa* urrutira helduko zen ez balu saihestu bere ikerketatik hizkuntzaren izpiritua, eta gutxiago ihardun balitz poesia eta musika batasun-puntu bakarrean mugatzen, horrekin ez baita deus erakusten, biek giza natura osoan dutela jatorria besterik. Hori horrela, poesia zaharreko zatirik onenak aro hizkuntz kantari horren hondarrak direnez, ugari dira ezjakintasunak, hutsegiteak eta estilo akatsak poema zaharrak, tragedia eta deklamazio grekoak ebakitzerakoan. Zenbat zeresan edukiko ote luke filosofo batek, zati horiek irakurtzeko doinua ikasiz gero, oraindik aro hartan bizi diren herri basatiekin! Beste gainontzean ez da ikusten azpikoz gain jarritako alfonbraren ehundura besterik! Disiecti membra poetae³⁶! Baina alor amaigabean galduko nintzateke hizkuntz ohar solteekin hasiko banintz. Itzul nadin, beraz, hizkuntzaren lehen asmaketa bidera!

Adimenaren seinale gisa grabaturiko hotsetatik hitzak sortzea aise ulertzen da. Baina gauza guztiek ez dute hotsik. Nondik hartu seinale-hitzak hauentzat, arimak izendatu ahal ditzan? Nondik du gizakiak trebezia, soinu ez dena soinu bilakatzeko? Zer dute koloreak eta borobiltasunak beren izenarekin bat, arditik "marru" hitza bezala jaiotzeko? Naturaz gaindiko

jatorriaren defendatzaileek badute horrentzat konponbidea: "Arbitrariotasuna! Nork konpreni eta bila dezake Jainkoaren adimenean, zergatik "berdeari" "berde" deritzon eta ez "urdin"? Zalantzarik gabe, hala nahi zuen Hark izatea!", eta kito horrekin! Hizkuntz asmaketari buruzko filosofia osoa, beraz, hodeietatik dago arbitrarioki zintzilik, eta guretzat hitz bakoitza qualitas occulta da, zerbait arbitrarioa! Ez bedi txarrean hartu nik kasu honetan "arbitrario" hitza ez ulertzea. Garunetik abiatuz hizkuntza arbitrarioki eta motiborik gabe asmatzea, hori giza arimarentzat, ororen aurrean motibo bat edo beste eduki nahi izaten baitu, hori sekulako oinazea da, hil arte norbera kilimatzen uztea adinakoa. Gainera naturako gizaki gordin sentikorrarentzat, bere ahalmenak ez baitira oraindik aski finak huskeriatan aritzeko, berak, ezjakin eta boteretsu, ez baitu deus egiten zio larririk ez bada eta ezta deus alferrik egin nahi ere, horrentzat bere naturaren aurka doa hizkuntza asmatzea analogia guztien arbitrariotasun soil hutsetik; eta arimako ahalmenen analogia guztien aurka doa arbitrariotasun hutsetik asmatutik hizkuntza.

Goazen harira. Nola sortu ahal izan du gizakiak, bere ahalmenetara abandonaturik,

II. Hotsik aditzen ez denerako hizkuntza?

Zer harreman dago ikusmen eta entzumen, kolore eta hitz, usain eta soinu artean?

Ez objektuen mailan; baina zer dira, bada, objektuen ezaugarri horiek? Gure baitako sententzioak besterik ez, eta, hala diren heinean, ez al dira denak puntu batean elkartzen? Sensorium commune pentsalaria gara gu, hainbat aldetik hunkiturik: horra azalpena.

Zentzumen guztiek sententzia dute oinarrian, eta horrek edozein motako sententzioei hain lotura intimo, indartsu eta adieraztezina ematen die, non estekadura honetatik agerraldi txit bereziak jaiotzen diren. Adibide bat baino gehiago ezagutzen dut, non pertsonak naturaltasun osoz, agian haurtzaroko eragin batengatik, zuzenean elkartzen duten oldar azkarrez soinu honekin kolore hura, agerraldi honekin sententzio erabat desberdin, ilun hura, nahiz arrazoimen lasaiarekin konparatuz gero beren artean batere harremanik eduki ez; izan ere, nork konpara ditzake soinua eta kolorea, agerraldia eta sententzia? Denetariko zentzumenen horrelako kateaz beterik gaude; geu bakarrik ohartzen gara horietaz geure oldarraldietan geure onetatik ateratzean, fantasiaren eritasunetan edo horiek biziki nabariak direnean. Geure pentsamenduen ibilera normala hain bizkorra da, geure sententzioen uhinek hain ilun jotzen dute elkar, hainbeste da arima barrura sartzen zaiguna, non gu ideia gehienek aurrean lozorro antzera gauden iturri ondoan, eta bertan aditzen dugu uhin bakoitzaren zurrumurrua, baina hain motel non azkenerako loak sententzio ohargarri guztiak itzaltzen dizkigun³⁷. Posible balitz geure pentsamenduen katea gelditzea eta maila bakoitzaren lotura bilatu ahal izatea, nolako bitxitasunak, nolako analogia arrotzak letozkeen zentzumen ugarietatik, horien arabera iharduten baita arima! Arrazoimena besterik ez duen izaki batentzat gu erio-espere baten antzekoak ginateke, zuhur pentsatu bai baina lotura ulergaitz eta ergelen egileak!

Izaki sentikorrentzat, hainbat zentzumenen bitartez batera sentitzen dutenez, nahitaezkoa da ideiak biltze hori; izan ere, zer dira zentzumen guztiak, arimako ahalmen positibo bakar baten irudikapen mota hutsak besterik? Bereizten ditugu, baina berriro ere zentzumenen bitartez soilik; beraz, irudikapen motak irudikapen moten bitartez. Neke handiz ikasten dugu horiek praktikan desberdintzen, baina oinarrian elkarrekin jarraitzen dute eragiten. Gizaki sentikorrigan Buffon, Condillac eta Bonnetek³⁸ eginiko sententzio-zatiketa guztiak abstrakzioak dira: filosofoak utzi egin behar du sententzioaren hari bat besteari jarraitu bitartean, baina naturan ehun bakarra osatzen dute hari guztiek! Zenbat eta lausoagoak zentzumenak, orduan eta gehiago nahasten dira; eta zenbat eta ezjakinago, zenbat eta gutxiago ikasia izan bata bestea gabe erabiltzen, trebe eta argi

erabiltzen, orduan eta lausoago! Aplikatu diezaiozun hau hizkuntzaren hasierari. Artean gizakia ume eta zaildu gabe egoteak erraztu egin zuen!

Gizakia munduratu zen: zer itsasok gainezkatu zuen bat-batean, zenbat nekez ikasi zuen bereizketak egiten, zentzumenak ezagutzen, ezaguturiko zentzumenak banaka erabiltzen! Ikusmena da zentzumenik hotzena, eta beti hain hotz izan balitz, hain urrun, hain garden, guri anitz urteko lan eta nekearen ondoren bihurtu zaigun gisa, ez dut inolaz ere ulertzen nola egin zen ikusten dena aditzeko modukoa. Natura arduratu da horretaz, ordea, eta bidea hurbildu digu; izan ere, ikusmena hasieran ukipena besterik ez zen, eta horren lekuko dira haurrak eta jaiotzezitsuak. Gauza ikusgarri gehienak mugitu egiten dira; anitzek hots egiten dute mugitzerakoan, edo bestela hurbil antzean geratzen dira begia hasiera batean zenetik, aldamenean, eta beraz, uki daitezke. Ukimena hain hurbil dagoenez entzumenetik, bere adierazpideek, hau da, "gogor", "zakar", "bigun", "kizkur", "trinko", "iletsu", "zurrun", "leun", "berdin", "zurdatsu" etab., denak azalekoak eta eragin sakonik gabeak, ukituko balira bezala egiten dute hots. Barra-barra zetozen sentsazio horiekin larrituta eta hitz bat sortzeko premia, arimak heldu eta agian ondoko zentzumen baten izena bereganatu zuen, sentsazio paretsukoa. Horrela sortu ziren hitzak zentzumen guztientzat, baita hotzenentzat ere. Tximistak ez du hotsik, baina aditzera eman behar denean gauerdiko mezularia,

Bat-batean zeru-lurrak agertzen

eta "Begira!" esan ahal izan baino lehen

Ilunaren masailazurrek irensten dute-39

hitza sortuko da, noski, tarteko sentsazio baten laguntzaz belarriari ustekabearen sentsazioa ematen diona, begiak nabaritu bezalakoa: "Tximist!". "Usain", "hots", "gozo", "mikatz", "garratz" etab., denek dute hotsa, sentituko balira bezala; izan ere, zer dira hasieran zentzumen guztiak sentsazio baizik? Sentsazioa soinuaren bitartez nola adierazi, hori makina sentikorraren ezinbesteko lege naturaltzat hartu dugu lehen atalean, eta ez goaz berriro argitzen hasiera!

Beraz, zailtasun guztiak ondorengo bi esaldi argi, frogatuetara mugatzen dira.

1) Zentzumen guztiak arimaren irudikapen motak besterik ez direnez, arimak irudikapen argia dauka bakarrik, beraz seinalea, eta seinalearekin barne-hizkuntza dauka.

2) Zentzumen guztiak, batez ere haurtzaroen, arimaren sentsazio motak besterik ez direnez, baina animalien sentsazio-lege baten arabera sentsazio orok nahitaez bere hotsa duenez, sentsazio hori seinale baten argibide izatera heltzen da: hor dago kanpoko hizkuntzarako hitza. Honela iristen gara hainbat ohar bitxitara, alegia natura jakintsuak gizakia nola jantzi duen, honek bere kabuz hizkuntza sor dezan. Hau da puntu nagusia: "Gizakiak natura irakaslearen hizkuntza entzumenaren bitartez jasotzen duenez eta hori gabe ezin duenez hizkuntzarik sortu, entzumena da nolabait ere erdiko zentzumena, ariman sartzeko ate benetakoa eta gainerako zentzumenen arteko lokarria". Argi dezadan hori!

1. Entzumena da erdiko giza zentzumena kanpoko sentikortasunaren esferan. Ukimenak bere baitan eta bere organoan soilik sentitzen du oro; ikusmenak urrutiko bazterrak zabaltzen dizkigu; entzumena, berriz, komunikatzeko gaitasunaren erdian dago. Zer ondorio du horrek hizkuntzan? Har dezagun izaki bat, are izaki arrazoiduna, zentzumen nagusitzat ukimena duena (hori posible balitz): zer txikia bere mundua! Eta entzumenaren bitartez sentitzen ez duenez, agian intsektuak bezala sarea egin ahal izango du, baina hotsen bitartez hizkuntzarik ez! Aldiz, begi huts den izakia: zer agortezina bere begiraden mundua, zer neurtezina bere esparrua, zer ugaritasun amaigabean barreiatzen den! Bere hizkuntza (ez dugu horretaz ideiarik ere) fintasun amaigabeko pantomimaren antzekoa litzateke, bere idazkera, berriz, kolore eta arrastoz osaturiko algebra, baina hotsezko hizkuntza inoiz ez! Geu, izaki entzule, erdian gaude:

ikus, ukitu egiten dugu; baina ikusiriko, ukituriko naturak hots egiten du! Hizkuntza irakasten digu, hotsen bitartez! Entzumen bihurtzen gara, nolabait, zentzumen guztien bitartez!

Senti dezagun geure egoeraren erosotasuna, horregatik baita zentzumen bakoitza mintzagarri. Entzumenak berez hotsak bakarrik ematen ditu, noski, eta gizakiak ezin du deus sortu, soilik aurkitu, imitatu. Batean ukimena dago aldamenean, bestean ikusmena: elkartzen dira sentsazioak eta denak hurbiltzen dira seinaleak soinu bihurtzen diren ingurura. Horrela, ikusi eta ukiturikoak ere hots egin dezake. Hizkuntz zentzumena bihurtu da gure zentzumen erdiko eta bateratzailea: izaki mintzodunak gara.

2. Entzumena da erdiko zentzumena argitasun eta gardentasunari dagokienez, eta gainera, hizkuntz zentzumen. Zer iluna den ukimena! Moteldu egiten da, dena nahasian sentitzen du. Zaila da ezagupenezko seinale bat bereiztea: ezin da hitzez adierazi!

Ikusmena aldiz hain argi eta distiratsua da, hainbeste seinale bidaltzen du, non arimak ugaritasun horren aurrean amore ematen duen, eta bakarren bat baino ezin du bereizi, hain modu ahulean non zaila den berrezagutzea. Entzumena erdian dago. Baztertu egiten ditu ukituzko seinale ilun nahasi guztiak! Baita ikusizko seinale xumeegi guztiak ere! Baina objektu ukitu, begiratutik hotsa jaulkitzen dela? Hantxe batzen dira bi zentzumenen seinaleak, seinale-hitza sortuz! Entzumenak, beraz, bi aldeetatik ekiten dio: ilunegia argitu eta distiratsuegia goxatzen du, batasun gehiago dakar ukipenaren ugaritasun ilunera, eta baita ikuspenaren ugaritasun distiratsuegira ere. Eta ugaritasuna ezagutze hori hizkuntza bihurtzen denez seinale batekin, hizkuntz organo da entzumena.

3. Entzumena erdiko zentzumena da bizitasunari dagokionez, eta beraz, hizkuntz zentzumena. Ukimenak gainez egiten digu, ikusmena hotzegia eta axolagabea da; lehenak sakonegi hunkitzen gaitu, hizkuntza bihurtzea galaraziz, bigarrena lasaiegi geratzen da gure aurrean. Geure arima gogotik hunkitzen du entzumenaren hotsak, seinale argi izateraino; baina ez du gortzen seinale argi ez izateraino. Hori da hizkuntz zentzumena.

Zer mugatu, nekagarri eta jasanezina izango litzatekeen guretzat beste edozein zentzumen gordinagoren hizkuntza! Zer nahasgarri eta zoratzekoa litzatekeen guretzat ikusmen finegiaren hizkuntza! Nor ari daiteke etengabe dastatzen, ukitzen eta usaiten, Popek⁴⁰ dioen bezala laster heriotza aromatikoz hil gabe? Eta nor egon daiteke etengabe koloretako pianoari arretaz so, laster itsutu gabe? Aldiz aditu, nolabait esatearren hitzetan pentsatzea aditu bitartean, luzaroagoan eta ia beti egin dezakegu. Arimarentzat entzumena da ikusmenarentzat erdiko kolorea, berdea, bezala. Gizakiari izaki mintzodun izatea dagokio.

4. Kontuan hartuz noiz duen eragina, entzumena da erdiko zentzumena, eta beraz, hizkuntz zentzumena. Ukimenak dena batera botatzen digu, gogotik aztoratzen ditu gure sokak, baina denbora gutxian eta zalapartan. Ikusmenak dena batera aurkezten digu, nahaspilaren alor amaigabe horrekin ikaslea beldurtuz. Entzumenaren bitartez, begira nola artatzen gaituen hizkuntzaren irakasleak! Bata bestearen ondoren eskuratzen dizkio hotsak gure arimari, eman eta ez du nekatzen, eman eta beti dauka emateko gehiago. Metodo egokia darabil: progresiboki irakasten du! Nork ez du horrela hizkuntza bereganatu eta asmatuko?

5. Bere burua adierazteko premiari begira, entzumena da erdiko zentzumena eta beraz, hizkuntz zentzumena. Ukipenaren eragina oso iluna da, eta horregatik ez da zilegi hitzez ematea, hainbeste barneratzen zaigunez! Berekoia eta bere baitan bildua dago! Hizkuntz asmatzailearentzat ikuspena ez dago hitzez ematerik, baina zer behar dago berehala hitzez emateko? Bertan daude gauzak, keinuen bitartez erakuts daitezke! Entzumenaren gauzak, ordea, mugimenduarekin daude loturik: pasaeran joaten dira. Baina horregatik egiten dute hots. Hitzez eman daitezke hitzez eman behar direlako, eta horregatik, hitzez

eman behar direla eta, beren mugimenduagatik, hitzez eman daitezke. Hau hizkuntz gaitasuna!

6. Bere garapenari dagokionez, entzumena da erdiko zentzumena eta beraz, hizkuntz zentzumena. Gizakia zentzumen da osoki: bizitzako lehen momentuaz gero, jaio berriak bezala sentitzen du enbrioia. Hori da naturaren enborra, eta hortik hazten dira sentikortasunaren adaskak; hori da mataza korapilatsua, eta hortik garatzen dira arimako ahalmen finago guztiak. Nola garatzen dira horiek? Bada entzumenaren bitartez, ikusi dugun bezala, zeren lehen sentsazio argien aurrean naturak soinuaren bitartez iratzartzen baitu arima, nolabait ere zentzumenen lo ilunetik iratzarri eta sentikortasun finagorako gai egiten du. Ikusmena, esate baterako, gehiago garatu balitz, edo posible balitz ikusmen hori ukimenetik iratzartzea entzumena ez den beste bide batez, zer pobrezia jakintsua, zer ergelkeria begi-zorrotza! Zer zaila izango litzatekeen horrelako izakiarentzat, oro begi, gizaki izan behar balu, ikusirikoa izendatzea, ikuspen hotza ukipen epelarekin lotzea, gizakiaren enbor osoarekin lotzea! Baina adibidea bera kontraesankorra da; giza natura garatzeko bidea hobe eta bakarra da! Zentzumen guztiek batera dihardutenez, geu, entzumenaren bitartez, beti naturaren eskolan bezala gaude, abstraitzen eta hizketan ikasten; ikusmena fintzen da eta baita arrazoimena ere, arrazoimena eta izendatzeko ahalmena, eta horrela, gizakia fenomeno ikusgarrien ñabardura xumeenetara heltzean, zenbat hizkuntza eta hizkuntz analogia dauden prest! Gizakiak zentzumenetatik fantasia finetarako bidea hartu zuen hizkuntz zentzumenean barrena, eta beraz, ahoskatzen ikasi du, bai dakusana, bai sentitzen duena.

Hari mutur guztiak bildu ahal banitza eta, era berean, agerian jarri giza natura deritzon ehuna, hortxe genuke hizkuntza sortzeko ehuna. Ikusi genuen bezala, pentsatzeko ahalmen positibo horri lekua eta esparrua eman zitzaion, baita bere gaia eta materia orekatu ere, baita itxura eta forma sortu ere, baita azkenik zentzumenak antolatu eta sailkatu ere, hizkuntzarentzat. Horratik gizakiak ez du argiago edo ilunago pentsatzen; horratik ez du zorrotzago, luzaroago edo biziago ikusi eta sentitzen; horratik lehengo zentzumen berak ditu, ez gehiago eta ez besterik, dena orekan! Non hutsunea, han ordezkoa! Asmo jakinarekin ezarri eta banaturik! Batasuna eta harremana! Proporzioa eta ordena! Osotasuna! Sistema! Adimen eta hizkuntzaren jabe den izakia, ezagutza eta hizkuntz sormenaren jabe! Ohar guztiak eginik ere, izaki mintzodun izateko patua ukatu nahi balu norbaitek, beharturik legoke naturaren so egile izatetik suntsitzaile izatera, agerturiko harmonia guztiak hozki-hotsez erraustera, giza ahalmenen jauregi osoa birrintzera, bere sentikortasuna idortzera eta gizakia naturaren maisu-lantzak ez hartzera, baizik huts eta gabezia, ahuldade eta dardarrez beteriko izakitzat! Eta, beste aldetik, hizkuntza ere horrelakoxea bada, nola jaio ahal izan da izaki horren plan eta bultzadatik?

Azken hori frogatzera noa, nahiz eta hemen beste excursus atsegin bat daukadan, eta neurtu egingo dut plazerrari buruzko Sulzeren teoriarekin⁴¹, ea entzumenaren hizkuntzak zer abantaila eta zer erosotasun lituzkeen guretzat, beste zentzumenen hizkuntzaren aldean. Baina excursus-a luzeegia da, eta uko egin behar zaio, oraindik lan handia baitago bide nagusia apailatu eta zuzentzen. Beraz, hasteko:

I. "Zenbat eta zaharragoa eta jatorrizkoagoa hizkuntza, orduan eta nabariago sustraletan zentzumenen analogia!"

Guk geroagoko hizkuntzetan "haserre" bere sustraletan ikusmenaren fenomenotzat edo abstraktutzat karakterizatu arren, adibidez begi distiragatik, masail gorriengatik etab., eta beraz, ikusi edo pentsatu bakarrik egiten badugu, ekialdekoak aditu egiten du! Sudur-txistua aditzen du, dariola aditzen ditu ke erretzailea eta txinpartak barra-barra! Hori izan zen hitzaren enborra: sudurra, haserrearen sorleku. Haserre-hitzen eta haserre-metaforen familia osoak txistuka adierazten du bere jatorria.

Guri "bizitza" pultsazioen bitartez, taupada eta seinale xeheen bitartez agertzen bazaigu hizkuntzan, beste hari, berriz, ozenki arnaska azaldu zitzaion: gizakia bizirik zegoen hatsa bazuen, hilik zegoen hatsik ez bazuen; aurreneko Adanengan bezala aditzen du hitzaren sustraia hats hartzen.

Guk "erditzea" geure eran karakterizatzen badugu ere, beste hark, berriz, izenean bertan amaren beldur garrasiak aditzen ditu, eta animalia bada karena irteten; ideia nagusi honen inguruan biltzen dira bere irudiak.

Guk "egunsenti" hitzean edertasuna, distira, freskura aditzen badugu erdizka, ekialdeko nomada erneak, berriz, hitzaren sustraian bertan sentitzen du aurreneko argi-izpi bizkor, pozgarria, gu bezalakook agian inoiz ikusi ez edo, behinik behin, inoiz zentzumenekin sentitu ez duguna. Hizkuntza zahar eta basatietako adibideak ugari dira, zer bihozkor eta hunkigarri karakterizatzen duten dena entzumen eta zentzumenen bitartez, eta herriz herri halako ideien funtsezko sentsazioak bilatuko litzukeen lana izango litzateke froga osoa nire tesiarentzat eta hizkuntzaren jatorri gizatiarrentzat.

II. "Zenbat eta zaharragoa eta jatorrizkoagoa hizkuntza, orduan eta gehiago gurutzatzen dira sentsazioak hitzen sustraietan!"

Zabaldur ekialdeko hiztegiak nagusiena, onena, eta bertan ikusiko da adierazi-nahi indartsua, asmatzaileak ideiak nola sentsazio batetik atera eta beste bati utzi zizkion, nola gehienetan zentzumen zail, hotz, argienei utzi zizkien, nola dena sentsazio eta soinu bihurtu behar zen, adierazpen bihurtzeko! Hortik datoz hitz-sustraien metafora sendo, zorrotzak; hortik dator sentsazio batetik beste sentsazio batera igarotzea, eta horrela hitz-sustrai baten esanahiak, are gehiago eratorrienak, elkarren ondoan jartzean koadrorik ñabarrena sortzen da. Horren kausa giza arimaren pobretasuna da, eta gizaki moldagaitzaren sentsazio nahasketa. Argi ikusten da bere adierazteko premia. Are nabariago ikusten da hori zenbat eta ideia bat urrunago egon sentsaziotik eta soinutik, eta beraz, ez dago gehiago zalantzan jartzerik hizkuntzaren jatorri gizatiarra. Nola argituko dute, bada, hitz-sustraietan dagoen ideia-elkarlotze hori bestelako jatorriaren defendatzaileek? Ideia eta hitz urriak al zituen Jainkoak, halako hitz erabilpen korapilatsura jo behar izateraino? Edo hiperbole eta zentzugabeko metaforen hain zale ote zen, joera hori bere hizkuntzaren sustrai nagusietan txertatzeraino?

Jainkoaren hizkuntza delakoa, hebraiera, zeharo beterik dago horrelako zorrotzasunez, eta ekialdeak, bere ohoragarri, izendapen hori ematen dio. Baina metafora-joera horri ez gero asiarra deitu, beste inon aurkitzerik ez balego bezala! Basa-hizkuntza guztietan bizi da, baina bakoitzean, noski, nazioaren hezi-maila eta pentsakera bereziaren arabera. Bere sentsazioak anitz eta zorrotz bereizi ez dituen herria, bere burua adierazteko eta besteren adierazpenak bortxaz ebastea bihotzik eduki ez duen herria, gutxiago kezkatuko da ere sentsazioen ñabardurengatik, edo aski iritziko die erdizkako adierazpen ezkutuei. Nazio sutuak bere kementa agertzen du halako metaforetan, nahiz ekialdean nahiz Iparramerikan; baina bere oinarri sakonean horrelako txertaketa gehien erakusten dituen da hasiera batean denetan pobreena, zaharrena, jatorrizkoena, eta hori zalantzarik gabe ekialdean zegoen.

Argi dago zer zaila izango litzatekeen benetako etimologi hiztegia halako hizkuntzan. Erro bakar baten hainbeste esanahi, genealogi taulan eratorri eta beren jatorriraino eramane beharrekoak, harremanean daude beren arteko sentsazio ilunen bidez, pareko ideia iheskorren bidez, arimaren hondotik jaio eta erregeletan nekez jaso daitezkeen inpresio aldiberekoen bidez! Beren harremanak gainera erabat nazionalak dira, herriaren, asmatzailearen pentsa- eta ikusteko eraren arabekoak, lur, garai, zirkunstantzietan errotuak, izugarri zailak imajinatzen ipar edo mendebaldar batentzat, eta esanahia izugarri nagitzen da itzulinguru hotz, luzeekin. Gainera, beharretik jaio zirenez eta adierazpenaren afektuan, sentsazioan, zalantzan izan zirenez asmatuak, zorte

handia behar da sentsazio berdina topatzeko! Eta azkenik, horrelako hiztegian hainbat garai, abagune eta pentsakerako hitzak eta esanahiak bildu behar direnez, eta beraz, instanteko definizio horiek amairik gabe ugaltzen direnez, nola hazten den nekea! Zer zolitasuna behar den zirkunstantzia eta premia horietan sartzeko, eta zer zuhurtzia hainbat garaitako interpretazioei neurri doian eusteko! Zer jakinduria eta arima malgua behar den ateraldi baldar hau, bitxikeria zorrotz hau, garai arrotzetako sentimendu nazional hau isladatzeko eta geure garaira egokitzeko! Baina, horrexegatik, hori eginez gero, ez litzateke soilik herri baten historian, pentsakeran eta literaturan zuzia piztuko, baizik baita ere giza arimaren eremu lausoan, non kontzeptuak gurutzatzen eta korapilatzen diren, non denetarik sentsazioek elkar sortzen duten, non egoera larri batek arimako ahalmen guztiak abiarazten dituen eta bere asmamen guztia erakusten duen. Horrelako lanean urrats bakoitza aurkikuntza bat litzateke, eta ohar berri bakoitza hizkuntzaren jatorri gizatiarraren frogarik sendoena.

Schultensek⁴² ospea jaso du hebraieraren horrelako garapen batzuk xehetzeagatik. Garapen bakoitzak nire erregela frogatzen du. Baina ez dut uste, arrazoi askogatik, lehen giza hizkuntzaren jatorriak, hori hebraiera balitz ere, inoiz osoki xehe daitezkeenik.

Beste puntu bat aurkeztera noa, alde batera ezin utzizkoa hain orokor eta garrantzitsua denez. Hitz-metafora azkarren funtsa lehen asmaketan zegoen; baina nondik nora, gero premia guztiak desagertu direnean, mantendu dira horrelako hitz- eta irudi motak, eta gainera zabaldu eta goratu? Soilik imitatzeke grinagatik edo antzinarekiko maitasunagatik? Ondoren sortzen da zentzugabe gorena, hitz-joko harroa, hasieran ez zegoena. Ateraldi zorrotz, azkar bati bestelako itxura eman eta agian gutxien nahi zena bihurtu zen! Fantasiaren gorentasun baldarra zen halako hitzetan halako sentsazioa nabarmentzen zuena; baina imitatzaille motelek erabiltzean, halako sentsaziorik gabe, halako egoerarik gabe... A!, izpiriturik gabeko anpuluak⁴³! Eta denborak aurrera egin ahala, hori izan da hizkuntza horien guztien patua, beren lehen formak hain azkarrak izan arren. Geroagoko olerkari frantsesak ezin dira hegaldatu, beren hizkuntzaren lehen asmatzaileak ere ez zirelako hegaldatu: beren hizkuntza osoa zentzuzko prosa da eta jatorrian ez du ia batere hitz poetikorik olerkariak asmatu. Baina ekialdekoek? grekoek? ingelesek? eta alemaniarrok?

Ondorioz, zenbat eta zaharragoa hizkuntza, zenbat eta horrelako azkartasun gehiago egon bere sustraian, luzaroan bizi eta luzaroan osatzen joanak, orduan eta gutxiago argitu behar da jatorrizko azkartasun bakoitza, geroko erabilpenean kontzeptu elkar gurutzatu horietako bakoitza momentuero gogoratua balitz bezala. Mintzatzeko grina izan zen hasierako metafora: hitz bat arrunt bihurtu eta bere zorrotzasuna kamustu ondoren hitz horixe joritasun eta energiatzat hartzea berezitasun guztiak lotzeko, horrelako zenbat adibide penagarri dauden lantuka ekialdeko hizkuntz eskoletan!

Areago. Horrelako hitz-lehia azkarretan, esamolde bakarreko horrelako sentsazioaldaketetan, ideien horrelako gurutzaketetan erregularik eta araurik gabe, dogma baten, sistema baten kontzeptu xehe jakinak eranstea, edo iltzatzea, edo handik bilatu beharra, ene Jainkoa, osatzeko bidean dauden edo garaia baino lehen osaturiko hizkuntzako hitzsaio horiek zer gutxi ziren sistemaren definizioak, eta zer maiz gertatzen den hitzezko idoloak sortzea, asmatzaileak edo geroko erabilpenak pentsatu gabeak! Baina horrelako oharak amaigabeak izango lirateke; beste kanon bati heltzera noa:

III. "Zenbat eta jatorrizkoagoa hizkuntza, zenbat eta sarriago horrelako sentsazioak elkarrekin gurutzatu, orduan eta gutxiago sailka daitezke zehaztasunez eta logikaz. Hizkuntza aberatsa da sinonimotan: funtsezko urritasunaren aldamenean alferrikako frankia du".

Jatorri jainkotiarra defendatzen dutenek, denean ordena jainkotiarra aurkitzen dakitenek, nekez aurki dezakete hori puntu honetan eta ukatu egiten dute* sinonimoak daudenik. Ukatu? Orduan, arabiarrek lehoiarentzat dituen 50 hitzetan, sugearantzako 200etan, eztiarentzako 80etan eta ezpatarentzat dituen 1000 baino gehiagoen artean nolaz izan daiteke desberdintasun xumeak aurkitzea, edo garai batean aurkitu baina galdurik egotea? Zergatik zeuden han, galdu behar baziren? Zergatik asmatu zuen Jainkoak alferrikako altxorra, arabiarrek dioten moduan Jainkoaren profetak bakarrik uler dezakeena guztiz eta erabat? Ahanzturaren hustasunean asmatu al zuen? Baina, konparatuz gero, hitz horiek sinonimoak dira, eta, aldiz, beste hainbat ideiaarentzat ez dago hitzik. Ea ordena jainkotiarraz nola argitzen den Hark, hizkuntzaren plana gainbegiratu zuenak, harriarentzat 70 hitz asmatzea eta ideia garrantzitsu, barruko sentimendu eta abstrakzioentzat batere ez?

Hura alferrikako frankiaz gainezkatzea eta hau erabat urri uztea, lapurtzea, metaforak usurpatzea, zorakeria antzekoekin mintzatzea etab.

Giza ikuspegitik bistakoa da. Ideia astun, bakanak adierazi beharra zegoen, eta baita egunerokoak eta arinak ere. Zenbat eta ezezagunagoa natura, zenbat eta alderdi gehiagotatik esperientziarik gabe begiratu eta ozta-ozta berrezagutu, a priori ez baizik sentimenduzko zirkunstantzien ondoren zenbat eta gehiago sortu, orduan eta sinonimo gehiago! Zenbat eta gehiago sortu, orduan eta herrari eta separatuagoak, baina, hala ere, sarritan gauza berdinsuak izendatzen zituzten; ondoren denak batuz gero, hizkuntzak hiztegiko itsasora jarioz gero, are eta sinonimo gehiago! Denak ezin baztertu eta, zein bai? Leinu honek, familia honek, olerkari honek erabiltzen zituen; ondorioz, miseriaren 400 hitz zenbatu zituen hiztegiak arabiar hark dioen bezala, 401garren miseria da miseriaren hitzak zenbatu beharra⁴⁴. Horrelako hizkuntza aberatsa da pobrea delako, bere asmatzaileek artean ez zutelako pobre izateko plan aski. Eta hizkuntza hain imperfektuaren asmatzaile patxadatsua nor eta Jainkoa?

Basa-hizkuntza guztien analogiek nire tesia baieztatzen dute: bakoitza oparo eta urria da, baina bakoitza modu berezian. Arabiarrek hainbeste hitz baldin baditu harri, gamelu, ezpata, sugearentzat (bere inguruko gauzak!), era berean, zingalesera, herriaren joerari jarraituz, aberats da balaku, titulu eta hitz handioetan. "Andereño" hitzarentzat, kondizio eta mailaren arabera hamabi mota desberdineko hitzak ditu, eta alemaniar zakarrok gure auzoengandik hartu behar. Kondizio eta mailaren arabera "hi" eta "zuek" zortzi modu desberdinetan esaten dituzte, bai jornalariak, bai gortesauak: nahaspila da hizkuntzaren forma. Siamen zortzi modu desberdin daude "ni" eta "gu" esateko, nagusiak mirabearekin edo mirabeak nagusiarekin mintzatu. Karibe basatiko hizkuntza ia bitan dago zatiturik, emakumeen hizkuntza eta gizonena, eta gauzarik arruntenei, "ohe", "ilargi", "eguzki", "arku", desberdin irizten diete: sinonimoak gainezka! Eta, beste aldetik, karibe horiek lau hitz besterik ez dituzte koloreentzat, eta horiekin lotu behar dituzte beste guztiak: zer pobretasuna! Huroiek aditz bikoitza dute gauza bizia ala bizigabea izan, eta horrela "harria ikusi" eta "gizakia ikusi" aldatu egiten da "ikusi" hori. Jarraitu horrekin natura guztian barrena: zer aberastasuna! "Norbere ondasunaz baliatu" ala "mintzola lagun dugunarenaz baliatu", bi hitz desberdin dira. Zer aberastasuna! Peruko hizkuntza nagusian hain berex izendatzen dira sexuak, non mutilaren arrebari eta neskaren ahizpari, aitaren umeari eta amarenari desberdin esaten zaion, eta, beste aldetik, hizkuntza honek ez du benetako pluralik! Sinonimia horietako bakoitzak zerikusi handia du herriaren ohitura, izakera eta jatorriarekin; baina denean azaltzen da giza arima asmatzailea. Beste kanon bat:

IV. "Giza arima heltzen denean izpirituaren erresumara, zentzumenen eragin eta bultzadarik gabe ezin da oroitu abstrakzio bakar batez ere, eta, halaber, hizkuntza bakar batek ere ez du abstrakziorik, hots eta sentsazioen bitartez eskuratu ez duenik. Eta zenbat eta jatorrizkoagoa hizkuntza, orduan eta abstrakzio gutxiago, orduan eta sentsazio gehiago". Alor amaigabe honetan ere lore banaka batzuk besterik ezin ditut bildu:

Ekialdeko hizkuntzen egitura osoak erakusten du abstrakzio guztiak lehenik inpresioak zirela: izpiritua "haize" zen, "hats", "gau-ekaitz"!; saildu-ri "berex", "bakarti" irizten zitzaion; arima-ri, "arnasa" irizten zitzaion; haserre-ri "sudur-txistu" etab. Kontzeptu orokorrak geroago osatu ziren, abstrakzio, jeinu, imajinazio, konparazio, analogia eta abarren bitartez. Ez dago bakar bat hizkuntzaren osin sakonean!

Beste hainbeste gertatzen da basati guztien artean, kultura mailaren arabera. Barantolako hizkuntzan ez zegoen "saildu" hitza, eta hotentoten artean "arima" hitza ere ez. Munduko parte guztietan misiolari guztiak kexatzen dira basatiei beren hizkuntzaz kristau kontzeptuak adierazteko zailtasunaz, nahiz adierazpen horiek ez

liratekeen inoiz dogmatika eskolastikoa izango, baizik eta adimen arruntaren kontzeptu arruntak soilik. Baldin basatien artean, baita Europako hizkuntza landugabeen artean ere, hala nola laponieran, suomieran, estonieran, nire lan honen frogak han eta hemen itzulirik irakurriz gero, eta herri horien gramatikak eta hiztegiak ikusiz gero, orduan antzematen dira zailtasunak.

Misiolariei ez sinetsiz gero irakur filosofoak, Condamine Perun eta Amazonas ibaian, Maupertuis Laponiar⁴⁵ etab. "Denbora", "iraupen", "leku", "izate", "gai", "gorputz", "bertute", "zuzentasun", "askatasun", "esker on", ez daude peruarren mihitan, nahiz beren zuhurtziaren bidez sarritan erakutsi kontzeptu horiei jarraituz jokatzen dutela, eta beren ekintzen bidez erakutsi bertuteen jabe direla. Ideia bat ez bada seinale gisa argi nabarmendu, ez dute horrentzako hitzik.

Jatorriari begiraturik argi ikusten da horrelako hitzak hizkuntzara nondik helduak diren. Nazio errusiarraren eliz hizkuntza grekoa da bereziki; letoniarren kristau kontzeptuak alemanierazko hitzak dira, edo alemanierazko hitzak letonieraturik. Mexikarrak, bekatar gaixoaren berri eman nahian, hura belauniko margotzen du, konfesatzen, eta trinitatea, berriz, hiru aurpegi distiratsu bezala. Gauza jakina da zer bidetatik heldu diren abstrakzio gehienak gure zientzi hizkuntzara, teologia eta jurisprudentziara, filosofia eta bestetara. Gauza jakina da zenbat aldiz eskolastiko eta polemistek ezin izan zuten beren hizkuntzako hitzekin lehiatu, eta beraz, bestetara joan behar izan zuten lehiarako armen bila (hipostasi eta substantzia, ομοουσιος eta ομοιουσιος⁴⁶), haiekin kontzeptuak abstraituz, haiekin lehiarako armak zorrotz! Geure psikologia osoak, hain landua eta finkatua egonik ere, ez du hitz propiorik.

Hainbestearino da hori egia non bisionari eta estasiatuentzat ere ez den posible natura, zero eta ifernuko beren sekretu berriak irudirik eta ideia sentikorrik gabe azaltzea. Swedenborgek⁴⁷ ezin zituen bere aingeru eta izpirituak susmatu ere egin ez bazen zentzumen guztien bitartez, eta Klopstock gorenak, berea da antitesi handiena!, ezin zuen bere zero eta ifernua eraiki ez bazen material sentikorrekin. Beltzak zuhaitz gailurretik behera susmatzen ditu bere jainkoak, eta Chingan-ekoak oihaneko zalapartan aditzen du deabrua. Herri desberdin eta hizkuntza desberdinen horietako abstrakzio batzuk aztertutak ditut eta giza arimaren asmakizun-bide bitxi askoak jasoak ere bai; oso gai zabala da; funtsa beti berdina. Zerbaitek izpiritua duela uste duenean basatiak, egon behar du zentzumenezko zer edo zer hor, izpiritua abstraitu den lekuan. Baina abstrakzioak hainbat eta hainbat modu, maila eta metodo ditu. Bere hizkuntzan nazio batek abstraitzen ikasiaz gain beste hitzik ez edukitzearen adibide soilena zenbakiak dira, zalantzarik gabe oso abstrakzio soilak. Basati gehienek, beren hizkuntzak nahi bezain aberats, bikain eta landu izanagatik, inoiz ez dituzte behar baino gehiago. Merkatarari feniziarra izan zen lehena zenbaketa asmatzen. Abeltzainak ere ikasi zuen kontatzen. Nazio ehiztariak, inoiz negozio mardulik egin gabeek, ez dakite armada deskribatzen, non eta ez den buruko ileak adina bezala! Nork konta dezake, nork ditu hitz egokiak ez badu inoiz hainbeste arte kontatu?

Posible al da izpiritu ibiltari, hizkuntz sortzailearen zantzu horiei guztiei ezikusia egitea eta jatorria hodeietan bilatzea? Hitz bakarra bada ere, zer nolako frogak dago Jainkoak asmatu duela? Ba al dago hizkuntzaren batean kontzeptu garbi orokorrik gizakiari zerutik heldu zaionik? Nola izan daiteke posible?*

Eta, aldiz, zenbat eta zenbat arrazoi, analogia eta frogak kokatzen du hizkuntzaren genesisia giza ariman, giza zentzumenei eta ikuspuntuei jarraiki! Zenbat eta zenbat froga hizkuntzen aurrerabideari buruz arrazoimenaren eskutik, eta hortik datorkion bilakaerari buruz herri, bazter eta egoera guztietan! Zer belarrik ez du aditzen nazioen ahots orokor hori?

Hori horrela, harritu egiten nau Süssmilch jauna berriro nirekin topatzeak eta berak ordena jainkotiarra aurkitzeak, nik erabat gizatiarra kausitzen dudan lekuan*. "Arte eta zientziarako moldagaitza den hizkuntzarik kausitu ez izanak" zer adierazten du, non eta ez den ez dagoela hizkuntza animaliazkorik, denak direla gizatiarrak? Izan ere, non kausitu da gizakia arte eta zientziarako moldagaitza? Eta zer da hori, mirakulua ala gauzarik arruntena, gizaki denez? "Misiolariak herri basatiekin mintzatu eta horiek konbentzitu ahal izan dituzte; hori ezin da gertatu arrazoimen eta argudiorik gabe: beraz, beren hizkuntzek términos abstractos eduki behar zituzten etab.". Eta orduan ordena jainkotiarra ote zen? Ez ote zen gauzarik arruntena hitzak abstraitzea beharrezko zirenean? Eta zer herrik eduki du inoiz bere hizkuntzan abstrakziorik, berak erdietsia ez denik? Eta kopuru berdina al zegoen herri guztietan? Misiolariek erraztasun berdinez adierazi ote zitzaizkien beren buruak leku orotan, ala alderantzizkoa ezagutu da munduan zehar? Eta kontzeptu berriak analogiaz taxutzen zituztenean nola adierazten zituzten beren buruak? Eta modu berdinean gertatzen al zen hau leku orotan? Makina bat zeresan balegoke horretaz! Ondorioak alderantziz dio. Abstrakziorik gabe giza adimenik ezin delako izan, eta hizkuntzarik gabe abstrakziorik ez, orduan herri guztien hizkuntzak abstrakzioak eduki behar ditu, alegia arrazoimenaren kopia izan behar du, haren tresna izan baita. Baina horien kopurua herriak sortzen jakin dituenaren arabera denez gero, eta ez dagoenez gero bakar bat ere zentzu-

menen bitartez egina ez denik, horixe erakutsi ohi baitu jatorrizko esamolde sentikorrak, orduan ez da inon ageri ordena jainkotiarrik, horrainokoan hizkuntza guztiz gizatiarra da.

V. Azkenik: "Gramatika bakoitza hizkuntzari buruzko filosofia eta bere erabileraren metodoa besterik ez denez, orduan, zenbat eta jatorrizkoagoa hizkuntza, orduan eta gramatika gutxiago egon behar du bertan, eta gure aurreko naturaren hiztegia da antzinakoena!". Beste alderdi batzuk aipatzera noa.

1. Deklinabideak eta aditz-jokoak ez dira izen- eta aditz erabileraren laburdurak eta erabakiak besterik, numero, denbora eta modu eta pertsonaren arabera. Hala, zenbat eta landugabeagoa hizkuntza, orduan eta irregularragoa da, erabaki horietan urrats bakoitzero agertzen du giza arrazoimena. Erabili ezean, hiztegi hutsa da.

2. Hizkuntzako aditzak lehenago direnez hauengandik abstraituriko izenak baino, beraz, hasieran hainbat eta aditz-joko gehiago, zenbat eta gutxiago jakin kontzeptuak bata bestearen azpian sailkatzen. Zenbat dituzten ekialdean! Eta berez ez dira deus, hainbeste aditz txertaketa eta nahas-mahas dagoenez aditz-joko batetik bestera! Guztiz naturala da arazoa. Izan ere, gizakiarentzat ez dago deus interesgarriago eta adierazkorragorik kontatu beharrekoa baino, ekintzak, ihardunak, gertaerak, eta horrela hasieran hainbeste ekintza eta gertaera biltzen da non aditz berria sortzen den ia egoera bakoitzarentzat. "Huroieraz dena jokutzen da. Argi azaltzerik ez dagoen modu batez, aditzak bereizi egiten dira izen, izenorde eta adberbiotik. Aditz soilik joko bikoitza dute, norberarentzat eta besterentzat. Hirugarren pertsonak bi generoak ditu. Denborari dagokionez alderik txikienak aurki daitezke, grekoan bezalatsu; hala, bidaia baten kontraera egin nahi denean, desberdin adierazten da lehorrean barrena ala uretan barrena. Ekintzako gauzak bezainbeste ugaritzen dira aditz aktiboak; "jan" hitza aldatu egiten da janari bakoitzarekin. Gauza biziaren ekintza bizigabearena ez bezala adierazten da. Bi esamolde daude norberaren ondasunaz baliatu ala mintzologunarenaz baliatu, etab.⁴⁹". Begira aditz, modu, denbora, pertsona, egoera, sexu eta abarren ugaritasun horri, zer lana eta trebezia hori dena nolahala sailkatzeko! Hiztegi besterik ez zenetik nolahala gramatika egitea! Horixe bera erakusten du Brasilgo topinanbuen P. Lery-ren gramatikak! Izan ere, giza arimaren lehen hiztegia natura hotsegile, ihardulearen epopeia bizia zenez, hala, aurreneko gramatika ez zen ia ahalegin filosofikoa besterik epopeia hori historia erregular bihurtzeko. Aditzekin soilik egiten du beraz lan, poesiarako agortezina den kaosean, gero ordenatuago dagoenean oso aberatsa izango dena historia zehazteko, eta azkenean, berriz, axioma eta frogatarako erabilgarria.

3. Natur hotsa zuzenean imitatzetik etorritako hitza, lehenalditik zetorren: iraganaldiak dira, beraz, aditzen sustraiak, baina iraganaldi horiek ia orainaldiraino balio dute. A priori datu hori bitxia eta esplikaezina da, orainaldiak izan behar bailuke aurrenekoa, geroago osaturiko hizkuntza guztietan bezala; ezin beste inolaz izan hizkuntz asmaketaren historiari jarraituz. Orainaldiak erakutsi egiten du, baina iraganaldia kontatu egin behar da. Eta hori hainbeste modu desberdinez konta zitekeenez, eta hasieran hitzak aurkitzeko premian hainbeste erataria egin beharra zegoenez, hala, hizkuntza zahar guztietan anitz iraganaldi sortu ziren, baina orainaldi bakarra edo batere ez. Garai aurreratuetan hori mesede handia izan da poesia eta historiarako, baina mesede txikia filosofiarako, hau ez baita pila nahasgarrien zale. Horretan ere berdinak dira huroi, brasildar, ekialdeko eta grekoak: denean giza arimaren zantzuak!

4. Hizkuntza filosofiko berriago guztiek xeheago aldatu dute substantiboa, aldiz aditza gutxiago baina erregularrago; izan ere, non zer den eta zer izan den begiratzeko joera hotza landu baitu hizkuntzak, eta ez hainbeste nahasketa mordoilo irregularra, alegia zer izango zen bere hartan geratu balitz. Horrela gizakia ohitu egin zen gauzak bata bestearen atzetik esaten, eta numeroa, artikulua, kasua etab. erabiliz zehazten.

Aspaldiko asmatzaileek dena batera esan nahi zuten*, ez soilik zer egin zen, baizik nork, noiz, nola eta non gertatua zen. Izenean egoera ipintzen zuten, beraz, eta aditzaren pertsona bakoitzean generoa; preformatibo eta aformatibo, artizki eta atzizkien bitartez egiten zituzten bereizketak. Aditza eta adberbioa, aditza eta izena, dena elkarrekin dariola. Denboraren poderioz, gehiago bereizi eta xehetu zen: hasperenetik artikulua jaio ziren, hasieretatik pertsonak, luzapenetatik modu edo adberbioak; mintzoko zatien jarioa sakabanatu egin zen: emeki-emeki gramatika bilakatu zen. Mintzatzeko trebezia hau, beraz, hizkuntz filosofia hau pixkana eta pausoz pauso osatu zen mende eta aroetan barrena, eta gramatikaren benetako filosofia hartan, mintzatzeko trebezia hartan pentsatu zuen lehen buru izandako hark lehenik mintzoaren historia herriz herri eta mailaz maila hausnartu bide zuen. Esku artean horrelako historia bagenu, hizkuntz gizatasunari buruzko mapa izango litzateke bere aurrerapen eta desbideratze guztiekin.

5. Baina nola iraun ahal izan du hizkuntzak batere gramatkarik gabe? Irudi- eta sentsazio jarioa inongo lotura eta finkapenik gabe? Bientzat zegoen konponbidea: hizkuntza bizia zen. Jokaeren batasun handiak eman zuen neurria eta non kokatzeko esfera; eta hiztegiko zehaztasun ugariak ordezkatu zuen gramatika. Begira mexikarren idazkera zaharrari! Banakako irudiak soilik margotzen dituzte. Irudirik bururatzen ez zaienerako ados jarri dira zenbait arrastori buruz, eta munduak, iragarritz, denentzako lotura eman behar du. Iragartzeko ahalmen hau, alegia banakako ikurretatik loturak asmatzea, zer urruti eraman dezaketen gorrek eta mutuek banaka! Eta ahalmen hori hizkuntzako zati bada, gaztetatik ikasiko da hizkun-

tzarekin batera; arinduz eta hobetuz badoa sexuen tradizioa dela medio, ez dut deus ulertezinik ikusten. Zenbat eta arinduago, ordea, orduan eta urriago, orduan eta gramatikalago: horixe da giza izpirituaren aurrerabidea!

Horren frogak dira adibidez De la Loubèren oharra: siameraz: zenbat antz duen oraindik ekialdeko loturekin, geroko heziketaren bidez handik are gehiago jaso aurretik batez ere. Siamdarrak esan nahi duenean: "Siamen banengo, pozik nengoke!", zera esaten du: "Baldin ni egon hiri Siam; nik ongi bihotz asko!". Aitagurea errezatu nahi eta zera esan behar du: "Aita, guri izan zeru! Izena Jainkoaren nahi sainduak leku guztietakoak etab". Zer ekialdeko eta jatorrizkoa den hori! Dena elkarri loturik, irudizko idazkera mexikarrean edo ezjakinak hizkuntza arrotza toteltzen duenean bezalaxe!

6. Beste bitxikeria bat azaldu behar dut, Süssmilch jaunaren ordena jainkotiarrean txarki ulerturik dagoena: "hitzaren esanahi ugariak, artikulazio txikien arteko diferentziengatik"! Trikimailu hori aurkitzen dut ia basati guztiakin aipaturik, adibidez Garcilaso de la Vegak peruarrez, Condaminek brasildarrez, la Loubèrek siamdarrez, Resnelek⁵¹ iparramerikarrez. Hizkuntza zaharretan ere aurkitzen dut, adibidez txineran eta ekialdean, batez ere hebraieran, non hots txiki batek, azentuak, hasperenak esanahi guztia aldatzen duen, eta niri oso gizatiarra iruditzen zait hori, asmatzailearen urritasun eta erosotasuna! Hitz berria behar eta hain zaila denez deusezetik asmatzen ihardutea, agian hasperena soilik aldatu eta antzekoa hartu zuten. Aurrezki-legea zen hori, hasierako beren sentsazio elkarjosientzat oso naturala eta beren ahoskera gogorrari begira ere egoki samarra; baina arrotzarentzat, gaztetatik belarria hartara ohitu gabe eta hizkuntza nagikoa, hotsa erdizka ahoan geratu ohi zaionari, horri aurrezki- eta urritasun-legeak ulertezin eta ahoskaezin egiten dio mintzoa. Gramatika osasuntsuak hizkuntzak zenbat eta hobeki hornitu, orduan eta gutxiago izango du murritasun horren premia, beraz asmaketa jainkotiarrean ez bezala, non asmatzailea oso motel aritu zen horrelakoen premia eduki bazuen.

7. Azkenik, hizkuntz garapena arrazoimenaren bidez eta arrazoimenaren garapena hizkuntzaren bidez beste inolaz baino nabariagoa da, hizkuntzak urrats batzuk emanak baldin baditu, honengan jada artearen zatiak baldin badaude, adibidez ipuinak baditu, idazketa asmatu baldin badu, idazkera motak bata bestearen ondoren sortu baldin badira. Izan ere, ezin da urratsik eman, hitz berririk asmatu, forma berri egokirik indarrean jarri, ez baldin badarama giza arimaren zigilua. Olerkien bitartez heldu zen silaba-neurria hizkuntzara, hitz eta kolore bortitzenen aukera, irudien ordena eta indarra; ipuinen bitartez heldu zen denbora-desberdintasuna, esamolde zehatza; eta azkenik hizlariaren bitartez heldu zen periodoak osoki borobiltzea. Horrelako gehiketa baino lehenago antzeko beste deus ez zegoenez hizkuntzan, baizik dena giza arimak ekarria zenez eta ekar zezakeenez: non jarri mugak sorketa honi, emankortasun honi? Nola esan: hemen hasi zen giza arima lanean, baina lehenago ez? Denetan zehatzena, zailena asmatu ahal izan badu, zergatik ez errazena? Zerbait gauzatu baldin bazezakeen, zergatik ez ahalegindu, zergatik ez hasieran eman? Izan ere, hasiera ez zen hitz bakar baten produkzioa besterik, arrazoimenaren zeinu gisa, eta horren beharra zuen arimak, bere baitanitsu eta mutu, arrazoimenaren jabe zen heinean.

Nire ustez, gizakiak hizkuntza asmatzeko duen ahala frogaturik geratu da orain arte esan dudanarekin, barrutik giza arimagatik, kanpotik gizakien organizazioagatik eta hizkuntza eta herri guztien arteko analogiagatik, bateko mintzoaren osagaiak direla, besteko hizkuntzak arrazoimenarekin eginiko aurrerapen handia dela, eta, ondorioz, gizakiari arrazoimena ukatzen ez dionak, edo, gauza berdina dena, arrazoimena zer den dakienak, eta gainera hizkuntz elementuez filosofikoki kezkatzen denak, eta horretaz gain lurgaineko hizkuntzen izaera eta historiaren begirale erne denak, horrek ez du zalantza arrastorik edukiko nik beste hitzik gaineratu gabe ere. Hizkuntza giza ariman

sortu izana frogatu egin daiteke, edozein froga filosofiko bezala, eta garai, hizkuntza eta herri guztien kanpoko analogiak historiako datu seguruenak adinako probabilitate maila dauka. Alabaina, objekzio guztiei behin betiko aurre egiteko eta tesi hori kanpotik ere egia filosofikoa bezain segurua izan dadin, froga dezagun, kanpoko zirkunstantzia guztietatik eta giza naturaren analogia osotik, "gizakiak bere hizkuntza asmatu behar izan duela eta zein zirkunstantzien pean asmatu ahal izan duen modurik egokienean".

BIGARREN KAPITULUA

Nondik nora asmatu ahal eta behar izan duen

gizakiak hizkuntza modurik egokienean

Naturak ez du ematen alferrikako ahalmenik. Beraz, ez bazizkion gizakiari eman hizkuntza asmatzeko gaitasun hutsak soilik, baina gaitasun hori egin bazuen bere izatearen bereizgarri eta bere ihardun bikainaren pizgarri, orduan ahalmen hori bizirik etorria zen naturatik, eta eragin zezakeen esferan egon behar zuen ezarririk. Hizkuntza sortzeko ernamuinaren jabe munduratu zenez gizakia, zehatzago azter ditzagun zirkunstantzia eta bultzada horiek, beraiek eragin baitzuten gizakiagan hizkuntza, eta bultzada horiek anitz direnez, bere natura eta espeziearen lege nagusitan sailkatuko ditut.

Lehen lege naturala

Gizakia pentsamendu libreko izaki ekintzailea da, eta bere indarrek progresioan dihardute lanean; horregatik da hizkuntzaren jabe!

Animalia biluzi eta instintu gabeko gisa, izakirik gaixoena da gizakia. Ez dago inongo bultzada lauso, sortzezkorik, bere ingurugiro eta ekintza-esparruan laguntzen dionik bere mantenu eta zereginetan. Inongo usaimen eta usnarik ez, gosea asetuko dioten zuzterretara gidatzeko! Inongo irakasle itsu, mekanikorik ez, habia egingo dionik! Ahul eta menperaturik, elementu latzak, gosea, arrisku guztiak, animalia indartsuago guztien atzaparrak, hamaika heriotza-moduren aurrean dago hortxe abandonaturik! bakar-bakarrik! Kreatzailearen lezio zuzena eta haren esku gidari segururik gabe, alde guztietatik galdurik...

Irudi hori kolore biziz margoturik ere, ez da gizakiaren irudia, bere azalaren alderdi bat besterik ez da, eta gainera argi okerrean dago ipinirik. Adimena eta bereizmena baldin bada bere espeziearen dohain naturala, orduan berehala kanporatu beharko luke beronek, zeren bere sentikortasun ahula eta eskasia penagarri guztiak ere kanporatuta baitzeuden. Kreatura instintu gabe eta gaixoa, naturaren eskuek zeharo abandonatua, hasiera-hasieratik zen pentsamendu libreko izaki arrazoiduna, bere burua aurrera atera beharrean zegoena. Animalia mailako akats eta urritasun guztiak motibo larriak ziren ahalmen guztiak hartu eta gizaki gisa agertzeko; gizakiaren ahalmen horiek ez ziren animalia perfekzio handiagorik gabe utzi izanaren ordain ahulak, gure filosofia berri animalizale handiak dioen bezala, baizik parekatzerik ez dagoen beste izaera baten adierazleak! Bere pisuaren erdigunea, bere arimako ekintzen norabide nagusia adimen horretan kokatu zen, giza bereizmenean, erlearen kasuan miazkatu eta etxe-eginean bezala.

Hala, frogaturik baldin badago adimena ezin zela inolaz ere ihardun hitzik gabe, orduan lehen hausnarketa-momentua hizkuntz sorreraren momentua ere izan zen.

Lehen hausnarketa argi honi nahi hainbat denbora utzirik ere, Buffonen esanetan (baina berak baino filosofia txukunagoz) kreatura sortu horri pixkana bere burua osatzen utzirik ere, ez dago ahazterik unibertsoa jaiotako hori aurreneko momentutik ez dela animalia, baizik gizakia, ez kreatura hausnarketaduna, baizik bereizmenduna. Ez makina handi, astun, baldarraren antzekoa, ibili behar eta atal nagiengatik ibili ezin dena, ikusi, aditu, dastatu behar eta begietan humore nagiak, belarri gogortua eta mihi harri-bihurtuagatik horietako batere ezin eginik dabilena. Gisa horretako zalantzak egiten dituztenek kontuan hartu beharko lukete gizaki hori ez datorrela Platonen leizetik, espetxe ilunetik, non bizitzaren aurreneko momentuaz gero eserita egon den urtetan eta urtetan argirik gabe, mugitu gabe, begiak zabalik baina itsu, gorputzadarrak osasuntsu baina baldar, baizik naturaren eskuetatik datorrela, bere indar eta humoreak guztiz sendo eta gehigarri onenen jabe, aurreneko unetik bere burua aurrera ateratzeko. Lehenengo osatze-momentu horietan arrazoimen sortzailea bide zen nagusi. Baina ez da

filosofiaren zeregina lehen momentu horien miresgarritasuna argitzea, sorrera bera argitu ezin duen bezala. Filosofiak gizakia ekintza libreko lehen momentuetan hartzen du, izate osasuntsuaren lehen sentrazio osoan, eta giza ikuspegitik soilik argitzen ditu momentuok.

Orain arestikoa aipa dezaket. Hemen ez denez gertatzen zentzumenen bereizketa metafisikorik; izan ere, makina osoak sentitzen duenez eta sentrazio lausotik abiatuta iristen duenez hausnarketa, eta gainera puntu honek, lehen seinale argiaren sentrazioak begi eta ukipen arteko erdiko zentzumena topatzen duenez, alegia entzumena, hala, hizkuntz genesisia barru-barruko premia da, heldutasun momentuan enbrioia jaiotzeko premia bezala. Natura osoa oldartzen da gizakiaren gainera, honek bere ahalmenak, bere zentzumenak gara ditzan gizaki izateraino. Eta egoera horretatik hizkuntza nola hasten den, horrela garatzen du bat bederak hizkuntza, giza arimako egoeren kateatik abiatuz. Argi utzi nahi dut ordena naturalaren lege garrantzitsu hori.

Animaliek beren pentsamenduak ilun edo argi lotzen dituzte, baina ohartu gabe. Beren bizimodu eta garunagatik gizakiarekin antz gehien duten espezieek, kanpoko animaliek, sarritan oroimen handia, gogoramen handia eduki arren, eta zenbait kasutan gizakiak baino sendoagoa, hala ere, gogoramen hori beti zentzumenen bitartez da, eta ezeinek ez du inoiz ekintzaren batean oroimen hori agertzera eman bere espeziea hobetzeari begira, eta ezta esperientziarik orokortu ere gero erabili ahal izateko. Zakurrak ezagutzen du bera jotzeko keinua, eta azeriak badaki alde egiten bera jazarri duten ataka gaiztotik; baina bakar batek ere ezin du gogoeta orokorrik egin, alegia jotzeko keinu mehatxagarri hori eta ehiztarien maltzurkeria hori betiko nola ekidin. Banakako kasu sentikorretan soilik geratu zen beraz zintzilik, eta bere oroimena ez zen izan kasu sentikor horien segida besterik, produzituz eta erreproduzituz, baina hausnartuz lotuak inoiz ez: batasun argirik gabeko ugaritasuna, oso irudikapen bizi, argi, sentikorren ametsa, baina ernetasun gardeneko lege nagusirik gabe, amets hori ordena lezakeenik.

Espezie eta klase horien artean, noski, alde handia dago. Zenbat eta murriztagoa esparrua, zenbat eta gogorragoa sentikortasuna eta sena, zenbat eta uniformeagoa trebetasuna eta bizitzaren iharduna, orduan eta gutxiago antzeman daiteke, behintzat geuk, esperientziaren bidezko progresiorik txikiena. Erlea umetan bezala ari da etxe-eginean zahartzean, eta kreazioaren hasieran bezalaxe arituko da etxe-eginean mundua amaitzean. Jainkoaren perfekziotik datozen banakako puntuak dira, argi-txinpartak, baina beti banaka ematen dute argi. Azeri zailduak, berriz, umegorriak ez bezala antzematen dio ehizari: alde zurretik anitz maltzurkeria ezagutzen du eta haiei ihes egiten saiatzen da, baina nondik ezagutzen ditu? Eta nolatan saiatzen da haiei ihes egiten? Aldez aurretik zuzenean ikasiak dituelako eta esperientzia horretatik zuzenean jarraitzen diolako ekintza horren legeari. Ez dago inoiz gogoeta nabaririk, zeren ez al dira beti azeri zuhurrak xaxatuak izan munduko lehen ehiztariek egiten zuten bezalaxe? Bistan da, gizakiagan beste lege natural bat nagusitzen da bere ideien segidan, bereizmena; egoera sentikorrenetan ere nagusitzen da, gutxiago antzeman arren. Munduratzean izakirik ezjakinen bada ere, berehala bihurtzen da naturaren ikasle beste animaliak ez bezalako moduan. Ez du ikasten egunero, baizik egunak dituen minutu bakoitzero, pentsamendu bakoitzero. Bere arimaren berezko trebezia da, ez momentu jakin honixe begira ikastea, baizik den-dena sailkatzea, bai lehendik jakindako gauza bezala, bai hurrengo batean hari berriro heltzeko bezala; bere jabetzak aztertzen ditu, beraz, jada bilduak edo biltzekoak, eta beraz, tinko biltzen duen ahalmena izango da. Katea horrek heriotzaraino darrai: ez da inoiz gizaki oso, nolabait esatearren, baizik beti garatzen, aurreratzen, hobetzen ari dena. Ekintzak bata bestetik jaikitzen dira, bata bestearen gainean altxatzen, bata bestetik garatzen dira. Aro eta garai bakoitza guk oharmen-mailaren arabera izendatzen dugu, baina horiek, gizakiak ez duenez inoiz

sentitzen hazten doala, baizik eta hazi dela, milaka puskatan zati daitezke ere. Beti haurtzarotik hazten gara, eta edozein adin dugula ere, beti bidean goaz, egonezinik, asezinik. Gure bizitzaren berezkotasuna ez da inoiz plazerra, baizik beti progresioa, eta ez gara inoiz gizaki izan harik eta... amaieraraino bizi arte; erlea, ordea, erle zen lehen gelaska egin zuenean.

Ez da garai guztietan berdin antzematen, noski, hobetzearen lege hau, bereizmenaren bidez progresatze hau; baina gutxiago antzemanagatik ez al dago hor? Ametsean, amets pentsakorrean, gizakiak ez du pentsatzen esna dagoenean bezain txukun eta argi, baina, hala ere, gizaki gisa jarraitzen du pentsatzen, tarteko egoeran dagoen gizaki gisa, inoiz ez animalia huts gisa. Osasuntsu dagoen norbaitengan ametsek lotura-erregela bat eduki behar lukete, bere esnatuzko pentsamenduetan bezalaxe; baina ezin du erregela bera izan edo eragin hain uniformeak eduki; salbuespen horietan erakusten dute lege nagusiaren balioa, eta gaixotasun nabariak eta egoera ez naturalek, zorabioek, eraldiek, etab. are gehiago erakusten dute. Arimaren ekintza bakoitza ez da zuzenean hausnarketaren ondorio; baina bai bereizmenaren ondorio; gizakiaren nola gertatzen den ikusirik, bakar bat ere ezingo litzateke kanporatu gizakia gizaki ez balitz eta lege natural horren arabera pentsatuko ez balu.

Gizakiaren lehen hausnarketa egoerarik eman ezin zenez arimako hitzik gabe, orduan bere baitako bereizmen egoera guztiak mintzatzeko modukoak izango dira: bere pentsamendu-katea hitz-katea izango da.

Zer esan nahi dut horrekin, bere sentsazio lausoen sentsazio bakoitza gizakiak hitz bihur zezakeela edo ezin zituela sentitu hitzaren bitartez ez bazen? Ez luke zentzurik hori esateak, frogaturik baitago alderantzizkoa: sentsazio lausoen bitartez soilik hunkitzen gaituenarentzat ez gara hitzik edukitzeko gai, hori ez baita seinale argirik edukitzeko gai. Beraz, gizakiaren oinarria, borondatezko hizkuntzaz mintzatzen bagara, adierazteazina da. Baina oinarria al da irudi osoa? Funtsa, zutabe osoa? Hala, bere natura osoaren arabera, lausoki sentitzen duen ostra al da gizakia? Har dezagun bere pentsamenduen hari osoa: bereizmenak zeharkatzen duenez alderik alde, beragan ez dagoenez egoera bakar bat ere orokorrean harturik hausnartu ezin edo, behinik behin, hausnarketa argitu ezin denik, beragan ez denez ukipena nagusi, baizik bere naturaren funtsa zentzumen finagoetan dagoenez, alegia ikusmen eta entzumenean, eta horiek etengabe hizkuntza ematen diotenez: ondorioz, eta oro har, giza ariman ez dago egoerarik hitzez adieraz ez daitekeenik edo zinez arimako hitzen bitartez finka ez daitekeenik. Batere hitzik gabe pentsa lezakeenak zoro nahastua izan beharko luke, edo animalia, bisionari abstraktua edo monada ameslaria. Eta giza ariman ezin da egon horrelako egoerarik, guk geuk ametsetan eta eroengan ikusten dugun bezala. Ausarta eman arren, hala da: gizakiak adimenaren bidez sentitzen du, eta pentsatzen duen neurrian hitz egiten du. Eta beti horrela pentsatzen duenez eta, ikusi bezala, pentsamendu bakoitza aurrekoarekin eta gerokoarekin lotzen duenez isilpean, orduan, gogoetaren bidez estekaturik dagoen egoera bakoitzean hobeki pentsatuko du, eta beraz, baita hobeki mintzatu ere. Utzi berari zentzumenak libre erabiltzen: erabilpen horren erdigunea ikusmen eta entzumenari dagokionez, lehenari seinalea emanez eta bigarrenari seinalearen hotsa, zentzumen horiek arinago eta landuago erabili ahala garatzen joango zaio hizkuntza. Utzi berari arimako ahalmenak libre erabiltzen. Horien erabilpenaren erdigunea bereizmenari dagokionez, eta beraz, hizkuntzarik gabe ezinezkoa denez, bereizmen arinago eta landuagoa erabili ahala garatuz joango zaio hizkuntza. Ondorioz, giza hizkuntza garatzea gizakiaren natura bezain naturala da.

Nork daki giza arimako ahalmenek duten hedapena, batez ere beren indar osoan azaltzen direnean zailtasun eta arriskuaren aurrean? Nork neur dezake beren perfektio-gradua, barru-barruan landutako garapen jarraitu eta aberatsaren ondoren lortua? Eta

dena hizkuntzarantz bideratua dagoenez, zenbateko bilketa egin behar duen gizaki bakoitzak hizkuntza edukitzeko! Itsuak eta gorrak bere irla bakartian hizkuntza eskasa sortu beharra badauka, zenbatez aberatsagoa izan behar duen zentzumen guztietatik eta mundu osotik ikasten duenak! Zer har dezake? Naturak ez dio senik, usaimenik, usnarik eman landare onentzat, eta ezta higuinik ere txarrentzat, beraz saiatu egin behar du, dastatu, europarrek Amerikan animaliangandik ikasten duten bezala zer den jateko ona, beraz landareen ezaugarriak bildu behar ditu, alegia hizkuntza! Ez du indar aski lehoiari aurre egiteko; horregatik aldentzen da harengandik, urrunetik ezagutzen du orroagatik, eta harengandik gizaki gisa eta zentzuz aldentzeko, hura eta beste ehun animalia kaltegarri argi bereizten ikasten du, alegia izendatzen! Zenbat eta esperientzia gehiago bildu, eta gauza gehiago ezagutu alderdi desberdinetatik, orduan eta aberatsagoa bere hizkuntza! Zenbat eta maizago esperientzia horiek ikusi eta seinaleak bere baitan errepikatu, orduan eta sendoagoa eta arruntagoa bere hizkuntza. Zenbat eta gehiago bereizi eta bata bestearen pean ordenatu, orduan eta ordenatuagoa bere hizkuntza! Hau dena aurrera eramanez gero urtetan barrena, bizitza atzarrian, beti aldaketekin, etengabeko borrokan oztopo eta premien kontra, objektuak ere etengabe berritzen: hutsaren hurrengo hasiera al da hizkuntzarentzat? Eta begira! Gizaki bakar baten bizitza da!

Animalien gisa mutu den gizakia, bere ariman ere hitzik pentsatu ezin duena, kreazioko kreaturarik triste, absurdu, abandonatuena izango litzateke, bere buruarekin kontraesanik handiengan! Unibertso osoan bakar bakarrik, ezeri itsatsi gabe eta guztirako hantxe, ezereen segurantzarik gabe, are gutxiago bere baitakorik, gizakiak bere burua makurtu edo ororen nagusi izan behar du, animalia bakar batek ere ezin duen jakinduriaz ororen jabe egin ala zendu! Deusez ala adimenaren bitartez kreazioaren monarka izan! Birrintu ala hizkuntza lortu! Eta arimako ahalmen guztiak premien esparru estu honetan biltzen badira, gizateria osoak gizaki izateko borrokan badihardu, zenbat eta zenbat aurkitu, egin, ordena daiteke!

Gu gizaki sozialok dardarka jartzen gara horrelako egoeran pentsatuta: "Ai, gizakiak hain modu mantso, ahul, eskasean salbatu behar badu arrazoimena eta hausnarketaren bidez! Zer mantso pentsatzen duen eta zer bizkorrak, zer larriak diren bere premiak, bere arriskuak!". Jakina, objekzio hau dotore jantzi daiteke adibideen bitartez, baina horrek gu defendatzen ari ez garen beste mutur bati ekiten dio. Gure gizarteak, gizaki asko elkartu dituenak, hauen gaitasun eta ihardunek batasuna osatu behar dutelarik, gaztaroan bertan behar ditu gaitasunak banatu eta aukerak eman, bata bestea baino lehenago garatzeko. Horrela, gizaki bat gizartearentzat algebra hutsa izango da, nolabait esatearren, arrazoimen hutsa; bestea, berriz, bihotz hutsa, kemena eta ukabila: balioa du jeinurik ez baina saiaturia izateak, baita ere gauza baterako bai eta beste ezertarako jeinurik ez edukitzeak. Gorpil eragile bakoitzak bere proportzio eta kokapena eduki behar du, bestela ez dute osatzen makina bakar bat. Baina ez zabaldu gizaki naturalaren alorrera arimako ahalmenen banaketa hori, non bakar bat nabarmentzeko beste guztiak dezente itzaltzen diren. Filosofoa, gizartean jaio eta hezia, buruaz pentsatu eta eskuaz idatzi beste ezer zaildu ez duena, bere zerbitzu bereziengatik gizarteak eman dion babes eta erosotasun guztietatik bat-batean urrundurik jar ezazue, lurralde ezezagunean mantenua bilatu beharrean eta animalien kontra borrokan eta bere burua beste babeslerik gabe: hau nahasmena! Ez du horretarako ez senik ez ahalmenik, ez dago zaildua! Bere abstrakzioaren labirintoan agian galdu egin du usaimena eta ikusmena eta entzumena eta sormen bizkorra, eta baita ere, seguraski, adore hura, erabakitzeko azkartasun hura, arriskuen aurrean soilik osatu eta agertzen dena, beti ekintza berritan egon nahi eta bestela lo hartzen duena. Iritsi baldin badu bere izpirituaren iturria jadanik moteldu edo agortzen hasten den adina, orduan beranduegi da, noski, bera alor horretan

jantzi nahi izateko. Baina hori al da kasua? Nik aipatutako hizkuntz ahalegin guztiak ez dira inolaz ere eginak ahalegin filosofikoak izateko, landareen ezaugarriak ez dira aurkituak Lineok⁵² sailkatu bezala; lehen esperientziak ez dira esperimentu hotz, zuhurki landu, arretaz abstraituak, filosofo bakarti, astitsuak egiten dituenak bezalakoak zelatan dagoenean naturaren ibilera ezkutuari, badabilela baino gehiago interesatzen zaiolarik nola dabilen. Horixe zen gutxien axola zitzaiona naturako lehen biztanleari. Frogatu egin behar al zitzaion landare hau edo hura pozoitsua zela? Hainbestearino al zen animalia baino gehiago, horretan animalia ez imitatzeke? Eta beharrezkoa al zen lehoiak berari erasotzea, harekin beldurtzeke? Bere lotsa bere ahultasunarekin loturik, eta bere bereizmena bere arimako ahalmen guztiekin loturik, ez al da aski berak bere kabuz egoera eroso lortzeko, naturak berak ere aski dela baldin badio? Hala, ez dugunez behar inongo gela-zuloko filosofo lotsati, abstrakturik hizkuntza sor dezan, naturako gizaki zakarrak bere arima eta bere gorputza zati bakartzat sentitzen dituenaz oraindik, hori guretzat akademia hizkuntz sortzaile guztiak baino gehiago da, eta ez da jakintsua baino gutxiago; baina, hala ere, jakintsua nahi al dugu eredu? Elkarri hautsa bota nahi al diogu begietara, gizakiak ezin duela ikusi frogatzeko?

Oraingoan ere Süssmilch da borrokatzen dudana arerioa. Atal oso bat darabil* erakutsi ahal izateko "gizakiak ezin zuela hizkuntza garatu, imitazioz sortua bazuen"! Frogaturik dago giza arimarik gabe imitazio hutsaren bitartez hizkuntza sortzea zorakeria dela, eta jatorri jainkotiarren defendatzailea erabat seguru egon balitz zorakeria dela, ez dut uste gai izango zenik bere buruaren kontra hainbeste erdi egiazko arrazoi biltzeko, ezertxo ere ez baitute frogatzen gizakiak hizkuntza adimenaren bitartez sortzearen kontra. Ezin dut orain azaldu atal oso hori, erabat josia baitago arbitrarioki onartutako sasi-teoriaz eta axioma faltsuz hizkuntzaren naturari buruz, zeren, berorren egilea hemen agertuta, merezi ez duen bezalako argitan agertuko bailitzateke. Beraz, premiazkoa dena soilik hartzen dut, hau da, bere objekzioetan ez dela inon aintzat hartzen hobetzen doan giza hizkuntza eta hobetzen doan giza arimaren natura.

"Baldin eta onartzen bada lehen mundualdiko biztanleak ehunen bat familiatik gora ez zirela, hizkuntza erabiltzearen poderioz adimenaren argia nabaria zelarik, eta baldin antzeman bazuten zer zen hizkuntza, eta beraz, hasi bazitezkeen bitarteko bikain honen hobekuntzan pentsatzen, orduan...**". Baina inork ez du premisa horietatik deus onartzen. Mila belaunaldi itxaron behar al ziren hizkuntza zer den antzemateko? Hori antzeman zuen lehen gizakia lehen pentsamendua edukitakoa izan zen. Mila belaunaldi igaro behar al zuten hizkuntza hobetzea posible zela antzemateko? Hori antzeman zuen lehen gizakia bere lehen seinaleak hobeki ordenatu, zuzendu, bereizi eta elkartzen ikasitakoa izan zen, eta hizkuntza segituan hobetzen zuena zerbait berria ikasten zuenero. Eta hori horrela,

nola eduki ahal izango zuen, bada, mila belaunalditan zehar adimenaren argiak hizkuntzaren bitartez hain argi garbia, belaunaldi horien bidean hizkuntza argitzen joan ez balitz? Argitasuna hobekuntzarik gabe? Eta mila familiaren hobekuntzaren ondoren oraindik ere ezinezkoa hobekuntzaren hasiera? Hori bai kontraesana!

"Baina ez al litzateke onartu behar ezinbesteko lagungarri gisa kolegio filosofiko eta filologiko hori, alegia idazketa?". Ez! Izan ere, ez zen inolaz ere kolegio filosofiko eta filologikoa izan hizkuntzaren lehen hobekuntza natural, bizi, gizatiarra. Eta filosofoak eta filologoak bere museo hilean nola hobe dezake eraginkortasun osoz bizi den hizkuntza?

"Herri guztiek modu berean burutu ote dute hobekuntza hori?". Modu berebean, bai, zeren denak gizaki gisa aritu baitira, eta horrela guk hizkuntz osagai funtsezko bakoitza beste guztietara zabal dezakegu. Baina hizkuntza guztiek zortzi partes orationis eduki beharra* baldin bada denetan mirakulu handiena, orduan berriro ere datua okerra da eta ondorioa erratua. Denboran barrena hizkuntza guztiek ez dituzte zortzi eduki, aitzitik, hizkuntzaren egiturari emandako lehen begiradak erakusten du zortzi horiek bakoitza bere aldetik garatu dela. Antzinakoetan izenak baino lehenago izan dira aditzak, eta agian aditz erregularrak berak baino lehenago interjekzioak. Berriagoetan izenak aditzekin batera eratorri dira; grekoari buruz, berriz, Aristotelese⁵³ dio hauek biak izan zirela hizkuntz osagai guztiak garai batean, eta horietatik beste gainontzekoak garatu zituztela geroago gramatikalariek. Horixe bera irakurri dut huroiei buruz, eta bistan da ekialdean ere. Izan ere, azken batean zer trikimailu da gramatikalariek zortzi partes orationis-ekin egiten duten abstrakzio arbitrario eta hein batean afilosofikoa? Abstrakzio hori erlauntzako gelaskaren forma bezain erregularra eta jainkotiarra ote da? Eta hala balitz ere, ezin al

da hori, bere ezinbestekotasuna eta guzti, giza ariman oinarrituz argitu?

"Eta zerk bultzatu ote ditu gizakiak hobetze lan hain neketsura?". Inongo kabinete-lan neketsu, espekulatzailerik behintzat ez! Inongo hobetze abstraktuk ez, a priori! Eta, jakina, ezta gure gizarte finean gertatzen den inongo bultzadak ere. Honenbestez, erabat alde batera utzi behar dut nire arerioa. Berak dioenez, "lehen hobetzaile haiek oso buru filosofiko onak bide ziren, inondik ere begi zoli eta sakonagodunak oraingo jakintsu gehienak baino, hizkuntza eta honen barne egituraren aurrean". Berak dioenez, "jakintsu haiek alderdi guztietan antzeman bide zuten beren hizkuntza inperfektua zela eta hobetzeko gai ezezik, hobetzeko premia ere bazeukala". Berak dioenez, "behar den bezala iritzi bide zioten hizkuntzaren helburuari, eta eskuratu nahi zuten ondasun horren ideia aski indartsu eta bizia izan bide zuten pizgarri, lan astun hori beren gain hartzeko orduan". Laburbilduz, gure garaiko filosofoa ez da ausartzen pauso bakar bat ere ematen, ezta kasualitate guztietatik harago ere, eta ikuspuntu horretatik, nola idatz dezake hizkuntzaren sorreraz? Jakina, geure mendean ez zuen ez sortzeko gaitasunik, ez beharrik!

Baina giza garapeneko hainbat eta hainbat garai, leku eta maila ezagutzen duguneez dagoeneko, hainbeste aldatutako antzezpen handi honek ez al digu segurua erakusten lehen eszena zein zen? Ez al dakigu munduko azken muturrean, non arrazoimena gutxien findu, jendetu, ugaritu eta landu den, nolana ere hantxe duela bizitasun handiena sentikortasunak, arrazoimen gordinak, maltzurtasunak, ekimen adoretuak, pasio eta jakinminak, hots, giza arima batere zatitu gabeak? Eta hantxe du bizitasun handiena ez dutelako mugatu oraindik inongo erregela motelara, beti premia, arrisku, eskakizun hertsien inguruan bizi delako eta beraz, beti berri eta oso sentitzen. Orduan, orduan agertzen du ahalmena hizkuntza osatu eta garatzeko! Orduan dauka nahikoa sentikortasun eta instintu moduko, natura biziaren soinu osoa eta seinale guztiak nabaritzeko, gu jadanik gai ez garen heinean, eta, hausnarketak bata bestetik banantzen dituenean, baita indartsu eta barru-barrutik izena emateko ere, guk ezingo genukeen moduan. Zenbat eta arimako ahalmenak gutxiago garatuak egon eta horietako bakoitza gutxiago zuzendua egon esfera bakar baterantz, orduan eta eragin biziagoa dute denek batera, orduan eta minagoa da beren intentsitatearen erdigunea; baina gezi-multzo handi apurtezin hori banaka hartu eta denak apur daitezke, eta, jakina, ezin da makila magikoarekin mirakulua egin, eta, jakina, ezin da filosofoaren abstrakzio dohain hotz, soilarekin inoiz hizkuntza asmatu. Baina hori al zen gure galdera? Ez al zen sakonago heltzen munduko sen hura? Eta sen guztien jario etengabea, erdian beti barruko senak zaintzen zuelarik, ez al zeuden beti seinale berriak, ordenak, ikuspuntuak, ondorio azkarrak, eta beraz, etengabeko hizkuntz aberaste berria? Eta, kontuan hartu nahi ez badira ere zortzi partes orationis horiek, ez al zituen arimak jaso inspirazio onenak, gizartearen eraginak alde batera utziz eta berak bere buruari indartsuago eraginez eta erabat murgilduz zentzumen eta pentsamenduen ekimen horretan, barruko bultzadatik eta kanpoko eskakizunetatik sortu bide zena? Giza ahalmenak osoki garatzean jaio zen hizkuntza.

Niretzat ulertezina da nola gal daitekeen gure mendea ilunpe barrenetan, sistema baten lantegi ilunean, aitortu nahi izan gabe natura espetxeratu gabearen argi zabal, gardenak. Giza izpirituaren balentria handienak, mundu biziarekiko talkatik soilik egin eta kanpora zitzakeenak, eskolako ariketa huts bihurtu dira gure irakas-espetxeetako hautsen artean; giza poesia eta etorriaren maisu-lanak, berriz, umekeriak, nondik eta ume aguretuak eta ume gazteak esaldiak ikasi eta erregelak ateratzen dituzten. Formaren atzetik goaz eta galdu egin dugu izpiritua, hizkuntza ikasten dugu, baina ez dugu sentitzen pentsamenduen mundu bizia. Beste hainbeste gertatzen da gure iritziekin giza izpirituaren maisu-lanari buruz, hizkuntzaren sorrera. Hausnarketa hilak gauzak

irakatsiko dizkigulakoan gaude, baina gauza horiek munduaren arnasa bizitik, natura zabal eragilearen izpiritutik soilik inspiratu, iratzarri eta hobe zezaketen gizakia. Horrela gramatikarien lege geldo, berantiarrek guk gurtzen dugun gauzarik jainkotiarrena bihurtu nahi izan dute, eta ahaztu egiten dute hizkuntzaren benetako izaera jainkotiarra, gizakiaren bihotzean osatua bere izpirituarekin, nahiz eta hain irregularra eman. Hizkuntza osatzea eskolako ilunpetara baztertu da, eta handik ez du batere eraginik mundu bizian, eta horregatik aipatu nahi izan da ere lehen hizkuntz osatzaileak bizi, sentitu, kreatu eta asmatzen aritu ziren mundua ez zela argia... Froga gisa, hor dago gizakiaren baitako indarra eta basatien hizkuntz indarra, boterea, handitasuna eta hizkuntzaren izaeraz ezjakin ez direnen inpresioa. Aurrera jarraitzen dut, bada.

Bigarren lege naturala

Gizakia taldeko, gizarteko kreatura da, izatez: hizkuntza osatzea, beraz, naturala zaio, funtsezkoa, beharrezkoa.

Emakumeak ez du animalia emeen araldirik. Eta gizonaren ugalkortasuna ez da hain eutsiezina, baina bai etengabea. Zikoina eta usoak uztartu ohi badira, ez dakit zergatik ez lukeen hala egin behar gizakiak ere, hainbat arrazoiengatik.

Hartz galpartsua eta triku arantzatsuaren aldean gizakia animalia ahul, eskas, biluzia da, leizeak behar ditu, eta hauek, arestiko zioak direla bide, naturaltasun osoz bihurtzen dira talde-leize.

Gizakia animalia ahula da eta hainbat zonaldeetan nekez jasango lituzke urtaroak; emakumeak haurdunaldian, erditzean gehiago behar du gizartearen laguntza ostrukak baino, zeinak basamortuan erruten dituen arrautzak.

Azkenik, batez ere gizakiaren umea, mundura ekarritako bularreko haurra, zenbateraino da giza laguntza eta inoren errukiaren morroi. Landarearen gisa amaren bihotzari lotuta egotetik mundura botatzen dute: animalia guztien arteko izaki ahul eta ezinduen, ez baleude hor amaren bularrak bera elikatzeke eta ez baleuzka aitaren belaunak bera seme-alabatzat hartzeke. Nork ez du hor argi ikusten naturaren gobernua gizateria taldeka dadin? Eta gainera izaki bereizimendun batengan izan daitekeen modu zuzenenean, senetik hurbilen!

Gehiago landu behar dut azken puntua, bertan agertzen baita naturaren lana bistakoen, eta hartara nire ondorioa are azkarragoa izango da. Gure epikurear zakarren antzera, plazer itsua edo norberaren berehalako interesaren arabera argitu nahi bada dena, nork argi dezake gurasoen sentimendua seme-alabekiko? Eta hortik pizten diren lotura sendoak? Begira! Munduko biztanle gizagaixo hori ezindurik dator mundura, ezindurik dagoela jakin gabe; erruki premia dauka, horren atzetik batere saiatu ahal izan gabe; negar egiten du, baina negar horrek grekoentzat Filoktetesen deiadarrak bezain gogaikarria izan behar luke, hainbeste merezimendu irabazi arren irla mortua eman zitzaionean. Horrela, gure filosofia hotzaren arabera, sendoen diren puntuan apurtu behar lukete naturaren loturek! Ama azkenean minez libratu da hainbeste nahigabe sortu dion fruitutik; soilik plazer eta atsegin berrien menpe balego, alde batera botako luke. Aitak laster baretzen du bere grina: zertarako gehiago kezkatu ama eta haurraz, neke-iturri besterik ez? Rousseauaren arra bezala oihanera ihesi eta animalia beste plazer-iturri baten bila hasten da. Puntu honetan guztiz alderantziz da animali eta giza naturaren ordena, guztiz zuhurra! Minak eta nahigabeak handitu egiten dute amaren maitasuna! Bularreko haur gizagaixo eta eskasak, bere izakera ahul eta belaxkak, hezi beharrenean neke astun eta gogaikarriak bikoiztu egiten du gurasoen ahalegina! Amak atxikimendu handiagoz begiratzen dio oinaze gehien sortu dion umeari, ondotik joatearekin sarrien mehatxatu duenari, malko mindu gehien isurarazi dionari. Aitak atxikimendu handiagoz begiratzen dio arriskutik libratu duen umeari, neke handienaz hezi duenari, irakatsi eta janzten gehien kostatu zaionari. Eta horrela, naturak badaki espezie osoan ahuleziak

indar bihurtzen. Horretarakoxe dator gizakia mundura hain ahul, hain premiatsu, naturaren irakaspenetik hain baztertua, trebezia eta talentuz hain gabetua, animaliak ez bezala, ahalik eta berak, animaliak ez bezala, heziketaz goza dezan eta gizakia, animaliak ez bezala, errotik batutako osotasuna izan dadin!

Ahatekumeeek alde egiten diote lokatu dituen oiloari, eta ama-naturaren deiak eraman dituen elementuan pozik asko plisti-plasta, entzungor egiten diete uraren ertzean lantuan ari den amaordearen abisu eta deiei. Horixe egingo luke gizakumeak ere ahate-senez baletor mundura. Txoriak arrautzatik bertatik dakar habiak egiteko trebetasuna, eta inori jakinarazi gabe eramaten du hilobira: naturak irakasten du bere ordeaz. Beraz, dena bere aldetik, naturak egin bezalaxe, espeziearen ariman batere aurrerapenik gabe, osotasunik gabe, naturak gizakiengan agindu ez bezala. Azken hauek naturak bata bestearekin lotu zituen, beharra eta guraso-sen arduratiaren bidez, grekoek ζτοργη⁵⁴ izendatzen zutena, eta horrela berezkoa egin zitzaion irakatsi eta hezitzearen lotura. Hala, gurasoek bildutako ideia-multzoa ez zen berentzat, baizik besteri zabaltzeko, eta seme-alabak abantaila hori du, haien izpirituen aberastasuna goiz heredatzea, laburbildurik bezala. Gurasoek naturarekin duten zorra irakatsiz kitatzen dute, seme-alabek aldiz ikasiz osatzen dute beren ideia eskasia, eta, era berean, gerora beraiek ere kitatu egingo dute naturarekin duten zorra, aberastasun hau berenarekin handituz eta hura berriro ereinez. Inortxo ere ez da bizi bere buruarentzat soilik, espeziearen osotasunean dago kokaturik, zati bat besterik ez da segida horren barruan.

Geroago ikusiko dugu zer eragin duen honek katea osoan. Orain lehen bi katemailen arteko loturara mugatuko gara, alegia famili pentsakera osatzea heziketaren bitartez, eta, arimari irakatsi zaiona gurasoen hizkuntzaren ideia-barrutia denez, hala, famili izpirituaren bitartez giza irakaspena garatze hori, honen bitartez harremandu baitu naturak espezie osoa, hizkuntza garatzea ere izango da.

Zergatik heltzen die haur horrek, hain ahul eta ezjakina, amaren bularrei, aitaren belaunei? Irakasteko joera eduki eta hizkuntza ikas dezan. Ahula da, bere espeziea indartsua izan dadin. Hizkuntzarekin bere sortzaileen arima osoa, pentsakera osoa ematen zaio, baina horrexegatik ematen diote pozik, beraiek pentsatu, sentitu eta aurkitutakoa delako ematen dioten hori. Lehen hitzak toteltzen dituen bularreko haurrak berriro toteltzen ditu bere gurasoen sentsazioak, eta aurreneko hitz total bakoitzarekin zin egiten du sentsazio horiek betiketuko dituela, bere mihia eta arima osatzen direnean, sentsazio horiek aita edo ama-hizkuntza deitzen dituen bezain seguru. Bere haurtzaroko lehen inpresio horiek, bere gurasoen arima eta bihotzeko irudi horiek bizitza guztian bizi eta eragingo diote; hitzaren bidez berriro itzuliko da aspaldi bere arima gainezkatu zuen sentimendua, hitzaren ideien bidez berriro itzuliko dira ondoko ideia guztiak, goizaldeko begirada berri hartan, aspaldi, kreazioaren erresuman azalduak: berriro itzuliko dira eta ideia nagusi, argi, gardenek berek baino eragin handiagoa edukiko dute. Hori famili pentsakera bihurtuko da beraz, eta ondorioz, famili hizkuntza. Baina horra filosofo* hotza galdezka: "Arbitrarioki asmatutako hizkuntza hori zein legeren bitartez onetsarazi zioten gizakiek elkarri eta nola onarrarazi ahal izan zieten lege hori beste aldekoiei?". Galdera horrek, Rousseauk modu patetikoan eta beste idazle batek horretaz luze predikatuz, bere baitan du erantzuna baldin eta begirada botatzen badiogu giza naturaren ekonomiari, eta gainera nork jasan ditzake prediku horiek?

Ez al da lege eta betikotze aski, familiaren bidez hizkuntza garatze hori? Emakumeak, naturako alderdi ahulagoa, ez al du gizon jakintsuago, artatsuago, hizkuntz sortzailearen legea onartu behar? Lege deitzen al zaio, irakastearen mesede eder besterik ez denari? Haur ahulak, hain babesik gabea, ez al dauka hizkuntza onartu beharra, harekin batera amaren esnea eta aitaren izpiritua dastatzerakoan? Eta ez al da hizkuntza hori betikotuko, ezer betikotzekotan? Naturaren legeak indartsuagoak dira politika maltzurak erabaki eta filosofo zuhurrak xehetu nahi dituen konbentzio guztiak baino! Haurtzaroko hitzak, gure lehen jolaskideak bizitzaren egunsentian, gure arima osoa haiekin garaturik, nola ez ditugu ezagutuko bada? Nola ahaztuko ditugu bada? Gure ama-hizkuntza izan zen guk ikusitako lehen mundua, guk sentitutako lehen sentsazioa, guk gozatutako lehen ekintza eta poza. Ondoko ideia guztiak, lekua eta garaia, maitasuna eta gorrotoa, poza eta iharduna, eta horiekin batera gaztetako arima gartsu, grinatiak imajinatutako guztia betikotuko da: hizkuntza leinu bihurtuko da!

Eta zenbat eta txikiagoa leinu hori, orduan eta barne indar gehiago edukiko du. Gure gurasoak, beren gisa ezer pentsatu gabeak, beren gisa ezer asmatu gabeak, dena modu mekanikoan ikasi dutenak, nola arduratuko dira, bada, beren seme-alabak hezitzeaz, beraiek ere ez daukatena betikotzeaz! Baina lehen gurasoek, lehen hizkuntz asmatzaile premiatsuek, ia hitz bakoitzari beren arimako lana eskaini eta artean ere hizkuntzan barrena ekimenak sortutako izerdi beroa sentitzen zutenek, zer informatzailegana jo zezaketen? Beren seme-alaben hizkuntza osoa beren pentsamenduen dialektoa zen, beren ekintzen laudorio kanta, Ossianen kantak bezala bere aita Fingali.

Rousseau eta beste batzuk hainbat paradoxatan erori dira lehen jabegoaren jatorria eta eskubideari buruz, eta lehenak bere animala gizaki maitearen naturari galdetu balio, honek erantzun egingo zion. Zergatik dagokio lore hau bertan miazkatzen ari den erleari? Erleak honela erantzungo du: "Miazkatzen aritzeko egin nauelako naturak! Nire sena, lore honetantxe eta ez beste inon ezarririk, nahikoa diktadore da niretzat lore hau eta lorategi honen jabe naizela agintzeko!". Eta lehen gizonari galdetzen badiogu: "Nork eman dizu landare hauetarako eskubidea?". Zera bakarrik erantzun dezake: "Hausnarketa eman didan naturak! Saiatuta ezagutu ditut landare hauek, saiatuta ezagutarazi dizkiet emaztea eta semeari! Horietatik bizi gara denok! Horietarako eskubide gehiago daukat gainetik burrunban igarotzen den erleak baino, eta bertan larrean aritzen diren animaliek baino, horiek ez baitira batere saiatu ikasten eta irakasten. Horiengan ipintzen dudana pentsamendu bakoitza, beraz, nire jabegoaren zigilua da, eta hortik bidaltzen naudenak ez dit bizitza soilik kentzen, mantenu berririk aurkitu ezean, baizik bizi izan ditudan urteetako balioa ere bai, neure izerdia, neure nekea, neure pentsamenduak, neure hizkuntza: neuk lortu ditut horiek denak!". Ezagupenaren bidez, seinaleen bidez, hizkuntzaren bidez lehen gizakumeak gauza batean jarritako sinadura ez ote da jabego-eskubide handiagoa txanponeko zigilua baino?

Gurasoen irakaspena izanez, zenbat ordena eta garapen jasotzen duen hizkuntzak! Nork ez du ikasten irakatsiz? Nork ez ditu bere ideiak segurtatzen, nork ez ditu bere hitzak aztertzen haiek besteri jakinarazi eta umearen ezpainetatik hain sarri totelka entzuteaz? Hizkuntzak, honela, arte moduko bat, metodoa eskuratzen du! Honela taxutu zen lehen gramatika, giza arimaren eta honen logika naturalaren ispilu zena, zentsura begi-zorrotzaren bidez.

Honetan, ohitura duen bezala aldarrikatzen du Rousseauk: "Zer esan asko al zeukan amak bere umearentzat? Ez al zeukan zer esan gehiago umeak amarentzat? Nondik ikasi zuen umeak amari irakasteko hizkuntza?⁵⁶". Baina honetan ere, ohitura duen bezala, gerra-garrasi panikoa da berea. Jakina, amak gehiago zeukan umeari irakasteko umeak amari baino, ama gehiago irakasteko gai zelako eta bere sen, maitasun eta gupidak -

Rousseauk errukiz animaliei aitortzen die, baina esku zabalez bere espezieari ez-behartsu egiten zutelako irakastera, esne ugaritasunak bularra ematera bezala. Ez al dugu zenbait animalia-engan ikusten gurasoen beren bizimodura ohitzen dituztela umeak? Esate baterako gurasoak umea ehizera txikitatik ohitze hori, irakatsi eta hizkuntzarik gabe burutu ote zuen? "Bai! Hitz-diktatze horrek adierazten du hizkuntza osatua dela, ez dela osatzen ari!⁵⁷". Eta osterik ere salbuespena esan nahi al du diferentzia horrek? Jakina, aita eta amak seme-alabei irakatsitako hizkuntza jadanik osatua zegoen, baina horrexegatik hizkuntzak zeharo osatua egon behar al zuen, baita ere beraiek irakatsi gabekoa? Ezin al zuten seme-alabek mundu berri, zabal, landuagoan horretaz gehiago jakin? Eta kontraesana al da hein batean soilik osatua egotea, hizkuntza oraindik osatzen egotea? Akademia, idazle eta hiztegien bidez hain landua dagoen frantsesa, noiz egongo ote da erabat osatua, berriro edo okertu beharrik izan gabe idazle berri original bakoitzarekin, gizartera ukitu berriak dakartzan gidari bakoitzarekin? Horrelako paralogismoz daude dotoretuta aurkako iritzien defendatzaileak. Atera kontuak ea merezi duen beren objektuaren xehetasun bakoitzari heltzea.

Beste batek, adibidez, honela dio: "Nola garatu nahi izango zuten, bada, gizakiek hizkuntza beharrak bultzatuta, Horazioen⁵⁸ mutum et turpe pecus izan balira?", eta basatien hainbat erdi egia aipatzen ditu. Zera bakarrik erantzuniko dut: inoiz ez! Inoiz ez zuten ez nahi eta ez egin ahal izango mutum pecus izan balira, hartara ez baitzuket hizkuntzarik edukiko. Baina gisa horretakoak al dira basatiak, nazio barbaroenak ere ez al du hizkuntza? Eta inoiz egon al da gizakia hori gabe, non eta ez den filosofoaren abstrakzioan, beraz bere garunean?

Galdetzen du ere: "Animalia guztiek bortxa ekidin eta gizaki guztiak alferkeria zale direnez, espero al daiteke inoiz Condamineren orinokotarrek beren hizkuntza arras luze, zortzi silabakoa, astun eta gogaikarria aldatu eta hobetzea?". Eta nik erantzuten dut: lehenik, datu hori okerra da ia denak bezala*. "Beren hizkuntza arras luze, zortzi silabakoa?". Ez da halakoa! Condaminek zera bakarrik dio: hain dela ahoskaezina eta egitura berezikoa, non haiek hiru edo lau silaba ahoskatzen dituzten lekuan, guk zazpi edo zortzi idatzi behar ditugun, eta hala ere, ez genituzke osoki idatzita edukiko. Zer esan nahi du horrek, arras luze eta zortzi silabakoa dela? "Astun eta gogaikarria"? Izatez geroz arrotzentzat. Eta hauentzat hobetu behar al dute? Berea ez den hizkuntza zarpailtzen besterik ikasten ez duen frantses horrentzat hobetu, beraz frantsestu? Horregatik ez ote dute orinokotarrek hizkuntza osatu, eta ezta batere hizkuntzarik sortu ere, ez dutelako trukatu nahi beren jeinu berezi hori ibaian behera doan arrotzarekin? Eman dezagun ez dutela beren hizkuntza gehiago osatzen, ezta berentzat ere: gehiago hazten ez dena ez al da inoiz hazi? Eta ez ote dute basatiek inoiz ezer egin, beharrik gabe ezer egin zale ez direlako?

Eta garatzen ari den espeziearentzat zer altxorra den famili hizkuntza! Mundu osoko ia nazio txiki guztietan, baita gutxi garatuak badira ere, gurasoen kanta, arbasoen balentriei egindako laudorio horiek dira beren hizkuntza, historia eta poesiaren altxorra, beren jakinduria eta beren estimulua, beren irakaspena eta beren jolas eta dantzak. Grekoek beren argonautei egiten zieten kantu, Herkules eta Bakori, heroe eta Troiako garaileei, eta zeltek beren leinueta arbasoei, Fingal eta Ossiani! Peruar eta iparramerikarren artean, Karibeko irletan eta Marianetan oraindik ere nabarmentzen da leinu-hizkuntzaren jatorri hori beren leinu eta arbasoei egindako kantuetan, munduko ia alderdi guztietan aita eta ama antzeko hitzak diren bezalaxe. Hementxe antzematen da zergatik, aipatu ditugun hainbat herritan, gizonak eta emakumeak ia hizkuntza desberdin bi duten, hain zuzen ere, biak, nazioko ohituren arabera, sexu

prestu eta prestuez gisa, bi herri ia erabat berex direlako, elkarrekin jan ere egiten ez dutenak. Aitaren edo amaren heziketa jaso, orduan hizkuntza ere aita- edo ama-hizkuntza izango da, erromatarren ohituren arabera lingua vernacula ere izan zen bezala. Hirugarren lege naturala

Giza espezie osoak talde bakarra izaten jarraitu ezin zuen bezala, ezin zuen ere hizkuntza bakarra eduki. Hainbat hizkuntza nazional osatu ziren, beraz.

Zentzu metafisikoan ez da inoiz posible hizkuntza bakarra gizon eta emakume, guraso eta seme-alaba, ume eta agurearen artean. Ikusi, besteak beste, ekialdekoen bokal luze eta laburrak, hainbeste hasperen eta zintzur-letra, organo beraren letra nahasketa erraz eta ugariak, denetariko geldiu- eta hizketa-zeinuak, oso zailak idatziz adierazten, eta baita ere doinua eta azentua, horiek handitzea eta gutxitzea, eta hizkuntz osagaien beste hamaika xehetasun zorizko, eta ohartu, beste aldetik, bi sexuen hizkuntz tresnak zer desberdinak diren, gaztetan eta zahartzaroan, baita bi gizaki berdinen artean ere, gorabehera eta ñabardura askok aldatzen baitute organoen egitura, edo ohitura asko bigarren natura bihurtzen... Gorputz eta hazpegi berdin-berdineko bi gizaki ez dauden bezala, ezin dira egon bi gizakien ahotan bi hizkuntza ere, nahiz eta ahoskera soilik aintzat hartu, hizkuntza bakarra direnak.

Sexu bakoitzak etxeko eta familiako doinua eramango du bere hizkuntzara: hizkera desberdinak egongo dira, ahoskeraren arabera.

Klima, airea eta ura, janaria eta edariak eragina izango dute hizkuntz tresnetan eta baita ere, jakina, hizkuntzan.

Gizartearen azturek eta ohituren jainko boteretsuak laster onartuko dituzte, itxura eta fintasunaren arabera, bateko berezitasunak eta besteko desberdintasunak: dialektoa! Ekialdeko hizkuntza harremanduei buruzko entseiu filosofikoa izango litzateke tesi honen frogarik egokiena.

Hori ahoskeraren inguruan. Baina hitzak berak, hizkuntzaren zentzua, arima, zenbat eta zenbat desberdintasun! Ikusi dugunez antzinako hizkuntzak sinonimoz beterik bide zeuden, eta sinonimo horietatik honentzat hau eta harentzat hura ohikoago, bere ikuspuntuarekin egokiago, bere sentsazioen munduarekin jatorrago, bere bizitzako ibileretan sarriago bihurtzean, hots, inpresio desberdinak sortzean, orduan hitz kutunak agertu ziren, hitz bereziak, idiotismoak, hizkera.

Batengan hitz bat desagertu eta bestea geratu zen. Beste hura desbideratu egin zen gai nagusitik bigarren ikuspuntu batengatik, han, denboraren poderioz, kontzeptu nagusiaren izpiritua bera aldatu zen, hemen flexioak, eratorpenak, aldaketak, aurritzki eta atzizkiak eta trasposizioak eta mozketak gertatu ziren esanahi oso edo zatietan: hizkera berria! Eta hori dena hizkuntza gizakiarentzat bere arimaren zentzumen den bezain naturalki.

Zenbat eta biziagoa hizkuntza, zenbat eta hurbilago bere jatorritik eta beraz, oraindik gazte eta hazteko garaian egon, orduan eta aldakorrago. Liburuetan soilik dagoenean, arauetatik ikasirik, eguneroko tratuan ez eta zientzian soilik erabiltzen denean, objektu eta aplikazio kopuru mugatua duenean, beraz bere hiztegia itxita dagoenean, bere gramatika araututa, bere esparrua finkatuta, orduan horrelako hizkuntzak aiseago iraun dezake ageriko aldaketarik gabe, baina soilik agerikoak. Ordea, bizitza basati, librean dagoen hizkuntza, kreazio handi, zabalaren erresuman, oraindik formalki ezarritako araurik gabe, oraindik liburu eta letra eta ustezko maisu-lanik gabe, hain eskas eta osatu gabe dagoenez egunero aberastu beharra daukalarik, hain malgutasun gaztea duenez egunero moldatzen delarik arretazko lehen keinuaren aurrean, pasio eta sentsazioaren lehen aginduaren aurrean, horrelako hizkuntzak aldatu beharra dauka mundu berri bakoitza ikusita, pentsatzeko eta hobetzeko erabiltzen den metodo bakoitzarekin. Uniformetasunaren lege egiptoarrek ezin dute honetan aurkako eragina eduki.

Bistan da lurgain osoa gizakiarentzat eta bera ere lurgain osoarentzat egina dela (ez dut esaten lurreko biztanle bakoitza, herri bakoitza jauzi bizkorrez bat-batean aurkako klimarako eta, beraz, lurreko bazter guztietarako egina denik, baizik espezie osoa lurrazal osoarentzat). Noranahi begiratuta ere, jatorriz inguru hura agindu zaien animaliak bezain eroso dago bertan gizakia. Groenlandian izotz azpian iraun eta Ginean eguzki galdatan kiskaltzen da, bere giroan dago Laponian elur-oreinarekin elurretan irristatzen denean eta Arabiako mortuetatik gamelu egarrituarekin trostan igarotzean. Trogloditen leizeetan eta kabiliarren mendi gailurretan, ostiaken tximini ondoan eta mogolen urrezko jauregian daude gizakiak. Berentzat da lurra poloan txapaldua eta ekuatorean goratua, berentzat mugitzen da eguzki inguruan modu honetan eta ez bestean, berentzat eginak dira lurreko zonalde eta urtaro eta aldaketak... eta beraiek ere zonalde, urtaro eta aldaketentzat eginak daude. Hemen ere bistan da, beraz, lege naturala: gizakiek munduko bazter guztietan bizi behar dute, eta animali mota bakoitzak, aldiz, bere lurralde eta esparru estua soilik eduki behar du. Bistan da munduko biztanlea. Eta hori horrela, lurreko hizkuntza izango da ere bere hizkuntza. Mundu berri bakoitzean berria, nazio bakoitzean hizkuntza nazionala. Ezin ditut errepikatu aurreko kausa guztiak, aldaketa erabakitzen dutenak: Proteo da hizkuntza, lurraren gainalde borobilean.

Modan dauden hainbat filosofok⁵⁹ oso eskas atxiki eta ikusi ahal izan dute bere benetako itxuran Proteo hori, eta horrela posibleago iruditzen zaie naturak bailara bakoitzean arbaso gisa gizaki pare bat jarri izana, klima bakoitzean bertako animaliak bezala; horiek gero beren lurralde- eta nazio-hizkuntza berezia asmatuko zuten, bere egitura osoa lurralde horrekin soilik egokitua; hala, laponiar txikia, bere hizkuntza eta bere bizar urriarekin, bere trebetasunekin eta tenperamentuarekin elur-oreina bezain giza animali jatorriz laponiarra izango litzateke, eta beltza, bere azalarekin, bere tinta beltzarekin, bere ezpain eta ile eta indioilar-hizkuntza eta tentelkeria eta alferkeriarekin klima bereko tximinoaren anai-arreba naturala izango litzateke; gizakiaren garapen mailan bezain antz gutxi espero liteke munduko hizkuntzen artean, eta Jainkoaren zuhurtzia gutxia adieraziko zuen mundu osoan arbaso gisa gizaki pare bakarra ipintzeak, ahul eta lotsati, elementuen eta animalien atzaparretan munduko txoko batean, eta makina bat arriskuren menpe abandonatzeak.

Behinik behin, iritzi ez hain hertsiarekin jarraituz, giza izpirituaren produkzio naturala balitz hizkuntza, gizakiarekin batera pixkana klima arrotzetara hedatutakoa, pixkana aldatu ere egin beharko zuen. Ikusteko moduan egon behar luke herrien arteko harreman-aldaketa, ibilbidea eta ahaidegoa, eta txosten zehatza emateko moduan ere, pentsatu, hitz egin eta bizitzeko moduetan dauden ñabarduretan oinarrituz. Baina nork egin dezake hori? Ez al dira klima berean herri txikiak aurkitzen, baita munduko bazter guztietan elkarren ondoan ere, esparru berean hizkuntza erabat desberdin eta aurkakoekin, erabateko nahaste-borrastea osatuz? Ipar eta Hegoamerika, Afrika eta Asiako bidai kontakizunak irakurri dituztenei ez dago oihanetako leinu guztien berri zabaltu beharrik. Horretan amaitzen dira giza ikerketa guztiak, zalantzati hauen esanetan.

Eta azken hauek zalantzak ipini besterik ez dutenez egiten, nik erakutsi nahi dut ez dela hor bukatzen ikerketa, eta aldiz, elkarren ondoko desberdintasun hori nazio bateko famili hizkuntzen batasuna bezain naturalki argi daitekeela.

Familiak nazio isolatutan bereizita egote horrek ez du zerikusirik, jakina, urruntasun, migrazio, harreman berri eta holako erlazio aspergarriekin, filosofo astitsu, hotzak maparen gainean neurtzen dituen bezala, konpasa eskuan, eta neurketa horien arabera herrien arteko ahaidegoari buruz liburu lodiak idazten diren bezala, non dena egia den, kalkulu guztiak egiteko erregela izan ezik. Mundu bizi,

eginkorrari begirada bota, eta hantxe ikusiko ditugu malgukiak, naturaltasun osoz eraginez elkarren ondoko herriek hizkuntz desberdina edukitzea, baina ez gizakia derrigorrean bildu guretzat egokien den sistemara. Ez da Roussearen basagizona: hizkuntzaren jabe da. Ez da Hobbesen otsoa⁶⁰: famili hizkuntzaren jabe da. Beste aldetik, ordea, ez da denbora baino lehenago jaiotako bildotsa ere. Elkarren kontrakoak diren natura, ohitura eta hizkuntza landu ditzake; hots, hain herri txiki hurbiletan hizkuntza, pentsakera eta bizimoduan alde horiek egotearen arrazoa, famili eta nazioen arteko gorrotoa da.

Geure burua hurbileko leinu bi edo gehiagoren famili pentsakeran jarri, eta giza naturakoak diren irain eta laidoak alde batera, berehala ez lukete istilu bidea besterik topatuko. Ez da soilik antzeko premiak direla -eta berehala gose- eta egarri-borrokan, hala esatea zilegi bazait, sartzen direla, hala nola bi artzain taldek errieta egiten duten iturri eta soroengatik, eta lurralde bakoitzaren ezaugarriek sarritan errieta guztiz naturala egiten dutela; askoz txinparta gartsuagoak pizten du beren sua: bekaitza, ohorearen balioa, beren leinua lehena izatearen harrotasuna. Famili joera honexek, bere baitan bildurik leinu barruko konkordia sendotzen duena, bere baitatik ateraz gero sendotu egiten du beste leinu batenganako diskordia eta gorrotoa. Lehenak batasun indarra ematen du; bigarrenak, berriz, bi talde elkarren etsai bihurtzen ditu. Halako kasuetan, etsaigo eta betiko gerra honen funtsa giza ahulezia noblea da, gaiztakeria zirtzila baino areago.

Garapen maila horretan gizateriak ekiteko ahalmen gehiago daukanez jabegozko ondasunak baino, hura edukitzearen harrotasuna ere ohoragarriagoa da azkenekoen jabe kaxkar izatea baino, geroagoko garai geldoen gauza. Gizon ausart izatea eta familia ausartekoa izatea gauza beretsua zen aspaldi hartan, zeren eta semeak, neurri handian guk baino modu berezkoagoan, aitagandik heredatu eta ikasten baitzituen bertutea eta kemena, eta leinu osoa egoera guztietan gizon ausartaren alde zegoen. Naturala egin zen, beraz, honela esatea: Gurekin eta gutakoa ez dena, gure azpian dago! Arrotza gu baino okerragoa da, barbaroa. Zentzu honetan "barbaro" mesprezuzko konsigna zen: arrotza eta aldi berean prestueza, gu adina ez jakinduria edo kemenean, edo garai bakoitzean ohoretsuena den horretan.

Jakina, ingeles batek⁶¹ zuzen dioen bezala, norberaren interesei eta ondasunen segurtasunei begira, ez da gorrotorako arrazoi auzoa gu bezain kementsu ez izatea, aldiz, geure golkorako poztu egin beharko genuke horregatik. Alabaina, iritzi hori iritzia besterik izan ez eta bi alderdiek, leinuarekiko sentimendu berdina dutenez, iritzi berdina edukitzearekin, gerraren tronpetari haize ematen zaio! Ohore kontua da, leinu osoaren harrotasun eta adorea pizten du! Heroeak eta patriotak bi aldeetan! Eta denak hunkitu dituenek gerraren kausak eta hori denek antzeman eta sentitu dutenez, nazioen gorrotoa gerra amaiezin, saminetan luzatzen da; eta hor dago bigarren sinonimoa eskura: nirekin ez dagoena nire aurka dago. Barbaroa eta gorrotagarria! Arrotza, etsaia! Erromatarren artean jatorriz hostis* hitza bezala.

Hirugarrena ere berehala dator: erabateko bereizketa eta isolamendua. Nork nahiko zuen antza eduki halako etsaiarekin, barbaro mespretxagarria? Ez famili ohiturarik, ez jatorri beraren oroitzapenik, are gutxiago hizkuntzarik, zeren eta hiz-

kuntza baita berez leinuaren ezaugarri, familiaren lokarri, heziketaren tresna, arbasoen balentrien laudorio-kantu, eta hauen hilobietatik jaiotako boza. Ezin, beraz, biek bat jarraitu, eta horrela, hizkuntza bakarra sortutako famili sentimendu berak, nazioarteko gorrotoa piztu zenean, sarritan desberdintasuna eragin zuen, erabateko hizkuntz desberdintasuna. Barbaroa da, bere mintzoa arrotza da. Horra hirugarren sinonimoa, hain ohikoa.

Hitz horien etimologia okerra dela eman arren, egia direla frogatzen du aztertutako herri eta hizkuntza txiki guztien historiak; etimologia horien etenak ez dira abstrakzioak besterik, ez historiaren mozketak. Elkarren ondoko poliglota horiek denak, aldiberean, etsai porrokatu adiskideezinak dira, eta ez ditu bultzatzen lapurreta eta ondasun irrutsak, izan ere, gehienetan ez baitute ostutzen, baizik soilik hiltzeak, suntsitzeak eta hura dena arbasoen itzalari eskaintzeak. Arbasoen itzal horiek dibinitateak dira, epopeia odoltsu guztiko makina ikustezin bakarrak, Ossianen kantuetan bezala. Horiek esnatzen dute buruzagia ametsetatik, ernetzen dute eta igaroarazten diote gaua esna; horien izenak aipatzen dituzte beren kideek zin eta kantuetan; horiei eskaintzen zaizkie gatibuak martirio guztietan, eta, beste aldetik, beraiek indartzen dute martiria bere himno eta heriotza-kantuetan. Famili gorroto amaigabe hori da, beraz, gerrak egotearen eta herriak xeheki bereizita egotearen kausa, sarritan familia berekoak izan arren, eta seguraski baita ohitura eta hizkuntz diferentzia guztien kausa ere.

Hizkuntzen bereizketari buruzko ekialdeko dokumentu batek* (nik ez dut hemen hartuko herri-historiaren arkeologiari buruzko pasarte poetikotzat besterik) kontakizun oso artistikoaren bitartez baieztatzen du munduko bazter guztietako hainbeste naziok beren adibidearekin baieztatu dutena. Hiz-

kuntzak ez ziren pixkana aldatu, filosofoak migrazioen bitartez ugaritzen dituen moduan; poemak dioenez, lan handi bakar bat egiteko elkartu ziren herriak, eta orduan jausi zen beren gainera nahasmena eta hizkuntz aniztasunaren zurrumbiloa; etsi eta bereizi egin ziren. Zer izan zen hori, orde, bat-bateko haserre eta diskordia besterik, hain lan handia egin beharrak eragina? Orduan esnatu zen agian famili izpiritua, gorabehera txiki batengatik iraindua: batasuna eta helburuak huts egin, desadostasunaren txinparta sutan bizkortu, elkarrengandik urundu eta are bortitzago egin zuten lehen lan harekin ebitatu nahi izandakoa: nahasi egin zuten beren jatorriaren, beren hizkuntzaren batasuna. Horrela sortu ziren herri desberdinak eta "hango aurrien izena", esaten du geroko kontakizunak, "herri-nahasmena da⁶³"! Ezagutzen duenarentzat ekialdeko izpiritua, janzkera oparoduna eta istorio epiko miresgarriarena (ez dut aipatu gabe utzi nahi teologiarako duten antolaketa gorena), agian ez da ezezaguna izango hemen gorpuztutako pentsamendu nagusia, alegia elkarlan handiaren aurreko desadostasuna izan dela, eta ez soilik herrien migrazioa, hainbeste hizkuntzaren zergatia.

Ekialdeko testigantza hori aipatu ostean (nik hemen, gainera, soilik poema gisa tartekatu nahi izan dudana), argi dago hizkuntz aniztasunak ezin duela objekzioz aurkeztu hizkuntzaren garapena naturala eta gizatiarra izatearen aurka. Han-hemenka mendiak altxa daitezke, jakina, lurrikarengatik; baina, horren ondorioz, lur osoak, bere mendi, ibai eta itsasoekin, ez ote du daukan itxura uraren lanagatik? Jakina, horrela etimologista eta etnologoei zuhurtziaren harritxo baliotsua ipintzen zaie mihian, ahalik eta hizkuntz desberdintasunetatik jatorriei buruz ondorio despotikoegiak har ez ditzaten. Posible da ahaidetasun oso hurbileko familiek ere arrazoiak edukitzea ahaidetasun hori armen azpian jartzeko. Herri txiki horien izpirituak arrazoi aski ematen du horretarako.

Laugarren lege naturala

Itxura guztien arabera giza espezieak batasun progresiboa osatzen duenez, jatorri bakarretik abiatu eta gobernu-lan handi bakarrerantz bideraturik, beste hainbeste ere hizkuntza guztiek, eta horiekin batera garapenaren katea osoak.

Adierazi dugu zer plan berezi esanguratsua nagusitzen den gizakiagan: bere arima, beti ere, ohituta dago orain ikusitakoa lehen ikusitakoarekin parekatzen, eta horrela bereizmenaren bidez bizitzako maila guztien batasun progresiboa lortzen da: beraz, hizkuntz garapena.

Adierazi dugu zer plan berezi esanguratsua nagusitzen den giza talde bakar batengan, alegia hezitzearen katearen bidez gurasoak eta seme-alabak bat egiten direla, eta beraz, naturak katemaila bakoitza beste bi mailen artean kokatzen duela, besterena jasotzeko eta besteri zabaltzeko: horrela dugu hizkuntz garapena.

Azkenik, plan berezi hau giza espezie osora hedatzen da, eta horrela gertatzen da zentzu goreneko garapena, aurreko bien ondorio zuzena.

Indibiduo bakoitza gizakumea da, eta beraz, aurrera darrai bere bizi-katearen pentsamenduak. Indibiduo bakoitza seme edo alaba da, irakatsiz hezia: beraz, arbasoen pentsamendu-altxorraren zati bat jaso zuen, eta bere modura zabalduko du. Hala, ez dago pentsamendu, asmakizun edo perfektzionamendurik urrunago hedatzen ez denik, ia infinituraino. Nik inongo ekintza burutu, inongo pentsamendu eduki ezin dudana bezala eragin naturala izango ez duenik neure izate neurtezinean, halaber, bai nire eta bai nire espezieko kreatura guztiek ere eragina dute espezie osoan eta espezie osoaren osotasun aurrerakoian. Bakoitzak uhin handi edo txikia sortzen du, banakako arimaren egoera aldatzen du, eta beraz, egoera horien osotasuna; eragina du besteengan ere, horiengan ere zer edo zer aldatzen du: lehen giza arimaren lehen pentsamendua harremanean dago azken giza arimaren azken pentsamendurekin.

Gizakiak hizkuntza erleak eztigintza bezain sortzezkoa balu, orduan berehala eroriko litzateke mila puskatan jauregi ikusgarri, berebiziko hori! Bakoitzak hizkuntza poxi bat ekarriko luke mundura, edo mundura ekartzeak arrazoimenarentzat ez duenez esan nahi hura asmatzea besterik, zer gizabanakako tristeia izango litzatekeen gizaki bakoitza! Bakoitzak bere lanabesak asmatu, haiek eskuetan dituela hil eta berekin daramatza hilobira, erleak eraikuntza bezala; badator ondorengoa, hasiera berdinekin oinazetu, aurrekoa bezain urruti edo hurbil heldu, hil, eta horrela beti behin eta berriro. Ikusten denez, ezertxo ere asmatzen ez duten animalien plana ez da asmatu beharra daukaten kreaturena bezalakoa, bestela planik gabeko plana izango da! Bakoitzak bere buruarentzat soilik asmatzen badu, orduan amaiezineraino bikoizten da alferrikako lana, eta adimen asmatzailea bere sari onena gabe geratzen da, alegia haztea.

Zer arrazoi eduki nezake nik kateako leku batean geldirik geratu eta, behintzat bertako planaz ohartuz gero, hizkuntzan gora ez igotzeko? Neu mundura etorri naizen bezala, ahalik eta niretarak heziketaren barruan sartzeko, hala egin zuen nire aitak ere, baita lehen arbasoaren lehen semeak ere, eta nik neure pentsamenduak neure ingurura eta neure ondorengoengana zabaltzen ditudan bezala, baita nire aitak ere, baita bere aitak ere, baita denen aita lehenak ere. Kateak aurrera darrai eta bakar batengan soilik gelditzen da, lehenagan; beraz, bere seme-alabak gara denok: berarekin hasi zen leinua, heziketa, hizkuntza. Bera hasi zen asmaketan, guk denok bere ondotik asmatu, hobetu eta okertu dugu. Ez da galdu giza arimaren pentsamendu bakar bat ere, baina espezie horrek ez du ere inoiz trebetasun bakar bat animalien gisa eduki: ekonomia osoaren ondorioz, giza trebetasunak beti aurrerantz joan dira, bidean, lehendik asmatutakorik ez erleak gelaska eraikitzea bezala, baizik beti asmatzen, ekinean, gogotik saiatzen. Ikuspuntu honetatik zer handia den hizkuntza! Giza pentsamenduen altxorra, nork bere moduan handitua! Giza arima guztien ekimenaren batuketa.

Gehienez ere -tartekatzen du aurreko filosofiak, gizakia lurreko ondasun gisa ikusi nahiko lukeenak-, gehienez ere katea hori lurralde bateko lehen aitaganaino soilik irits liteke, nondik eta bere leinua eta hizkuntza sortu ziren*. Nik ez dakit zergatik iritsi behar duen kateak horrainoxe, eta ez urrunago. Ez dakit ere zergatik ezin zuten herrialdeko arbaso horiek lurreko aita bat eduki, hala eskatzen baitu leinu horren gobernuan dagoen etengabeko antzak. "Ez da oso burutsua", entzun daiteke objekzio gisa, "giza bikote ahul, ezindua lurreko txoko bakar batean arriskutan ipintzea". Baina burutsuagoa al da horrelako giza bikote ahul asko banaka-banaka lurreko hainbat txokotan jartzea mila aldiz latzagoak diren arriskuen pean? Ausardia gehiegizko kasuak ez dira leku guztietan berdinak, izugarri sarritzen dira ugaritze bakoitzarekin. Giza bikotea munduko klima on, erosoenean, non urtaroak ez diren zakarrak haien biluztasunarekin, non lur emankorra bere gisa doakien ezjakintasunagatik dituzten premiak asetzera, non dena biltokian bezala pilatuta dagoen beren iaotasun zaildugabeei laguntzeko; bikote hori ez al dago burutsuago kasu eginda beste edozein giza animalia baino, esate baterako Laponia edo Groenlandiako zero ospelaren azpian, natura biluzi, izoztuko premiak eta animalia premiatsu, gosetu, latzen atzaparrek inguratua, eta beraz, anitzez deserosotasun handiagoen menpe dagoena baino? Mantenua lortzeko ziurtasuna gutxitu egiten da, beraz, lurreko lehen biztanleak ugaritu ahala. Eta klima onean noiz arte jarraitzen du bikoteak bikote izaten? Laster bihurtuko da familia, herri txiki, eta herri txiki gisa zabaltzean

beste lurralde batera sartzen da, baina jadanik herri gisa, askoz burutsu eta seguruago! Kopuru handian, gorputz zailduak, arima askoikusiak eta arbasoen esperientzia aberats guztiak heredaturik, sarri zaildu eta ugaritutako arimak! Orain gai dira, laster batean bailara horretako biztanle egoki izateko! Denbora gutxiren buruan klima horretako animaliak bezain bertako egingo dira, beren bizimodu, pentsakera eta hizkuntzarekin. Ez al du horrek frogatzen giza izpirituaren bilakaera naturala, erdigune jakinetik abiatuz bere burua edozertara egokituz? Axola duena ez da kopuru handia bakarrik, baizik horren balio eta aurrerapena, ez subjektu ahulen kopurua, baizik beren ekimen indarra. Erlazio sinpleenean du horrek indar gehien, eta beraz, batasun puntu bakarretik ateratzen diren loturek soilik biltzen dute espezie osoa.

Ez dut beste arrazoirik argudiatuko leinu bakarreko jatorri horren inguruan: adibidez oraindik benetako daturik aurkitu ez izana gizaki izena merezi duten mota berriez, animalien artean ez bezala; munduko biztanleria modu agerian pixkana aurrera doala erakustea, lekuan lekuko animaliak ez bezala; kultura eta antzeko ohituren kateak ere horixe erakustea, ilunago bada ere, etab. Nik hizkuntza hartzen dut. Gizakiak animalia nazionalak balira, nork berea asmatuz bere aldetik eta besteengandik aparte, orduan sekulako desberdintasunak leudeke, agian Saturno eta Lurreko biztanleen artean adinakoak. Baina argi dago guztiak oinarri bera daukala gure artean. Eta oinarri bera edukitze hori ez da soilik formari dagokionez, baizik baita ere giza izpirituaren ibilerari; izan ere, munduko herri guztien gramatikak egitura berdintsua du. Nik dakidanez behintzat, txinera da salbuespen garrantzitsu bakarra, baina hori salbuespentzat hartzera ausartzen naiz. Zenbat gramatika txinatar eta bere gisako zenbat izango ote ziren, mundua animalia hizkuntz asmatzailez beterik egon balitz!

Zer dela eta hainbeste herrik bere alfabetoa eduki eta, hala ere, munduan zehar ia alfabeto bakarra egotea? Hitz arbitrarioen atal diren hotsetatik zeinu arbitrarioak osatzearen ideia arraro eta astuna hain da bihurria, hain da nahasia, hain da arraroa, non zeharo argiezina izango litzatekeen hainbeste ideia elkarrengandik urrun egon eta denek modu bakar horrekin topo egitea. Zeinu askoz naturalagoak, alegia gauzen irudiak, alde batera uzteak eta arnasotsak margotzeak, posible ziren guztien artetik hoge horiexek margotzeak, eta falta zituzten besteez ia batere ez baliatzeak, hoge horietarako hainbestek zeinu arbitrario berdinak aukeratzeak, ez al du argi adierazten tradizioa? Ekialdeko alfabetoak bakar bat dira oinarrian; grekoa, latindarra, runiarra, alemaniarra etab. eratorpenak dira. Hori horrela, oraindik ere alemanierak badiu koptoarenak bezalakoak diren letrak, eta irlandarrek adorea izan dute Homero beren hizkuntzatik egindako itzulpena dela esateko. Nork ezin du batere antzeman, espero ala ez, hizkuntzen oinarrian dagoen ahaidegoa? Munduan gizateria bakarra bizi den bezala, bakarra da ere bertako hizkuntza; baina espezie handi hori hainbeste lurralde txikitan nazionalizatu den bezala, beste hainbeste gertatu da hizkuntzekin ere.

Asko saiatu dira hizkuntz familia horien zerrendekin eta ni ez noa horretara. Izan ere, bigarren mailako zenbat eta zenbat arrazoik eragin ditzakete aldaketak jatorri horietan eta jatorri horien ezagupenean, filosofo etimologia-zaleak uste ez dituenak eta bere zuhaitz genealogikoa okertzen dutenak. Gainera bidai kontalari eta misiolarien artean ere hain gutxi izan dira benetako hizkuntz filosofoak, herri-hizkuntzen jeinua eta funtsezko oinarrien berri eman ahal edo eman nahi izan digutenak, non gehienetan noraeza den nagusi alor honetan. Hitz-zerrendak ematen dituzte, eta nahas-mahas horretatik atera behar dira ondorioak! Benetako hizkuntz dedukzioaren erregelak hain dira xumeak ezen gutxik... Baina hori dena ez da nire saila! Oro har, bistakoa da lege natural hau: giza espeziearekin batera ugaritu eta garatzen da hizkuntza. Lege horren inguruan aipatuko ditut alderdi nagusi batzuk, hainbat dimentsio eskaintzen dituztenak.

I. Gizaki bakoitzak ditu, noski, bere espezie osoak dituen gaitasun guztiak, eta nazio bakoitzak ditu nazio guztiek dituzten gaitasunak; egia da, ordea, gizarteak gizakiak baino gehiago dituela, eta giza espezie osoak herri bakarrak baino gehiago asmatzen duela, eta hori ez kopuruagatik soilik, baizik sarri eta barrenean ugaritutako erlazioengatik. Pentsatzekoa litzateke gizonak bakardadean, premia larririk gabe, bizimodu erosoan, adibidez hizkuntza gehiago asmatuko lukeela, bere arimako ahalmenak lantzerantz bultzatuko lukeela aisiak, beraz etengabe gauza berriak sumatzera-eta, baina alderantziz gertatzen da. Gizarterik ezean, nolabait ere basatu eta zabarkerian akituko da laster, baldin eta zeregin nagusitzat bere premia hertsienak asetzea ipini badu. Lorea da, errotik erauzita, zuzterra moztuta erori eta ihartzen. Gizartean eta hainbat premiarekin jarrita, bere burua eta besteak hornitu behar ditu: pentsatzekoa litzateke zama berri horiek kendu egiten diotela gora igotzeko askatasuna eta gauzak asmatzeko aisia, ezinak handitze horrekin. Baina kontrakoa gertatzen da. Premiekin saiatu, ezinekin iratzarri, eginbeharrekin mugimenduan mantentzen da bere arima: zenbat eta harrigarriago eman zerbait egitea, orduan eta gehiago egingo du. Hala, hizkuntzaren garapena zabaldu egiten da gizabanakotik hasi eta jadanik harremanean dagoen famili kideaganaino. Dena kenduta, zer gutxi asmatuko lukeen bakartiak, baita hizkuntz filosofo bakartiak ere, bere irla mortuan! Zenbatez gehiago eta sendoago leinuko lehen arbasoak, famili buruak. Garapen hori hautatu du, beraz, naturak.

II. Familia bakar, isolatuak, pentsatzekoa litzateke, gehiago landu ahal izango du bere hizkuntza erosotasun eta patxadan, distraiturik edo beste leinu baten aurkako gerran baino, etab. Baina ez da horrela. Zenbat eta gehiago egon besteren peskizan, orduan eta gehiago bilduko da bere baitan, sendoago errotzen da, arbasoen balentriak kantu bihurtzen ditu, aldarrikapen, betiko oroigarri, garbi eta patriotikoago gordetzen du hizkuntz oroitzapen hori, sendoago egiten du aurrera hizkuntz garapenak, arbasoen mintzo gisa. Horregatik hautatu du naturak garapen hori.

III. Baina, denboraren poderioz, nazio txiki izateraino kozkortu denean, leinu hori bere esparruan finkatzen da. Premien alor mugatua dauka eta baita horientzako hizkuntza ere. Ez da urrunago joaten, nazio txiki, barbaro deitutako guztietan dakusagun moduan. Beren beharrekin isolaturik, mendetan egon daitezke ezjakintasun harrigarrienean, surik gabeko irla haiek bezala eta beste hainbeste herriren antzera, langintza mekaniko xumeenak ere gabe. Aurrean dutena ikusteko begirik ez balute bezala. Hortik dator beste herri batzuen oihua, horiei barbaro ergel ez gizatiar deika, nahiz eta geu denok ere duela gutxi horrelakoxe barbaroak ginen eta beste herriengandik jaso genituen ezagupen horiek! Hortik dator hainbat filosofoen oihua ere, ergelkeria hori ulertezintzat hartzen baitute, nahiz eta guztiz ulergarria den, kontuan hartuz gure espeziearen gobernu osoan dagoen analogia. Naturak beste katea ipini du hemen, herri batetik besterako tradizioa! Horrela findu dira arteak, zientziak, kultura eta hizkuntza, nazioen progresio handian: garapen lokarri finena aukeratu du naturak.

Geu alemaniarrok oraindik geure basoetan lasai bizi izango ginen, amerikarren antzera, edo, areago, bertan gerra latzean aritu eta heroeak izango ginen, baldin eta kultura arrotzen katea urreratu ez balitzaigu, eta mende osotako indarraz behartu ez bagintu ekitera. Erromatarra ere Greziara joan zen heziketa bila, grekoak Asia eta Egiptotik jaso zuen, Egiptok Asiatik, Txinak agian Egiptotik... Horrela hedatzen da katea lehen maila bakar batetik hasita, eta agian noizbait mundu osoa hartuko du bere barruan. Jauregi grekoa eraiki zuen artea jadanik ageri da basatiaren txabola-eraiketan, hala nola Mengs eta Dietrichen⁶⁵ pinturak jadanik zakar distiratzten zuen Hermannen⁶⁶ ezkutu gorritz pintatuan. Eskimalak bere gudarosteen aurrean jadanik baditu etorkizuneko Demostenesen ernamuin guztiak, eta Amazonas ibaiko eskultore nazio hark* agian etorkizuneko mila Fidias. Beste nazioak haiengana hurbildu eta eraginez gero, dena

mundu zaharrear bezala izango da, behintzat zonalde epeletan. Egiptoar, greko, erromatar eta geroagokoek eraikitzen jarraitu besterik ez zuten egin; pertsiar, tartaro, godo eta fraideak tartean sartu eta aurriak egin zituzten; baina are eta freskoago segitzen da eraikitzen aurri zahar horien gainean eta horien ondoren. Arteak perfekzionatzeko kateak aurrera darrai edozeren gainetik (naturaren beste ezaugarri batzuen kaltetan bada ere) eta beraz, baita hizkuntzaren gainetik ere. Arabiera mila aldiz finagoa da, zalantzarik gabe, bere ama hasiera gordinen baino; gure alemaniera ere finagoa, zalantzarik gabe, zeltera zaharra baino; grekoaren gramatika ekialdekoa baino hobea izan eta bihur zitekeen, haren alaba zenez; erromatarra filosofikoagoa grekoa baino, eta frantsesa erromatarra baino: ez al da ipotxa erraldoiaren sorbalda gainean beti erraldoia bera baino garaiago?

Bat-batean ikusten da zer engainagarria den hizkuntzaren jainkotasuna frogatzea bere ordena eta edertasunean oinarrituz. Hor daude ordena eta edertasuna, baina noiz, nola eta nondik etorrira? Hizkuntza hain miretsi hori jatorriko hizkuntza bera al da? Edo ez ote da mende oso eta nazio askoren umea? Ikusi! Eraikuntza handi horretan nazioak, lurraldeak eta aroak aritu dira lanean; eta horregatik ezin al zuen txabola soil hark eraikigintzaren jatorri izan? Horregatik irakatsi behar al zien Jainkoak gizakiei halako jauregia eraikitzen? Gizakiek ezin izango zutelako halako jauregirik eraiki? A zer ondorioa! Eta a zer nolako ondorioa den esatea: "Ez dut guztiz ulertzen nola dagoen eraikita bi mendien arteko zubi handi hori, beraz, deabruaren lana da!". Ausardia edo ezjakintasun-gradu handia behar da hizkuntza giza espeziearekin batera garatu dela ukatzeko, hainbat maila eta aldaketa jasan ondoren: horixe erakus-

ten dute historiak eta poesiak, oratoriak eta gramatikak, eta horiek aski ez badira, baita arrazoimenak ere. Beti horrela garatzen aritu ote da, eta inoiz garatzen hasi ez? Edo modu gizatiarrean garatu ote da beti, arrazoimenak hura gabe ezin eta hark arrazoimenik gabe aurrera ezin eginik? Eta hizkuntzaren hasierak desberdina izan behar al du? Eta hori batere zentzu eta oinarririk gabe, hasieran erakutsi dugun bezala? Nolanahi ere, hizkuntzaren jatorri jainkotiarren hipotesia zentzugabekeria ezkutu, zorrotza da!

Errepikatu egingo dut nahita esandako hitz gogor hori: zentzugabekeria! Eta argitzera noa hori, bukatzeko. Hizkuntzaren jatorria jainkotiarra izateak zera esan nahi du:

Edo: "Ezin dut hizkuntza azaldu giza naturan oinarrituz, beraz, jainkotiarra da". Ba al du zentzurik ondorio horrek? Kontrakoak zera dio: "Neuk azal dezaket giza naturan oinarrituz, eta gainera erabat". Noren esanak du aurea? Bata estalki azpian gorde eta handik oihukatzen du: "Hemen dago Jainkoa!"; bestea eszenategi gainera agertzen da, adieraziz: "Ikusi! Ni gizakia naiz!"

Edo gora jauzi eginez: "Nik ezin dudanez giza hizkuntza azaldu giza naturan oinarrituz, orduan inortxok ere ezin du azaldu. Guztiz azalezina da". Ondo aterea al dago ondorioa? Kontrakoak zera dio: "Niretzat ez dago hizkuntz osagai bakar bat ere ulertezina denik, ez hasieran eta ez giza ariman oinarrituz dagoen progresioan, izan ere, giza arima osoa azalezina izango da niretzat, ez badut bertan hizkuntza kokatzen; giza espezie osoak utzi egiten dio espezie natural izateari ez badu hizkuntza garatzen jarraitzen". Noren esanak du aurea? Nor ari da zentzuz?

Edo, azkenik, honela dio hipotesi gorenak: "Ez soilik ezin du inortxok ere hizkuntza konprenitu giza ariman oinarrituz, horretaz gain nik argi dakusat zergatik zen hura erabat asmaezina gizakiarentzat, bere natura eta bere espeziearen analogia aintzat hartuta. Eta gainera hizkuntzan eta jainkotasunean nik argi dakusat zergatik Jainkoak ez beste inork ezin zuen hura asmatu". Oraingoan ondorioa ondo aterea legoke, baina oraingoan ere izugarritzko zentzugabekeria da. Koranaren jainkotasunari buruz turkiarren froga hura bezain frogagarria da: "Jainkoaren profetak ez beste nork idatz zezakeen hori?". Eta Jainkoaren profetak ez beste nork jakin dezake Jainkoaren profetak soilik idatz zezakeela hori? Jainkoak ez beste inork ezin zuen hizkuntza asmatu! Jainkoak ez beste inork ezin du ulertu, baina, Jainkoak ez beste inork ezin zuela hura asmatu! Eta zer esku ausar daiteke, ez soilik hizkuntza eta giza arima, baizik hizkuntza eta jainkotasuna neurtzera?

Jatorri gorenaren alde ez dago ezer, ezta argudiatu ohi den ekialdeko idazkera ere, honek argi eta garbi hizkuntzari hasiera gizatiarra ematen baitio, animaliak izendatzearen bidez. Dena alde eta ezer ez du aurka, bestalde, asmakizuna gizatiarra izateak: giza arimaren tasunak eta hizkuntz osagaiak, giza espeziaren analogia eta hizkuntz garapenaren analogia, hots, munduko herri, aro eta bazter guztien adibide zabala!

Jatorri gorenak, oso dohatsua eman arren, ez da batere jainkokoia. Urrats bakoitzeko ttipitu egiten du Jainkoa, antropomorfismo kaxkar, hutsaren hurrengoekin. Jatorri gizatiarrak argi oparoan aurkezten du Jainkoa: bere obra, giza arima, bere kabuz hizkuntza sortzen eta birsortzen. Arrazoimenaren zentzumen hori eraikitzen du giza arimak, kreatzaile gisa, bere izatearen ispilu bailitzan. Hizkuntzaren jatorria hein duin batean jainkotiarra izango da, beraz, gizatiarra den heinean.

Jatorri gorenak ez dakar mesederik eta txit kaltegarria da. Giza arimaren ekimen guztia hondatzen du, ez du ezer azaltzen eta den-dena, psikologia guztia eta zientzia guztiak azalezinak egiten ditu; izan ere, hizkuntzarekin gizakiek jakintza-hazi guztiak Jainkoagandik jaso al dituzte? Ez dator, beraz, giza arimatik ezer? Edozein arte, zientzia eta ezagupenen hasiera beti ulertezina al da, beraz? Jatorri gizatiarrak ez du uzten urrats bat ere ematen perspektibarik gabe, eta azalpen emankorrenak plazaratu gabe

filosofiaren alor guztietan eta hizkuntz mota eta aurkezpen guztietan. Egileak hemen bakar batzuk azaldu ditu eta beste hamaika ere azal litzake...

Zenbat poztuko litzatekeen egilea, tratatu honen bidez deuseztu ahal balu beste hipotesi hura, edozein alderditik begiratuta giza arimarentzat laido eta desohore besterik ez dena, eta denbora gehiegian halaxe izandakoa! Horrexegatik, egileak Akademiaren agindua bete ez, eta ez du hipotesirik aurkeztu: izan ere, zer aurreratzen da hipotesi bat bestea adina izanda? Eta nola irizten zaio nobela filosofikoaren antzeko hipotesi bati, Rousseau, Condillac eta abarrena bezalakoa? Egileak nahiago ahiago izan du datu zehatzak biltzen saiatzea, giza arimaz, giza antolaketaz, hizkuntza zahar eta basati guztien egituraz eta giza espeziearen gobernu guztiaz, eta bere tesia frogatzen saiatzea egia filosofiko sendoena froga daitekeen moduan. Hala, uste du bere desobedientziaren bidez bete duela Akademiaren nahia, beste edonola baino hobeto.

Oharrak

- 1 Cicero, Ad C. Trebatium Topica VIII, 35. "Hitzak gauzen zeinu dira".
- 2 Homero, Iliada 8, 184 eta ondoren.
- 3 Platon, Faidon, III.
- 4 Thomas Shaw, Reisen oder Anmerkungen verschiedene Teile der Barbarei und der Levante betreffend. Ingeleseko bigarren argitalpenetik alemanierara itzulia. Leipzig, 1765.
- 5 Johann Peter Süssmilch, Versuch eines Beweises, dass die erste Sprache ihren Ursprung nicht vom Menschen, sondern allein vom Schöpfer erhalten habe. Berlin, 1766.
- 6 Johann Heinrich Lambert, Neues Organon oder Gedanken über die Erforschung und Bezeichnung des Wahren. Leipzig, 1764.
- 7 Sebastien Rasles, Lettres édifiantes et curieuses, écrites des missions étrangères, par quelques Missionnaires de la Compagnie de Jesus. XVII. alea. Paris, 1726.
- 8 Pierre Joseph Chaumonot. Artean argitaratu gabeko huroien hizkuntzaren gramatikari buruzko ezagupenak Herderrek Pierre-François-Xavier de Charlevoix (1682-1761) jesuitagandik bildu zituen, seguraski. Ikus 15. oharra.
- 9 Histoire des Yncas rois du Peru etc. Traduite de l'Espagnol de l'Ynca Garcilasso de la Vega, par J. Baudoin. Amsterdam, 1704.
- 10 Charles Marie de la Condamine, Relation abrégée d'un voyage fait dans l'intérieur de l'Amérique méridionale. Paris, 1745.
- 11 Simon de la Loubère, Description du royaume de Siam. Paris, 1691.
- 12 Aspirazioaren zeinua grekoz.
- 13 Athanasius Kircher (1602-80), Oedipus aegypticus. Erroma, 1652-55.
- 14 Jean de Lery, Histoire d'un voyage fait en la terre du Brésil, autrement dite Amérique. La Rochelle, 1578.
- 15 P. de Charlevoix, Histoire et description générale de la Nouvelle France... Paris, 1744.
- 16 Jean Jacques Rousseau, Discours sur l'origine et les fondements de l'inégalité parmi les hommes. Amsterdam, 1755.
- 17 Pierre-Louis Moreau de Maupertuis, Dissertation sur les différents moyens, dont les hommes se sont servis pour exprimer leurs idées, 1754. Berlin, 1756.
- 18 Diodoro Sizialakoa, Bibliotheke, ca. 60-30 K.a. I. liburua. 2.
- 19 Vitruvio Polion, De Architectura, ca. 25 K.a. II. liburua, 1. kap.
- 20 Hermann Samuel Reimarus, Allgemeine Betrachtungen über die Triebe der Tiere. Hamburgo, 1760. - Lessing, Briefe, die neueste Literatur betreffend. 130, 131. gutunak. Berlin, 1762.
- 21 Mitologia erromatarreko ninfa eta iturrietako jainkosa. Numa Pompilio Erromako bigarren erregearen aholkulari izan bide zen; berau hil zenean, Egeriak iturri-itxura hartu zuen.
- 22 Edward Search, Abraham Tuckerren goitizena, Light of Nature Pursued, 7 ale. Londres, 1768-1778. - Knowall: Tuckerrek berak, bere eztabaida filosofikoan, izen honetako arerio fiktizioa asmatu bide zuen.

- 23 Johann Georg Sulzer, *Sur l'apperception et son influence sur nos jugemens*.
- 24 Ikus Platon, *Kratilo* 423a.
- 25 Ikus Leibniz, *Nouveaux Essais sur l'entendement humain*. Amsterdam eta Leipzig, 1765. 3. liburua, 1. atala, § 1/2. Herderrek iritziz beste egin zuen 1789ko argitalpenean, azpi-ohar honekin: "Camperrek egindako orangutanen zatiketari (ikus itzulitako bere idatzi laburrak) argi geratzen da iritzi hori ausartegia dela; nik hau idatzi nuenean, nolanahi ere, halaxe uste zuten anatomistek." - Peter Camper, *Kort Berigt wegens de Ontleding van verschiedene Orang-Utans*. Amsterdam, 1780; honek berak, *Nachricht vom Sprachwerkzeuge des Orang-Utan in einem Brief an Herrn John Pringle*, in: P. Camper, *Kleine Schriften*. 1785, 2. alea.
- 26 Ikus Aristoteles, *De anima*, 412a, 24-412 b, 20.
- 27 Horazio, *Satirak* I, 3, V. 103/104. "Honela hitzak eta izenak asmatu zituzten, hotsak eta sentazioak lotzeko".
- 28 William Cheselden, *An account of some observations made by a young gentleman, who was born blind or lost his sight so early that he had no remembrance of ever having seen and was couch'd between thirteen and fourteen of age*. *Philosophical transactions of the Royal Society of London*, 35. alea, 1727.
- Abraham Gotthelf Kästnerrek itzuli zuen Robert Smith, *A complete system of optics*, 1738.
- George Louis Leclerc, Graf von Buffon, *Histoire naturelle, générale et particulière*. Paris, 1750-89.
- D. Diderot eta J. d'Alembert, *Encyclopédie ou Dictionnaire raisonné des sciences, des arts et des métiers*. Paris, 1751-72.
- 29 Denis Diderot, "Lettre sur les sourds et muets, à l'usage de ceux qui entendent et qui parlent". [Sine loco.] 1751.
- 30 Francis Bacon (1561-1626): Aipamen honen jatorria, ustez: *Novum Organum scientiarum*. Londres, 1620 edo *De dignitate et augmentis scientiarum*. Londres, 1623.
- 31 Süssmilch, *Beweis*, § 6. oharra, 22. or.
- 32 Ikus Thomas Blackwell, *An enquiry into the life and writings of Homer*. Londres 1736, 36. or. eta ondokoak; - Johann Georg Hamann, *Aesthetica in nuce* (1762). *Sämtliche Werke*, hg. von J. Nadler, 2. alea. Viena, 1950, 197. or.
- 33 Pseudo-Longino, *peri; u{you}*, eta beste. Ikus Herderren *Sämtliche Werke*, B. Suphanen argitalpena, 2. alea. Berlin, 1877, 72. orria eta bertako oharra.
- 34 *Œuvres philosophiques latines et françoises de feu Mr. de Leibniz tirées de ses manuscrits qui se conservent dans la bibliothèque royale à Hanovre et publiées par Mr. Rud. Eric Raspe*. Amsterdam eta Leipzig, 1765.
- 35 John Brown, *Betrachtungen über die Poesie und Musik nach ihrem Ursprunge, ihrer Vereinigung, Gewalt, Wachstum, Trennung und Verderbniß*. Leipzig, 1769.
- 36 Horazio, *Serm.* I, 4, V. 62.
- 37 Leibnizen aipamena, *Principes de la nature et de la grace, fondés en raison*. Lehenengoz L'Europe savante aldizkarian azaldua, 1718ko azaroa, § 13.
- 38 Buffon: ikus 28. oharra.
- Etienne Bonnot de Condillac, *Traité des sensations*. Paris eta Londres, 1754.
- Charles Bonnet, *Essai de psychologie ou considérations sur les opérations de l'âme*. Londres, 1755; honek berak, *Palingénésie philosophique ou idées sur l'état passé et l'état futur des êtres vivants*, 2 ale. Genf, 1769.

- Herderrek J.H. Mercki 1770-VIII-12an idatzitako gutuna ikusita (Herders Briefe, W. Dobbeken argitalpena, Weimar, 1959, 60. or.) pentsatzekoa da hiru autore horien teorien berri izkribu honetatik datorkiola: *Système de la nature ou des lois du monde physique et du monde moral*. Londres, 1770, Paul Henry Thiry, Baron de Holbach-ena.
- 39 Shakespeare, *A Midsummer-night's Dream* I, 1, V. 149 eta ondokoak.
- 40 Alexander Pope, *Essay on man*, 1733, I, V. 200.
- 41 Johann Georg Sulzer, *Über den Ursprung der angenehmen und unangenehmen Empfindungen*. Berlin, 1762.
- 42 Albert Schultens, *Origines hebraeae*, 2 ale. Leiden, 1724tik 1738ra. Herderrek Schultensgandik ia hitzez hitz hartutako aipamenak 62. orritik aurrera.
- 43 Horazio, *Ars poetica* 97; "anpulu" zentzu zabalduan: burbuila.
- 44 Hamza b. al-Hasan al-Isfahânî-ren adierazpena. Ikus Ignaz Goldziher, *Muhammedanische Studien*. Halle, 1888, 213. or. (W. Diemen oharra).
- 45 Pierre Louis Moreau de Maupertuis, *Sur la figure de la terre*. Amsterdam, 1738.
- 46 Arrianoak eta Atanasioren arteko lehiaren aipamena, alegia Jesukristo eta Jainko Aitak substantzia bera duten ala ez. Nizeako kontzilioa, 325.
- 47 Emanuel Swedenborg, *Arcana Coelestia*, 8 ale. Londres, 1749-56.
- 48 Liburu honen egilea Peter Browne da.
- 49 Ustez, Chaumonoten aipua; ikus. 9. oharra.
- 50 On doit juger que les premiers mots dont les hommes firent usage eurent dans leur esprit une signification beaucoup plus étendue que n'ont ceux qu'on emploie dans les langues déjà formées; et qu'ignorant la division du discours en ses parties constitutives ils donnèrent d'abord à chaque mot le sens d'une proposition entière. J. J. Rousseau, *Schriften zur Kulturkritik*.
- 51 Ustez, Abbé Jean-François du Resnel, Sieur du Bellay (1692-1763), *Akademia Frantseseko partaidea gisa Journal des Savants-en zuzendari*.
- 52 Carl von Linné, *Systema naturae*, Leiden, 1735.
- 53 *Poetika*, 1456 b 18.
- 54 Gurasoen edo seme-alaben maitasuna.
- 55 Rousseau, lehengo lan berean. 162. or.
- 56 Remarquez encore que, l'enfant ayant tous ses besoins à expliquer, et par conséquent plus de choses à dire à la mère que la mère à l'enfant, c'est lui qui doit faire les plus grands frais de l'invention, et que la langue qu'il emploie doit être en grande partie son propre ouvrage. Rousseau, lehengo lan berean. 150. or.
- 57 Rousseau, lehengo lan berean. 250. or.
- 58 Horazio [*Serm. I, 3. 100*].
- 59 Seguraski Voltaire, *Essai sur les mœurs et l'esprit des nations*, 1756.
- 60 *Homo homini lupus* Hobbesen esaldiaren aipamena.

61 Agian David Hume?

62 Gerhard Johannes Voss, *Vossius deitua, Etymologicum linguae latinae*. Amsterdam, 1662.

63 Herderrek Moises I, 11, 9 parafraseatzen du, non "Babel" izenaren etimologia azaltzen den.

64 Voltaire, ikus 59. oharra.

65 Anton Raphael Mengs (1728-79), Christian Wilhelm Ernst Dietrich (1712-74), Rokoko eta Klasizismoko pintoreak. Hizkuntzaren Jatorriari Buruzko Tratatuaren bigarren argitalpenean Herderrek Dürer ipini zuen Dietrichen ordeza.

66 Klopstock, *Herrmanns Schlacht*, 1769, 12. eszenatik hartua.